


goiena

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA



2012-10-15
ASTELEHENA
381. ZENBAKIA
9. URTEA
1,10 EURO
GOIENA.NET
TOKIKOM



MIKEL AGIRREGABIRIA

"Independentzia ez da lehentasuna une honetan, ez EAJn ez eta EH Bildun ere"

Xabier Aierdi | Soziologoa | 7

Berrehun abelburu inguru eroan zituzten Elosuko ganadu feriara | 12



'SketchCrawl', marrazki maratoi ederra Bergaran | 29



Sergio Gartzia eta Marisol Ramos onenak Arrasatetik Oñatirakoan | 22

Onenekin, nahiz eta denbora gutxian



Aitor Mendizabal, pilotari boleaz ematen, Arretxe II.a atzean begira duela.

Aitor Mendizabalek 22 eta 13 galdu du Arretxe II. arekin, lau t'erdiko txapelketan | 25

JULIO CALLEJA




Eskaria eramateko unea. | JULIO CALLEJA

Aurrez aurre eskatu diote Guardia Zibilarari Oñati uzteko

Fan Hemendik batzordeko eta Oñatiko Udaleko ordezkariak gutuna eraman zuten urriaren 12an kuartelera. Udaltzazak aho batez onartutako mozioa bete eta Guardia Zibilak herritik alde egin dezan eskatzen da bertan. Eskaria dagokionari helaraziko diotela agindu zieten. | 4

Barre algaraz eta jendez bete zuen David Guapok Amaia

Sarrerak agortu eta kanpoan geratu ziren lagun nahikotxo | 30



David Guapo Arrasaten. | JULIO CALLEJA

Zu Behar Zaitut elkarte berria, gutxitasunak dituzten umeen aisialdia lantzeko helburuarekin | 2

%25 eko
deskontua



RENAULT AUTOBERRI kontzesionarioa

► Zoaz 21. orrialdera.

Behar bereziak dituzte, baina ez dute bereiztuta egon nahi

- ▶ Zu Behar Zaitut elkarteak sortu dute guraso batzuek
- ▶ Gutxitasunak dituzten umeen aisialdia landuko dute

LEIRE KORTABARRIA | ESKORIATZA

Edozein debagoiendarren ahotan dagoen kezua izaten da: Debagoiengan denbora librerako aukera gutxi dago oraindik; zertarako den, Gasteizera edo Donostiarara joan beharra dago; erraztasun gutxi daude... Bada, kezu horiek zentzuzkoak eta ulergarriak badira edozeinen kasuan, aisialdiaz gozatzeko oraindik mugak baldin badaude, pentsa zer esango duten gutxitasunak dituzten Debagoieneko umeek eta haien gurasoek.

Gasteizen, Donostian... gutxituen alde lan egiten duten elkarteek antolatzen dituzte ekintzak, bai. Baina ume debagoiendarren gurasoek ez dituzte ekintzak kanpoan nahi; hemen, bailaran, herrian, etxetik gertu nahi dituzte. Aisialdi ludikoa, jolas egin eta ondo pasatzekoa; alderdi terapeutikoarekin ere bai, jakina; baina herriko beste umeekin, normaltasunez, denok elkarrekin, integratuta.

"Integrazioa", "denok batera"... hitz horiek sarri esaten ditu Marisol Andrade eskoriatzarrak, Lorenaren amak. Lorenak 7 urte ditu eta garun paralisiaarekin jaio zen; beraz, behar bereziak ditu, norbait behar du aldean, eta bere aisialdia ere berezia da. Baina Marisolek ez du nahi aisialdi hori berezia izan dadin. Alabarendako eta gutxitasun fisikoak edo psikikoak dituzten beste ume eta gaztetxo debagoiendar guztientzako aukera hori sortzeko asmoz, Zu Behar Zaitut elkarteak sortu du Marisolek.

Irribarrea, aisialdiaren bidez

Ama horrek onartzen digu "bide gogorra" dela euren, baina poza ematen dieten uneak ere badituztela: seme-alaben irribarrea ikusten duten uneak. "Eta irribarre horiek bakarrik aisialdiaren bidez

lortu ditzakegu, hori da daukagun bidea", esaten du Marisolek. Horregatik da seme-alaben denbora libre Zu Behar Zaitut elkarteak jaio berriaren helburu nagusia.

Baina denbora libre hori gizartearekin batera izan dadin gura dute: "Disfrutzeko aukerak landu gura ditugu eta, aldi berean, gure munduan sar daitezten nahi dugu, gutxitasunak dituztenak beste umeekin batera ibiltzea, denok batera, inklusioa lor dezakegula erakusteko, pluraltasunaren eta elkartasunaren bidez eta poliki-poliki joanda".

Debagoiengan hutsuneak ikusten dituzte: "Ez dugu gura umeen aisialdia Gasteizen, Donostian... izan dadin. Ez, gure bailaran, gure herrian gura dugu. Eta hemen ez dago aukerarik eurak igerilekuan, zaldiekin... ibil daitezen".

Urruti joan gabe, ludotekak ez daudela euren prestatuta esaten du ama horrek: "Kasu batzuetan, bai: Down sindromea duten umeendako prestatuta egoten dira. Baina kasu oso bereziek erretortzua behar ditugu. Eta zergatik ez gure tartetxo izan? Igual hor bultzatzen hasi behar dugu".

Helburu txikiak dira eremu fisiko aldetik eta egunerokotasun aldetik, baina oso handiak, familiendako ekar dezaketan aldaketa neurtzen badugu.

Beste ume batzuekin

Bere familiaren eta Lorenaren beharrak asetzeko asmoak eta "ilusioak" sorrarazi zuten Marisolengan elkarte sortzeko ideia. Baina horretarako, elkarkideak behar zituen. "Hasieran, garun paralisia zuten umeendako egitea pentsatu nuen; baina gero, konturatu nintzen, integrazioaz hitz egiten badugu, lehenengo geuk eman behar dugula pauso hori". Beraz, denetariko gutxitasunak, izan paralisia izan beste gaitz

batzuk dituzten ume eta gazteendako da Zu Behar Zaitut.

Lorena joaten den igeriketa egokitu saioetako beste guraso batzuei planteatu zien. "Atzean, Gautenan edo Aspacen daude guraso gehienak. Hasieran, konfiantzarik ez zuten agertu: nolatan dator amatxo hau, ideia zoro batekin?", gogoratzen du Marisolek irribarrez. Baina han topatu zuen bidelagun bat: Silvia Mendizabal arrasatearra.

Silviaren semeak, Haritzek, 11 urte ditu eta autismoa du. Berak elkartearekin dituen helburuak kontatzen dizkigu. Helburu xumeak: "Haritzek norbait behar du ondoan etxetik irteten den momentutik; ezin da kaletik bakarrik joan, ez da autobusa hartzeko gauza... Guretako oso laguntza handia izango litzateke norbait izatea". Izan ere, beti norbait aldean izanez gero, "denborarekin, akaso, Haritz kapaz izango litzateke kalean bakarrik ibiltzeko".

Denbora libre aldetik, Haritzendako gauza "txikiak" eskatzen ditu Silviak: "Pasiatzera irteteko aukera, beste ume batzuekin". Oñatin ekinoterapia, zaldiekin ibiltzeko aukera ere lortu gura dute Marisolek eta Silviak.

"Gauza txikiak eskatzen ditugu, baina egingo ditugu. Baina ez bagara familiak batzen, ez dugu aukerarik izango eskaintza batzuk izateko. Niretako oso inportantea da elkarteak", gaineratzen du Haritzen amak.

Autofinantzazioa

Gauza guztietan bezala, elkarte berri horren kasuan dirua da gakoa. Marisol Andradek esaten duenez, alde horretatik duen helburua elkarteak bere burua finantzatzea da, izan ere, dirulaguntzak gero eta txikiagoak izango direla uste dute, eta ume gutxituak izateak gastu handiak ditu: "300



Ezkerretik eskumara, Silvia Mendizabal, Marisol Andrade, Haritz eta, kotxetxoan,



Irribarre hori ikusteko edozer egiteko gertu daude gurasoak. | MARISOL ANDRADE



Haritz, Monterron parkean ama Silviarekin. | LEIRE KORTABARRIA



Lorena, bi lagunekin. | ARRITXU BARRUSO

ESANAK

"Gutxi eskatzen dut: beste ume batzuekin paseatu ahal izatea Haritzek"

"Familiok elkartu egin behar dugu gure helburuak lortzeko"

MARISOL ANDRADE | AMA

ESANAK

"Gure umeen aisialdia hemen, bailaran nahi dugu, beste haurrekin"

"Ludotekan ez dute errefortzurik; akaso, hor ekin behar dugu"

SILVIA MENDIZABAL | AMA

Aluminioa, irribarren truke

Zu Behar Zaitut elkarteak aluminioa batzeko kaxak ipini ditu leku batzuetan: Jose Arana gunean, farmazian, unibertsitatean eta gasolindegian, Eskoriatzan. Euren logoa (ondoan) agertzen den edozein lekutan utz daitezke aluminioa.



Material hori leku askotan dago: sukaldean jatekoak batzeko erabiltzen den paperean; bat-batean kafea egiteko saltzen diren kapsuletan; ardo-botilen muturreko bilgarrian; botikak datozen blisterretan; kontserba-lata gehienetan; txokolate, bonboi eta antzeko elikagaien bilgarrietan; laka, gomina, ilerako gel, tindagai... poteetan (horregatik ile-apaindegia dira hain garrantzitsuak elkarte horri laguntzeko);

txakurrendako edo katuendako janari-latetan...

Batzuetan, metalarekin nahastuta agertzen da. Biak bereizteko modu bat dago: imanak ez du aluminioa erakartzen. Bestalde, elkarteari emateko, ez du balio aluminioa plastikoaz, latorriz edo kartoiak nahastuta badago. Laten kasuan, goiko parteak bakarrik balio du. Aluminiozko poteak eman nahi baditugu, lehenengo garbitu egin behar ditugu.



euroko gastua egiten badugu, nahiz eta %60 bueltatu, gastu handia izango da. Eta aurrerantzean, zenbateraino bueltatuko digite? Muga %40 izango da? Beste dena gure poltsikotik ipini behar dugu".

Aisialdia ezinbesteko gastua da familia hauendako, umeek jolas egiteko aukera izan dezaten, eta gurasoek, umeen poza ikustekoa. Eta hori garestia da: igeriketa egokitua astean bi egunean egitea hilean 40 euro da; ekinoterapia, beste 40 pasa... Eta aisialdia garestia da, hain zuzen, beste umeek dituzten aukerak ez dituztelako: "Nahiz eta plazan egon, gure umeak ez dira behar bezala sartuta egoten". Espazio horiek ume guztiendako ireki arte, eta, era berean, Zu Behar Zaitut elkartearen asmoak egia bihurtzeko, dirua beharko dute.

Hedatuta dago plastikozko tapoiak batzea, behar bereziak dituzten umeen familiei laguntze-

ko. Marisol Andradek horren antzeko zerbait asmatu du. Biologia ikasitakoa da, eta konturatu zen plastikoen artean bazegoela metal bat: aluminioa. Hori ere birziklatu egin daiteke. Bada, aluminioa batu nahi du Zu Behar Zaitut elkarteak.

Horretarako kanpaina hasi dute Marisolek eta Silviak: batetik, inguruan aluminio hondakinak eskatzen, batez ere ile-apaindegietan, han material horrez egindako gauza asko erabiltzen dituztelako; beste batetik, zenbait ikastetxerekin harremanetan jarri dira, ikasleekin eta familiekin hezkuntza kanpaina egiteko: aluminioa non dagoen eta nola garbitu edo tratatu behar den elkarteari emateko. Zenbait lekutan, aluminioa uzteko kaxak ipiniko dituzte, haien logotipoarekin. Dagoeneko lortu dute akordioa aluminioa birziklatzen duen enpresa batekin; gertu dago elkarteari laguntzeko.

Herritarroi deia

Zu Behar Zaitut elkarteak denon laguntza behar du: ingurukoon laguntza, lehenik eta behin. Izan ere, aldaketa eskatzen du herritarren aldetik ere: "Gure helburu nagusia integrazioa da, eta hori aldaketa handia da gure mentalitatean", esaten du Marisol Andradek.

Gaineratzen duenez, "ezjakintasun handia dago. Gorputz deformea ikusten duzu eta uste duzu garuna deformea dela; eta bai, kognitiboki ere egon daitezke atzerapen batzuk, baina horrek ez du esan nahi ezin dugula aurrera egin". Horregatik, helburu bat da umeen komunikazio beharrei ere erantzutea, herritarren eta beste umeon laguntzarekin. "Batzuetan hitzak ez dira beharrezkoak; begiradek asko esaten dute".

merkecartuchos®
printing solutions

> ERREKARGA
> SALMENTA

TONER ETA TINTA KARTUTXOEN ERREKARGA ETA SALMENTA

Loramendi 2 - Arrasate - 943 79 99 31 - arrasate@merkecartuchos.net

Jasotzen ditugu:

SUGOI - Irizar pasealekua 2 - Bergara

ATAI - Basabe bidea F-2 - Aretxabaleta

IGEHIK - Aranburuzabala 22 behe - Eskoriatza

U-21

Herri proiektua, akordioa, egitea, "EH Bilduren marka"

Gainerakoak geldi eta exijitzen ari diren bitartean, eurak aldaketa "egiten" ari direla dio Rebecka Uberak

JULEN IRIONDO | BERGARA

Egubakoitzean Bergaran egindako ekitaldian Gipuzkoako Aldundia jarri zuen eredu aldaketaren adibide EH Bilduko hautagaiak: "Gipuzkoan murrizketei aurre egiten ari gara". Gauzak bestela egin daitezkeela erakusten ari omen dira: "Beste zerga politika bat ezartzen, bakoitzak duenaren arabera bere ekarpena egiteko, pertsonak lehenetsiz eta ez negoziatuz". Aldaketa eredu hori "Gipuzkoatik Euskal Herri osora" zabaldu nahi dutela adierazi zuen.

Eta Madrili eta EAJri kritika: "Madrildik eta Bizkaitik ateak ixten ari zaizkie eskubide sozial eta laboralei, giza eskubideei eta erabakitzeko eskubideari". "Lortuko dugu erabakitzeko eskubidea praktikara eramatea", zioen, "herriak du giltza".

Bakerako eta elkarbizitzarako bateko eta besteko pausoen beharra nabarmendu zuen, "Estata gelditu dagoen bitartean, gu egiten ari gara" gaineratzeko.

Garitano eta Aristegi ere bai

Ahaldun nagusiak Jose Antonio Agirrerren izena -Bergaran etxea zuela aipatuz- atera zuen berriro: "Guretzat ere eredu bat da, faxismoari aurre egiteko erabakia hartu zuelako, Jose Antonio Agirre gure ondarea ere bada". Maite Aristegi Amairreko diputatuak, berriz, Espainiak "zulora" garamatzala, burujabetza ezinbestekoa dela eta EH Bilduren



Ubera hizketan, kideak atzean entzuten dituela. | JULEN IRIONDO



EH Bilduren aldeko argazkia Aretxabaletan. | J.I.

alde egitea ama lurraren errespetuaren eta gizon eta emakumeen parekidetasunaren alde egitea ere badela gaineratu zuen.

Bizikleta martxa eta argazkia

Aretxabaletan argazkia atera zuten eguenean, eta Oñatin bizikleta martxa egin zapatuan.

Asterako hitzorduak

Bihar, martitzena, auto-ilara

egingo dute Bergaran, 19:00etan Eroskin irtenda, eta eguaztenean triki-poteoa Oñatin, 19:00etan hasita, San Lorentzo eta Olakua auzoetan, eta gaztaina jana San Lorentzon iluntzeko 20:00etan.

Gorripidea EH Bilduren alde

Gorripidearentzat EH Bildu da "eskubideen murrizketari eta instituzioen degradazioari" aurre egiteko aukera bakarra.



Fan Hemendikeko kidea eta alkateordea, guardia zibilarekin. | JULIO CALLEJA

Joan daitezene eskatu diote, aurrez aurre, Guardia Zibilari

J.I. | OÑATI

Guardia Zibilaren festa eguna -urriak 12, egubakoitza- aldarrikapenerako aprobetxatu zuten Oñatin, beste behin. Herriatik eta Euskal Herriatik joan daitezene eskatu zioten Guardia Zibilari, manifestazioan, eta oraingoan baita zuzenean ere. Manifestazioa kuartel paretik pasatzean gutuna eraman zioten Fan Hemendik batzordeko eta Udaleko -alkateordea- ordezkaritzak.

Ertzaintzak manifestariak kuartelera hurbildu ez zitezen zaintzen zuten bitartean, guardia zibil bat atarira jaitsi zen -jakinararen gainean zeuden-.

Gutuna entregatzeko nahia agertu zioten, baina hark erantzun ordutegi administratibotik kanpo zeudela eta beste momentu batean joateko. Dena den, ziurtatu zuten gutuna iritsiko zela nahi zuten hartzaileengana, Espainiako barne ministroarengana, Guardia Zibilaren zuzendari orokorarengana eta Oñatiko destakamenduko buruarengana. Soseguz jardun zuten hizketan.

Gutunak eskatzen du, besteak beste, udalbatzak iazko iraileko osoko bilkuran aho batez onartutako mozioa, Guardia Zibilak alde egin dezan eskatzen zuena, betetzeko.



Zapatuan Bergaran egindako saioa. | J.I.

Aberastasuna sortu gabe justizia sozialik ezin dela aplikatu dio EAJk

J.I. | ELGETA

Maria Eugenia Arrizabalagak jeltzaleek Elgetan egindako ekitaldian adierazi zuen aberastasuna era justuan banatu ahal izateko aberastasuna sortu egin behar dela aurrea eta, horretarako,

ekonomia suspertzeko bidea asmatu behar dela.

"Planak egin eta proiektu zehatzak ezartzeari beldurrik ez diogu guk; erakunde publikoetatik eragiteari eta sektore pribatuarekin lankidetzan ibiltzearako,

ri ere ez", zioen hautagai jeltzaleak aurrez Markel Olanok esandakoekin jarraituz.

Olanok zioen Gipuzkoako Diputazioak ez duela krisiari aurre egiteko planik, Bilduren gobernuak "mesfidantza handiak dituelako enpresa arloarekiko, ez dutelako harremanik", gaineratuz egoera ekonomiko hau gaitzetzeko ezinbestekoa dela enpresa arloko estrategia, "estrategia nazionala", enpresek sortzen ei dituztelako lanpostuen %85.

Bake egoera egonkortzea eta erabakitzeko eskubidea dira EAJren beste bi lehentasunak, jeltzaleen esanetan.

Datozen hitzorduak

Eskoriatzako batzokian izango da gaur Joseba Egibar, 19:00etan. Eguenean, berriz, Iñigo Urkullu lehendakariarekin izango da Bergarako San Martin plazan, 19:30etik aurrera.



Arrizabalaga hizketan, Olano atzean duela. | JULIO CALLEJA

Abian da Zukgua gazte prozesua Debagoiengan

J.I. | BERGARA

Zapatuan egin zuten Bergaran -Arrasaten eguenean ziren egitekoak- Zukgua ekimenaren sorrera prozesuko lehen saioa, 25 gazteren partaidetzarekin. Herriz herri abiatu den prozesua da Zukgua, gazte antolakunde berria sortzeko asmoa duena, independentziaren aldeko eta ikuspegi ezkertiarreko lagunez osatua.

Ekimenaren bultzatzaileek argi dute "gazte antolakunde baten beharra" badela, eta honek nolakoa izan behar duen zehazten ari dira herriz herri. Ahalik eta gazte gehienek ekarpenak

nahi dituzte, ekimenaren ize-nari berari jarraiki: "Norbana-kotik -Zuk, gutako bakoitzak-kolektibora -gu, osatzen dugu-". Gazte antolakunde anitz eta zabala izan nahi du Zukgua.

Baina ez hori bakarrik: "Kolektibo garen heinean, gazte modura kezka, arazo eta bizi ikuspegi propio bat dugulako, prozesua bera geuretzat ere aberasgarria izango da, gozatu, ikasi, landu, eztabaidatu... denetik egingo dugulako".

Bergarako aurreneko saioan munduaren egoeraren inguruko gogoeta sustatzeko ariketa dinamikoa egin zuten.



Kasablankatik Torreaurozako bidegorri zatia bukatuta dago. | JULEN IRIORRDO

Oñati-Zubillaga bidegorria, urte amaierarako bukatuta

Zubillagatik Epeleko araztegirainoko lanak hasiko dituzte orain, milioi bat euro pasako aurrekontuarekin

UBANE MADERA | DEBAGOIENA

Oñati eta Arrasate arteko Zubillaga-Elorregi-Epele bidegorri zatia egiten hasiko da Gipuzkoako Foru Aldundia, "epe laburrean", emandako informazioaren arabera.

Behin hasita, zazpi hilabetez bukatuko dituzte obrak. Aurrekontua da 1.365.480 euro (BEZ barne) eta Construcciones Murias enpresak egingo ditu.

Ibilbide laua

Ibilbidearen ezaugarriak dagokionez, obrak Epeleko araztegiaren parean hasiko dira. 3,5 metroko zabalera duen bidea egokituko dute: "Bi metro bizikletentzat eta gainerakoa (1,5 metro) oinezkoentzat. Oro har, Vasco-Navarro trenbide zaharraren

plataforman dago oinarrituta. Horregatik, trazatua, oinplanoan, laua da, eta batez besteko aldapa %1,66 inguru", zehaztu dute.

Tramu horren luzera 4.556 metrokoa izango da; eta horri Zubillaga eta Oñati arteko zatia gehitzen bazaio, guztira, zortzi kilometro pasa izango ditu.

Ondo argiztatuta

Aipagarria da, baita ere, bidegorria ondo argiztatuko dutela; izan ere, Diputazioak iragarri du ibilbide osoan jarriko dituztela argi-puntuak: "Aire zabaleko zatietan 35 metroan behin jarriko dira eta tuneletan, 12 metroan behin led motako argiak, energia aurrezteko araudi guztiak betetzen dituztenak".

Abendu bukaerarako gertu

Bidegorriaren beste zatiari, Oñati-Zubillaga tramuari dagokionez, berriz, Kurtzetxoko ermitatik Kasablankarainoko lanik handienak abuzturako bukatu zituzten. Kasu horretan, ezaugarrietako bat da bidegorria errepide erditik doala. Eta orain, errepidearen kolore bera –grisa– duen arren, gorri margotuko dute. Bestalde, Kasablankatik Madalena auzoko Urteazpikua baserriaren tarteko lanik handienak ere bukatuta daude. Oro har, Diputazioak jakinarazi du bidegorriaren zati horren lan guztiak abendu erdialdean bukatuko dituztela eta zubikoak, berriz, azaro erdialdean.

DATUA

35

METRO

Horiek egongo dira argi puntuen artean. Tuneletan, berriz, 12 metro.

Hiru zati

Ibilbide orokorrari dagokionez, berriz, hiru zati ditu Arrasate eta Oñati arteko bidegorriak: Epele-Elorregi (1.800 metro); Elorregitik Fanderira sartzeko zubiraino (1.616 metro) eta Fanderiara sartzeko zubitik Zubillagako zubiraino.

Lehenengo zatian GI-627 errepidearen paralelo doan plataforma aprobeztatu dute bidegorria egokitzeke. Besteak beste, bi tunel zeharkatuko ditu, Errekabaltz eta Minazulueta. Elorregiko biribilgune ingurua, berriz, lurpetik gurutzatuko du. Eta hortik aurrera, bideak gora egingo du, Tavesako instalazioetara sartzeko Oñati ibaiaren gainean dagoen zubiraino. Zubia ere trenbide zaharraren zatia da, eta ibilgailu motordunekin partekatuko dute.

Bigarren zati ia osoa, berriz, Oñati ibaiaren paralelo doa, eta Fanderiako industrialdean, zati batean ibilgailu motordunetik partekatuko du bidegorriak. Bestalde, oraingo espaloia zabaldu egingo dute bi metrotik hiru eta erdira, bizikleta eta oinezkoendako bideari lekua egiteko.

Bukatzeke, Fanderiara sartzeko zubitik Zubillagako zubirainoko tramuko zubi bat –trenbide zaharrarena– ibilgailu motordunekin partekatuko beharko da. Eta, besteak beste, azkeneko zatiko bizikleta eta oinezkoen bidea egingo dago, "Oñati ibaiaren uholde arriskutik babesteko obren zati gisa". Zubillaga auzoko zatian, berriz, "kale nagusiaren sekzioa berriro definitzea planteatu da: 150 metroko espaloia gehi sei metroko galtzada gehi 3,5 metroko bizikleta eta oinezkoen bidea".

Aretxabaletako Mozkorra tomatea hizpide etzi

J.B. | ARETXABALETA

Urriaren 9tik abenduaren 9ra izango diren Debagoieneko 12. jardunaldi gastronomikoen barruan, hitzaldi interesgarria izango da etzi, hilak 17, Aretxabaletan: *Aretxabaletako Mozkorra adibide on bate Slow Mugimenduari ikuspegitik. Produktu komunitateak bultzatuz.*

Ekitaldian, honako hizlariak izango dira: Juan Manuel Garmendia, Donostiako Slow Food delegazioaren ordezkaria; Koldo Zubizarreta, ekimenaren bultzatzailea; Tomas Larrañaga, Antzuolako Lapatzeta baserrikoa; eta Nerea Arrizabalaga, Itziarko Don Doniene Berri baserrikoa. Hitzaldia Aretxabaletako Arkupe kultur etxean izango da, 19:00etan hasita.

Itxura ona, zapore hobea

Beraz, Aretxabaletako Mozkorra tomatea izango dute berbagai etziko hitzaldian. Slow Food mugimenduari adibide gisa aurkeztuko dute 1990ean desagertzeaz egon zen Euskal Herriko tomatearen aldaera hori. Uztaile amaieran lehiaketa bat irabazi zuen, Donostian, beste hainbat barietateren gainetik nabarmenduta. Oso itxura ona izateaz gain, zapore ederra duelako da ezaguna Aretxabaletako Mozkorra tomatea. Etziko hitzaldian tomate barietate hori landatzen duen Itziarko Nerea Arrizabalaga baserriarrak hartuko du hitza, besteak beste.

Arrizabalagak hiru urte daramatza tomate hori landatzen, eta barietate hori gal ez zedin hasi ziren landatzen, azaldu duenez.

Hezkuntza arloko murrizketen aurka egindako grebak, jarraipen zabala

Ikasle Abertzaleek deituta manifestazioa egin zuten Arrasaten egunean

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Debagoieneko 16 urtetik gorako ikasle guztiak greba egin zuten joan den egunean. Arrasaten greba egitearen aldeko jarrera nagusitu zen: Arizmendi ikastolako ikasleek, Arrasate Herri Eskolako batxilergokoek, Hasierako Lanbide Prestakuntzako ikasleek eta Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politekniko ikasleek grebarekin bat egin zuten. Arrasaten greba egin ez zuten ikasle bakarrak Arrasate Herri Eskolako Derrigorrez-

ko Bigarren Hezkuntzako ikasleak izan ziren. Bergaran, Aranzadi Ikastolako batxilergoko ikasle guztiak egin zuten greba, baita GLHBI Miguel Altunako erdi eta goi mailako heziketa zikloetako ikasleek ere –klasera joan ziren gutxi batzuk kenduta–. Oñatin, Txantxikuko zein R.M. Zuazola-Larraña batxilergoko ikasle guztiak ez ziren klasera joan. Mondragon Unibertsitateko Enpresagintzako ikasle ia guztiak ere egin zuten greba. Adibidez, LEINeko ikasle batzuk klasera joan

ziren. Eskoriatzan, ikasle guztiak hartu zuten parte greban, bai Arizmendi ikastolakoek eta baita MUko Huhezikoak ere.

"Euskal nortasuna ukatzeko"

Era berean, Espainiako Gobernuak hezkuntzan egindako azken murrizketen aurka manifestazio jendetsua egin zuten Arrasaten. Hezkuntzako erreformak euskal ikasleen etorkizuna "hipotekatzen" duela salatu zuen IAK: "Hezkuntza zentralizatzen ari dira euskal historia eta nortasuna ukatzeko".



Bailara osoko ikasleek manifestazioa egin zuten Arrasaten. | ANDER MONEDERO

Arkaitz Izagirre | Setaldeko kidea eta instalazio termikoetan aditua

"Berogailua 21 gradutik gora ipintzen badugu, energia alferrik galtzen gabilta"

- ▶ Etxean ez gaudenean, 17 gradutan uztea komeni da
- ▶ Jaurlaritzak galdara aldatzeko laguntza kendu du

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Azken asteotako eguraldiari begiratuta ez dirudien arren, urtaro hotzean sartu gara Euskal Herrian. Berogailua gero eta gehiago erabiliko dugu, hortaz, aurten, krisiaren eraginez, *renove* planik ez da egongo, eta horregatik, nor bere kabuz ahalik eta gutxien gastatzea inoiz baino garrantzitsuagoa izango da. Setalde enpresako instalakuntza termikoetan aditua da Arkaitz Izagirre, eta, haren esanetan, "erabilpena da garrantzitsua".

Berokuntza kanpaina hasi da. Euskadin nahiko hotza izaten da urtaroa, ezta?

Bai. Gutxi gorabehera, urri erdialdean hasten da berokuntza kanpaina eta apiril erdialde edo martxo bukaerara arte irauten du. Hilabete dezente dira.

Eta horrek esan nahi du ordu dezente izan beharko dugula berogailua piztuta. Zenbat?

Norbere erabilpenaren arabera da, baina bost eta 10 ordu artean egunean, batez beste, etxebizitza bakoitzean. Horrek 5 eta 10 euro arteko gastua dakar eguneko, batez beste. Urte bukaeran, 1.200 eta 1.500 euro arteko faktura da, ur bero sanitariorako eta berogailurako gas naturalaren gastua hartuta.

Eusko Jaurlaritzak ez du *renove* planik egingo...

Ez. Lehengo urtera arte, galdara berritzeko dirulaguntza bat ematen zuen, eta 200 eurokoa zen. Aurten,

hori ere, bizi ditugun garaiekin, kendu egin dute.

Euskadi osoan, zenbat galdara daude aldatzeko beharrea, Setalderen arabera?

Zaila da esaten. Dena dela, urte askoan galdara indibidual asko jarri dira, horiek pixkana-pixkana berritzea eskatzen dute eta nik uste dut asko dagoela alde horretatik egiteko. Izan ere, galdara batek, gutxi gorabehera, 10 urteko bizi iraupena du; hortik aurrera, errendimendua jaitsi egiten da. Beraz, esango genuke 10 urtean behin aldatzea izango litzatekeela egokiena.

Ondorio txarrak izango ditu ez aldatzeak...

Alde batetik, teknologia gero eta bizkorrago aldatzen da, eta, horren eraginez, kontsumoa jaitsi egiten da; horrez aparte, galdara zaharrak errendimendu txikiagoa dauka; ondorioz, kontsumo handiagoa egiten du, eta horrek zuzenean dakar CO2 eta beste jario batzuk handiagoak izatea.

Oso garrantzitsua da etxea isolatzea, ezta?

"Aurrezteko, berogailua nola erabiltzen dugun da garrantzitsua"

Bai, hala da. Orain arte izan da leihoak aldatzeko dirulaguntzarik, baina aurten, orain arte behintzat, ez da deialdirik agertu. Garbi dagoena da edozein berokuntza sisteman gauzarik inportanteena isolamendu ona dela; demandatzen, erabiltzen ez duzun energia, hori da aurrezten duzuna.

Nondik datoz energia galera handienak etxebizitza baten?

Sistema bera egokia edo ez egokia izateak zerikusi handia dauka, baina erabilpenean dago gako handiena. Izan ere, konfundituta ditugu kontzeptuak: termostatoak behar baino gehiago, konfort mailatik gora igotzen ditugu, eta hortik gastu gehiegizkoak datoz.

Ze tenperaturatan komeni da berogailua edukitzea?

Norberaren sententziaren arabera da, baina gure gomendioa da 20-21 gradutik gora ez igotzea. Hortik aurrera, energia alferrik galtzea da.

Beste erkidego batzuetan, 200 euro arteko dirulaguntzak emango dituzte fabrikatzaileek. Zer deritzozu?

Hemen ere, dena ondo etorriko litzateke laguntza gisa. Jakina, hori fabrikatzaileek eurek erabaki beharrekoa da, baina azkenean bai, ona litzateke.

Euskadin ze energia mota kontsumitzen da gehien?

Etxebizitzan, elektrizitatea eta gas naturala. Gaur egun, bero-



Arkaitz Izagirre. | LEIRE KORTABARRIA

kuntza sistemetan, gas naturala da nagusi.

Teknologia aipatu duzu, azkar aldatzen doan teknologia. Nondik datoz horiek, berokuntza sektorean?

Orain datorrena eta etorkizuna dena kondentsazio galdarak dira. Galdarak botatzen duen ke horren berotasuna aprobetxatzen du eta, horrela, bere errendimendua asko handitzen da. Hori erregulamendu sistema on batekin bateratu behar da. Horrelako galdarak dagoeneko instalatzen ditugu. Guk askotariko aukerak ematen dizkiogu bezeroa-

"Termostatoa behar baino gorago ipintzeak gehiegizko gastua dakar"

ri, baina gure apustua kondentsazio teknologia da beti.

Euskadin, non egiten da gas natural kontsumo handiena?

Industriak kontsumo handia egiten du; aldiz, Europan, klimarengatik, berogailuan gehiago kontsumitzen dute. Guk Europako batez bestekoa baino gehiago kontsumitzen dugu industrian.

Nola aurrez dezakegu etxean?

Nola erabiltzen dugun da garrantzitsua. Nire gomendioa da 21 gradutik gora ez ipintzea eta, erabiltzen ez den orduetan ez uztea erabat hozten, baizik eta 16-17 gradu inguruan utzi. Gainera, programatuta uzteko moduko termostatoa izan daiteke; ez da inbertsio handia. Erradiadoreetan, balbula termostatiokoak erabiltzea komeni da etxean gutxiago erabiltzen diren lekuetan. Eta ez izan egun osoan leihoak zabalik; egunean 15 minutu nahikoa da.

Salatu dute GGKEek %73 diru gutxiago dutela 2009a ezkererako

L.K. | ARRASATE

Espainiako Gobernuak prestatu dituen 2013rako aurrekontuetan, garapenerako laguntza ofiziala 1.300 milioi eurokoa izango da, Espainiako Barne Errenta Gordinaren %0,12. Horrek garapenerako laguntza "1981eko mailan ipintzen du", Espainiako GGKEen Koordinakundeak baloratu duenez. Erakunde horretako kideak dira Euskadiko eta Nafarroako GGKEen koordinakundeak, eta Debagoieneko Gobernu Kanpoko eta Garapenerako hainbat erakunde ere.

GGKEen koordinakunde nagusiko presidentek, Mercedes Ruiz-Gimenezek, "guztiz eskandalagarritzat" hartu du

Espainiako 2013rako aurrekontu orokorrek "beste murrizketa bat egitea gizarte politiken multzoari, eta, horren barruan, kooperazioari". Ohartarazi duenez, "milioika lagun bizi diren erakunde horrek dituen ondorioak



guztiz bidegabeak eta gizatasun bakoak dira".

30 urteko politika

Espainiako koordinakundeak esan duenez, 2009a ezkererako, %73 txikituta diru garapenerako laguntzari Espainiako Gobernuak ematen dizkion diru publiko partidak, eta horrek "30 urte baino gehiago dituen politika publikoa desegiten du", esan du Ruiz-Gimenezek. "Egoera oso larria da eta ez du aurrerikaririk", gaineratu du.

Espainiako Garapenerako Nazioarteko Kooperazio Agentziak %29 diru gutxiago izango du, eta bere partidetan ez dago zehaztuta GGKEek dagoeneko hartuta dituzten konpromisotarako ere izango den diru hori. Era berean, ekintza humanitarioetarako aurrekonturik ez dela egongo gaineratu dute.

Milioi eurotik gorako proiektuak landuko ditu Stirlingek elkarlanean

L.K. | ARETXABALETA

Mondragon Componentes kooperatibak eta Stirling bere ikerkuntza zentroak Centre Catala del Plastic (CCP) zentroarekin hitzarmena egin dute. Epe labur eta ertainerako ekintza-plan zehatza ere egin dute; besteak beste, datozen hiru urteotan milioi eurotik gorako proiektuetan batera lan egingo dute; batez ere, energia eta osasun sektoreetan.

Aholkularitza lanak

Hitzarmenean jasotzen denez, honako alorretan batera egingo dute lan: martxan dauden proiektuetan aholkularitza eta zuzeneko parte-hartzea; plastikoen

gaineko azken aurrerapenetan formazio espezializatua ematean, seminarioen bidez eta doktore-tesiak zuzenduta; Europan egiten diren deialdietara batera aurkeztean, biek batera egiten dituzten ikerketak mundu osora hedatzeko; eta gaur egun euren industria-sarean kontaktatuak eta elkarlanak batera egitean.

Gaitasun handiak

Kataluniako Unibertsitate Politeknikoari eta plastikoaren industriari oso lotuta dago CPC. 1996a ezkererako, "oso ezohikoak" diren aholkularitza eta parte-hartze gaitasunak ditu, Mondragonen esanetan.

Xabier Aierdi | Soziologoa

"Independentzia ez da lehentasuna une honetan, ez EAJn ez eta EH Bildun ere"

- ▶ Politikariak eta politika txarto ikusita daudelako kanpaina lasaia izaten ari dela dio
- ▶ "Hurrengo lehendakaria Urkullu izango da eta edozeinekin egin nahiko du ituna EAJk"

ENEKO AZKARATE | ARRASATE

Xabier Aierdi zeberioztarra Euskal Herriko Unibertsitateko Soziologia irakaslea da; hain justu ere, Soziologia Saileko zuzendaria. Nazionalismoa, unibertsitatea eta migrazioa aztertu izan ditu eta duela gutxira arte Migrazioaren Ikuspegi Behatokiaren zuzendaria izan da, zortzi urtez. Hauteskundeez jardun dugu harekin.

Hauteskunde kanpaina interes bereziarekin jarraitzen ari zara?

Interes handiko hauteskundeak dira, ze, azkenean, lortuko baita hauteskunde maparen berridazketa. Orain arte mapa bat izan dugu, zeinetan ez den ezker abertzalea eta urriaren 21etik aterako denak iragarriko du aurrerantzeko mapa. Neurri batean, gainera, agian ez bigarren trantsizioa, baina bai sistema politikoaren bigarren fasea hasiko dugu.

Bada atentzioa, bereziki, deitu dizun ezer?

Bi kontu daude une honetan agendan: batetik, ekonomia krisia. Horrek baldintzatzen du alderdi politikoen jokaera, zuhertasun handiz ari dira-eta. Ikusi dute krisia gogorra dela eta, bestalde, jakin badakite ez dutela krisi ekonomikotik irteteko errezeta magikorik. EAJk, esaterako, bere burua irabazle ikusten du eta zuhurtziaz dihardu eta dio: "Ez dakigu zerekin egingo dugun topo, zer dagoen kutxan, eta astiro-astiro joango gara...". Gero, bestalde, bada beste elementu bat ez dakiguna zenbateraino izango duen eragina hemen: Kataluniako independentziaren aldeko tsunamia. Ikusi behar zertan geratzen den: zirimirri batean, ekaitz tropikal batean... edo serioagoa izango den. Eztabaida hau ez zegoen agendan. Bazegoen EH Bilduren eta EAJren arteko lehia burujabetzaren inguruan, baina ez etorri den moduan. Zentzu horretan, auzi honek EAJ kaltetzen du.

Beldurraren mezua erabiltzen ari dira, bereziki, PPKoak eta PSE-EEkoak, independentziaren eta indar abertzaleen aurka egiteko?

Hor aurkitu dute euskarri edo helduleku bat. Azken finean, PPK ez dauka programa propiorik, Madrilen hartu beharreko neurriek baldintzatuta dagoelako. Espainiartasunaren ikur moduan aurkeztu dute euren burua. Bestalde, PSE-EEri ematen dio aukera esateko haiek espainiar zein euskal abertzaleen lehian artean daudela, erdigunean,



Xabier Aierdi soziologoa. | MIKEL AGIRREGABIRIA

benetako arazoei erantzuna eman nahian. Alde horretatik, PPK eta PSE-EEk, auzi honekin, aurkitu dute lekutxo bat beren burua ateratzeko. Eztabaida horretan ez da sartuko EAJ, kalte egiten dioelako, EH Bilduri mesede egiten dion moduan.

Harriduraz hartu duzu Katalunian gertatu dena?

Zerbait egosten bazebilen lehenetik. Esanguratsua izan zen, esaterako, Estatutu berria laminatu zutenean. Egonezin bat sortu zen orduan Katalunian eta egonezin horrek indarra hartu du. Kataluniako jendartearen gorpuztu egin da halako nahi bat. Edozelan ere, kautela apur batekin begiratzen dut Kataluniara. Izan ere, 2004az geroztik izan zuten aukera, gehiengo handi batek Estatutu berria onartu zuelako, baina ez zuen aurrera egin, alderdi katalanen arteko zatiketaren ondorioz. Hegemoniaren arteko borrokak zaputu zituen herriaren itxaropenak. Eta, adi, hemen ere egin genezake-eta tontakeria berbera. Ikusi beharko da Masek zenbateraino nahi duen olatuaren gainean surf egin edo uretan sartu. Aztertu behar, era berean, zergatik deitu dituen Masek hauteskundeak orain, ze, hasiera batean, gurea bezalako itun fiskal bat aldarrikatzen baitzebilien.

Zerk kezkatzen du, batik bat, herritarra gauregun: krisiak, diru kontuak, ekonomiak ala burujabetzaren kontuak, ala biak doaz batera?

Hiritargo osoa, une honetan, krisiak kezkatzen du. Eta horixe da agendako lehentasuna. Eta bigarren mailan dago burujabetzarena. Baina gurean burujabetzaren kontua beti dago presente. Beharbada, EAJk eta EH Bilduk, batuta, zenbat lortzen duten dago agendan. Ezker abertzaleari hori aireratzeari interesatzen zaio, baina, era berean, interesatzen zaio boterea ez eskuratzea, nahiz eta boto edo legebiltzarkide gehiago eduki. Barrura begirako hainbat lan dauzka ezker abertzaleak. Azken finean, gurean badago %35

bat-edo independentziaren alde dagoena, edozein dela egoera eta hori, agian, ez da Katalunian gertatzen. Hemengo serioagoa da. Baina independentziarena ez EH Bildun ez eta EAJn, une honetan, ez da gehien lehenesten den kontua.

Orain arteko inkestek diote EAJ nagusituko dela eta indar abertzaleen arteko lehia izango dela, eta PSE-EEk eta PPK behera egingo dutela.

Oro har, betekoa da eta, neurri batean, logikoa da. Orain arte Legebiltzarra oso baldintzatuta egon da, arrazoi asko tarteko: ezker abertzaleak parte hartu ez duelako, edo parte hartzen utzi ez diotelako, edo parte hartu arren, Legebiltzarrerara joan ez delako, ze urte luzeak

eman baititu erakundeetan parte hartu barik. Orain, ikusiko dugu zela geratzen diren bakoitzaren indarrak eta ikusiko dugu urte askotan galdu dela aukera bat abertzaletasuna nagusi izan zedin Legebiltzarrean. Bestalde, ikusi behar indar txikiendako tokirik geratzen den Gasteizen.

Zein izango da, zure ustez, hurrengo lehendakaria?

Urkullu.

Gobernatzeko laguntza beharko du, ordea. Zein izango da formula?

EAJri gustatuko litzaioke berak gehi beste edozeinek, izan EH Bildu, PSE-EE edo PP, 38 legebiltzarkide batzea; hau da, erabateko gehiengoa. Horrek emango lioke malgutasunez jokatzeko aukera. Eta, behin lehendakaritza lortuta, une bakoitzean, batekin zein bestearekin, gaiaren eta komenientziaren arabera, negoziatzeko aukera edukitzea. Hori izango litzateke EAJren ideala. Ikusi beharko, ordea, hori gertatzen den. Ze, hori gertatuko ez balitz, sozialistekin egin baitezake agintaldi osorako ituna, nahiz eta jeltzaleen eta sozialisten arteko harremanak puskatuta egon. Izan ere, EH Bilduk, esaterako, eskainiko dio itun nazional bat, baina hori ez zaio interesatuko EAJri. EH Bildu irabaztera etorri da, eta irabazten ez badu, etzi edo etzidamu irabaz dezake, hori nahiko du, abertzaletasunaren nagusitasuna edukitzea.

Zela definituko zenuke Lopezen legegaldia?

Txarto jaio zen: batetik, hauteskundeak irabazi zituena baztertuta geratu zen eta, bestetik, hauteskunde kanpainen PPrekin bat egingo zuela ukatu ostean, harekin egin zuen gobernu ituna PSE-EEk. Bestalde, egia da orduan zutela lehendakaritza heltzeko aukera bakarra. Azkenik, ezin da ukatu garai txarra tokatu zailela. Askoz errazago gobernatzen da kutxa beteta dagoenean. Orokorrean, 4,5 bat emango nioke Lopezi.

Orain arte kanpainen ikusitakoaren arabera, zer esango zenuke?

Nahiko klasikoa da eta lasaia izaten ari da. Sozialki, politikarien kontrako olatu bat antzematen da, politika kritikatu egiten da, eta hau datu kezagarria da; politika duinago egiten hasi beharko ginake. Edozelan ere, politika eta politikoak gaur egun txarto ikusiak daudelako kanpaina ohikoa baino lasaiago edo isilagoa egiten ari direla esango nuke politikariek eurek.

"Hauteskunde maparen berridazketa lortuko da urriaren 21ean"

"Ikusi behar indar txikiendako tokirik geratzen den Gasteizen"

"EH Bildu irabaztera etorri da, eta irabazten ez badu, etzi irabaz dezake"

"Askoz errazago gobernatzen da kutxa beteta dagoenean"

ZABALIK

URTZI AMIANO
http://goiena.net/iritzia/



Zergatik ez desordueak?

Gauden garaietan, krisiaz edo hauteskudeez hitz egitea litzateke normalena edo ohikoena, baina horretarako badaude hainbat eta hainbat idazle ni baino askoz hobeto espresatuko direnak; nik nahiago dut gizartearentzat ohikoak, egokiak edo normalak ez diren orduz berba egitea; hau da, desorduez.

Duela aste batzuk, ostegun baten, lagun bat ondoan nuela, errepideko bizikleta gainean nindoan eguerdiko ordu batean (nola ez, desorduetan). Eguraldia lagun genuela desorduez hasi ginon berriketan eta hainbat adibide etorri zitzaizkigun burura: badaudela eguerdian bizikletan irten eta ia bazkaltzeko astirik gabe ibiltzen direnak berriz lanera bueltatzeko, goizeko 6etan korrika ibiltzen direnak, igerilekura goizeko 6 eta erdiatarako joaten direnak, gaua ondo sartuta dagoenean ilargi betearekin korrika edo mendira oinez joaten direnak, gauez mendiko bizikletarekin frontala gainean dutela maldan behera ibiltzen direnak, gau osoan azken orduko azterketarako ikasten jarduten dutenak, gaueko orduetan baratzea erregatzen dutenak, lanetik etorri eta seme-alabak ohera joan ostean etxetik lanean jarraitzen dutenak, 4 edo 5 errelebotara dabilzanak, eta honela, amaigabeko zerrenda bat burutu arte.

Azken batean, ohikoak ez diren orduak erabiltzen ditugu norbanakoaren ongizatera iristeko, ingurukoekin ohiko orduetan egoteko edo beste erremediorik ez dugulako.

Tamalez, badaude desordu batzuk ia inork erabiltzen ez dituenak eta sarriago erabili beharko genituzkeenak. Gure inguruan daudenei maite edo estimatzen ditugula adierazteko gizarteak finkatutako orduak erabiltzen dira (ohiko orduak), gaixotasun larri, bidaia luze, denbora luze ikusiko elkar ikusiko ez dugunean eta batzuetan sentimenduak adierazteko beranduegi ere izaten diren orduak.

Erabil ditzagun, bada, desorduek, hainbeste pentsatu eta esaten ez ditugun sentimenduak adierazteko.

"Ohikoak ez diren orduak erabiltzen ditugu ongizatera iristeko"

USTEAK USTE

MONIKA BELASTEGI | mbelastegi@goiena.com

Euskaldunizatu behar ditugu

Espainiako Gobernuak Hezkuntza, Kultura eta Kirol ministroak, Jose Ignacio Wertek, atzo esandakoak, Kataluniako ikasleak *espaniolizatu* egin behar direla, alegia, gaur egun Espainiako Gobernuan daudenen politika eta pentsamoldea oso ondo laburbiltzen du. Askotan entzun izan dugu euskaldunok gauzak politizatzeak daukagun joera, guztia politizatuta ei dago hemen eta hori txarra omen da.

Ministroak esandako hitzak hemengo agintari abertzalaren batek esandakoak izango balira, Euskal Herriko ikasleak *euskaldunizatu* egin behar ditugula, hain justu, zer gertatuko litzateke?

KALE INKESTA

Zer iritzi duzu kanpainari eta hauteskudeoi buruz?



FELIX
ARRIARAN
ARRASATE

"Egia esan ez diot oraindik kasu handirik egin kanpainari. Baina betiko antzerakoa izaten ari dela iruditzen zait, nahikoa zozoa".



IRATI
MUJIKA
ARRASATE

"Aurrerapausoa da iritzi desberdinak izatea. Lehendakariari emakume bat izateak balio handiagoa du, orain arte ez baita izan".



AITOR
ETXABE
ARRASATE

"Gutxienez oraingoan zilegitasuna izango du Eusko Jaurlaritzak, ze orain arte baztertuak izan dira milaka eta milaka boto emaile".



GARAZI
BEDATSE
ARRASATE

"Herriak hitz egiteko aukera dira hauteskunde hauek eta aprobetxatu egin behar da momentua gizarte hau eraldatzeko, behar da-eta".

HANDIK ETA HEMENDIK

Osasun publikoaren aldarriak, 10 puntutan

Mikel Garcia
http://argia.com/erredakzio-mahaia/

Krisiaren aterpean, murrizketen politika larriki ari da kaltetzen Ongizate Gizartearen oinarri diren zerbitzu publiko eta unibertsalak.

Pribatizazioaren eta baliabideak urritzearen beldur, herritarrentzako osasun zerbitzu indibidual eta kolektibo hobe aldarrikatu du Osalde Osasun Publikoaren Aldeko Elkarteak, eta horretarako hamar puntu dituen eskutitza bidali die EAEko hauteskudeetara aurkeztuko diren alderdiei.

Hona puntuon laburpena.

1- Osasunera bideratutako aurrekontua ez da ekonomia eraginkorraren aurka doan zulo beltza, baizik eta sozialki ezinbestekoa den inbertsioa. Inbertsio publikoa izan behar du, doakotasuna eta unibertsaltasuna bermatzeko, eta eraginkortasun handiagoa lortzeko.

2- Jasangarritasuna beste zerbait da. Ez da "ospitalezentrisismoaren" alde egitea, ez da medikalizazioa, ez da teknologia eta farmakoak neurrigabe bultzatzea, kontsumo nahiz prezio aldetik.

3- Marketin gutxiago. Industria tekno-sanitarioaren botereak eta politikarien utzikeriak sustatuta, sarri osasunarekin zerikusirik ez duten interes ekonomikoengatik egiten dira (beharrezkoak ez diren eta areago, kaltegarri izan daitezkeen) hainbat ebakuntza.

4- Gardentasuna. Beharrezkoak dira zintzotasuna, independentzia eta informazioa bezalako balioak bermatuko dituzten eta interesen arteko gatazkak arautuko dituzten mekanismo eraginkorrak.

5- Osasun plan integralak. Piramide egituraren oinarrian, lehen mailako arreta; eta gailurrean, arreta kritikoa, espezializatua eta lehen mailakoa egiteko baliabideen eta osasun publikoaren arteko oreka egokia.

6- Osasuna, politika programa guztietan, bultzatzeko elikadura osasuntsua, ariketa fisiko eta hirien birdiseinua, gizarte zerbitzuak, etxebizitza eta lan duinak, garraio publiko egokia, aire osasuntsua,

hondakinen tratamendu jasangarria, gizarte sareak... Udallerriak dira politika hauen arduradun eta ezin dituzte begiak itxi.

7- Osasun arloan dauden desberdintasunak eremu ekonomiko, sozial eta politikoan dauden desberdintasunen ondorio dira, nahiz eta ikuspegi tekniko, teknologikoa eta biologikoa emanez mozorrotu duten errealitatea.

8- Herritarren parte-hartzea. Gaixoak bezero bilakatu ordez, herritarrek osasunaren politika publikoan erabakietan hartu behar dute parte, eta eskubidea dute osasun zerbitzuaren kontrol sozialean eragiteko.

9- Osasun publikoaren gestioa. Gestio demokratikoa eta kooperatiboa izatetik urrun, garai bakoitzean gobernuan dauden agintarien eta epe motzeko erabakien esku dago eta eredu guztiz enpresarialerantz doa, merkatuaren mekanismoak eta pizgarriak errepikatuz.

10- Lehen mailako arreta da zaintza eta artatze eremuan lehentasuna. Baliabide ekonomiko handiagoak behar ditu, burokrazia gutxiago, eta erabakitze eta baliabideak modu eraginkorrean erabiltzeko gaitasun handiagoa.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiboa Elkarteak
E05 Basabe Poligonoa,
20550 ARETXABALETA
Lehendakaria Estepan Plazaola
Zuzendari nagusia Inazio Arregi

Asteburuko edizio arduraduna
Julen Iriando
Maketazioa Kepa Martelo, Imanol Soriano
Publizitate Mireia Larrañaga,
Amaia Mundifano, Ziortza Martin,
Imanol Elortza
Testuen zuzenketa Sergio Azkarate
Harpidetzea eta banaketa Marta Leturia
Administrazioa Agurtzane Gaintzarain,
Ane Berezibar, Iratxe Bengoa

EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPER
ARRASATE 20500:
Udalora Lizenziaduna 31 | 132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00

ORDEZKARITZA
ARETXABALETA 20550:
E05 Basabe Poligonoa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 09

Publizitatea Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com


Harpidetzea Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
harpidetzea@goiena.com

Legu Gordailua: SS-0088/04
ISSN: 2173-707X
Tirada: 5.000 ale
Difusioa: 4.383 ale

GOIENAK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek, adierazitako iritzien erantzukizunik.



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

TORRA+PORTELLA

Nahi baduzu, lor dezakezu

Kibuc-en orain zerbitzu azkarreko altzariak ditugu. Argazkian ikusten den sofa atsegin badezu, eta lenbaitlen etxean izatea nahiko bazendu, zatoz Kibuc-era.

KIBUC Zure bizitza errazteko aukerak

Zerbitzu azkarra



gutxieneko prezioa bermatuta



Sofa

999 €



3D proiektuak doan

KIBUC Gure Ametsa

Landeta Hiribidea 1, **Azpeitia** Tel. 943 15 16 81 gureametsa@kibuc.com

www.kibuc.com



Proiektu eta eraberritze integralak

KIBUC

altzariak eta osagarriak

Azkenean etxean

Sofaren neurria 272x160zm. Eserleku ateragarriak eta buru mugikorak. "Chaise longue"aren azpia aprobetxagarria eta 2 "pouff" barrenean dituen besoa. Ezker edo eskubialdean izan daiteke "chaise longue"-a.

UDAL ORDEZKARI IZANDAKOAK

Mikel Iturrospe | EAJko zinegotzia (2007-2011)

- ▶ Bi batzordetako burua izan zen agintaldi batean
- ▶ Lourdes Idoiaga alkatearekin egin zuen lan
- ▶ Egun, Oñatiko Uri Buru Batzarreko presidentea da

"Haur eta gazteendako proiektu hezitzaileak garatzearen aldeko apustu sendoa egin genuen"

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Mikel Iturrospe (Oñati, 1964) EAJko zinegotzia izan zen agintaldi baten: 2007tik 2011ra. Lourdes Idoiagaren Udal Gobernuan parte hartu zuen, eta bi batzordetako buru izan zen: Haur eta Gazteak eta Euskara eta Hezkuntza. Egun, Oñatiko Uri Buru Batzarreko presidentea da.

Agintaldi bakarra egin zenuen zinegotzi. Nolako oroitzenak dituzu?

Gauza onak eta txarrak izan genituen, baina, oro har, lan handia egin genuela esango nuke. Krisia orduan hasi zen eta horri aurre egiteko hainbat neurri hartu behar izan genituen; besteak beste, austeritate plana eta enpresa txikiek eta autonomoek zuten langabeziaren kontrako plana abiarazi genituen. Garai zailak izan ziren, baina lantalde ona osatzen genuen.

Oroitzen txarrik badaukazu?

Agintaldiko oroitzen txarrena ia lau urtean lankide eta lagun izan zen Patxi Hipolitoren heriotza izan zen. Elkarren artean lan handia egin genuen, eta hartu-eman estua izan genuen. Bera gaztelekuko teknikaria zen eta ni batzordeburua. Beste alde batetik, krisiak eraginda, hainbat aldaketa egin behar izan genituen aurrekontuetan. Foru Funtza eta tasengatiko udal sarre-

rak dezente murriztu ziren, eta horrek guztiorrek, austeritate plana egitera eroan gintuen.

Bi batzordetako buru izan zinen: Haur eta Gazteak eta Euskara eta Hezkuntza. Ze lan azpimarratuko zenituzke?

Euskara eta Hezkuntza batzordetako proiekturik aipagarriena Txaloka ludoteka martxan ipintzea izan zen. Aurreko agintaldiko proiektua zen, baina guri tokatu zitzaigun proiektua bukatu eta martxan ipintzea. Ludoteka egitasmo hezitzaile garrantzitsua izan zen.

Kirola euskaraz delakoa izan zen beste proiektu bat eta kiroldegiko ikastaro guztiak euskarazko komunikaziorako hizkuntza izatea zuen helburu. Gida baimena euskaraz ateratzeko proiektua ipini zuen abian Mankomunitateak eta buru-belarri hartu genuen parte.

Haur eta Gazteak batzordetik gaztelekuko egitasmoa izan zen garrantzitsuena. Han 0-7 urte bitartekoentzat sotoa ireki genuen eta 7-12 artekoendako kuboak. Bi espazio horiek gaztetxoek arteko harremanak sendotzeko eta neguan aterpe bat izateko zabaldu genituen. Bestalde, ekintza programa osoa ipini genuen martxan kuboan. 12-18 artekoendako, topaleku nagusirako, egitasmo hezitzaile sendoa ipini genuen martxan; besteak beste, informatika gela, tailer gunea, saio didaktikoak, irteera ludiko-hezitzaileak eta disko festa.

Lan-mahai tekniko bat ere sortu zenuen. Bost batzordek egin zenuen lan batera.

Bai, hala da. Haur eta Gazte, Euskara eta Hezkuntza, Gizarte Zerbitzu eta Kultura batzordeak, guraso eta ikastetxeetako ordezkariekin harremanetan, hezkuntza proiektu hezitzaileak garatzearen alde. Gure asmoetako bat zen 0-18 urte arteko haur eta gazteei zuzendutako proiektu hezitzaileak garatzea.

Badaukazu arantzaren bat?

Haur eta Gazteak batzordetik tailer gunea bat sortzeko lan egin genuen: gaztelekuko sotoan tailerrak egiteko gunea egokitu genuen, kristalezko itxitura batzuekin. Gure asmoa zen urte osorako egutegia zehaztu eta gunea hartan tailerrak antolatzea, baina tailer zerrendarekin lanean geundela, agintaldia bukatu zen.

Nolako hartu-eman izan zenuen gainerako alderkietako ordezkariekin?

Blanca Roncal izan zen PSE-EEren lehen ordezkaria. Hasieran ezberdintasunak egon arren, guk egindako proposamen batzuetan ados egon ginen. Agintaldi bukaerarako, baina, egoera okertu egin zen. PPrende ordezkariak ezer gutxi esan dezaket. Hasieratik tira-birak izan genituen: hark zuri eta guk beltz. Oñati Ezkerretik koalizioko kideekin ondo moldatu ginela esango nuke.

Lau urte Gobernuan egon zinen, eta orain oposizioa zaudete. Nola ikusten dira gauzak alde horretatik?

Herriari begira, Gobernuan geunden moduan jarraitzen dugu: lanean. Egun, Bilduk dauka Udal Gobernu, eta erabakiak hartzeko orduan, desadostasunak ditugu.

"Krisia hasi zenean austeritate plana ipini genuen martxan"

"Txaloka ludoteka abiarazi genuen; proiektu hezitzaile garrantzitsua zen"

"Oro har, gainerako alderdiekin hartu-eman ona izan genuen"

"Oposizioan egonda ere, herriarendako lanean jarraituko dugu"



Mikel Iturrospe, Oñatiko Uri Buru Batzarreko presidentea. | MIREIA BIKUÑA

HERRIAK



Perretxiko erakusketak ikusmin handia sortzen du urtero. | GOIENA

ELGETA

Eguenetik domekara perretxiko zaporea izango du Elgetak

- ▶ Urriaren 18an hasiko dira Elgetako lehenengo jardunaldi mikologikoak
- ▶ Aste honetan hitzaldia, irteera, erakusketa eta pintxoak izango dira

ANDER MONEDERO | ELGETA

Urriaren 18tik 21era bitartean jardunaldi mikologikoak egingo dituzte Elgetan. Bertan, herritarrek denboraldiko perretxikoak batu, ezagutu eta dastatzeko aukera izango dute. Ekimen hau Udaleko turismo batzordeak herria ezagutzera emateko asmoarekin antolatu du.

Elgetako jardunaldi mikologikoen lehenengo edizioa Joxe Mari Larrañaga mikologo bergararraren hitzaldiarekin hasiko dute. Larrañagak, Espaloia kafe antzokian, *Gure basoetako perretxikoak* izeneko hitzaldia egingo

du eta, bertan, Elgeta eta inguruko herrietan aurkitu daitezkeen perretxiko moten gaineko azalpenak emango ditu; eztabaidatzeko aukera ere izango da.

Egubakoitzetik domekara bitartean, Elgetako Bolatokia, Espaloia, Iñaki, Haizea eta Maialde tabernetan 2 euroren truke garagardoa edo ardoa eta perretxikoekin egindako pintxoak dastatzeko aukera izango da. Udalak proposamena egin zien herriko tabernei eta hauek bat egin dute ekimenarekin.

Domeka goizean, berriz, gazteen artean perretxiko zaletasu-

na bultzatzeko irteera egingo dute inguruko baso eta zelaietara. Zaletasuna bakarrik ez, gazteek perretxiko jangarriak eta pozoitsuak desberdintzen ikasteko helburua ere badu eta, horretarako, egunean bildutakoekin erakusketa egingo dute plazan.

Baina egun bakar batean perretxiko sailkapen egokia eta erakusketa erakargarria egitea zaila denez, aste osoan zehar herritarrek jasotako perretxikoak udaletxean uzteko deialdia egin du Udalak. Horrela, domeka goiza arte jasotako perretxikoak sailka-

tzeko aukera izango dute herriko perretxiko adituek.

Urriaren 28an, Elgeta kantuan Urriko kultura egitarauari amaiera emateko, urriaren 28an, Elgeta kantuan ekitaldia egingo dute. Bertan, Gardoki soinu-joleak abesti eta dantza herrikoiak joko ditu eta helburua da, antzinako ohiturei jarraituz, herritarrek plazara kantatzera irtetea. Gainera, egun horretan, Debagoieneko eta Debabarreneko odol emaileen intsignia eta diploma banaketa egingo dute eta hauek ere kantuan jartzea espero dute ekimenaren antolatzaileek.



GOIENA

PATXI BASAURI TURISMOBATZORDEBURUA

"Era guztietako publikoa erakartzeko egitaraua antolatu dugu"

Elgetan udazkenean giroa egoteko eta inguruko herrietako jendea erakartzeko 'Udazken koloreak' izeneko ekimena antolatu dute.

Herrian giroa sortzeko, ekitaldiz bete duzue.

Bai, hemendik eta urte bukarrarako 30 bat ekintza antolatu ditugu. Herriko jendea bertan geratzea eta inguruetakoa gerturatzea da gure helburua.

Urriaren lau ekintza nagusi antolatu dituzue?

Urriaren 7an faxistak Intxortan geratu zirela gogoratzeko ekitaldia egin genuen; lubakiak ikusteko bisita gidatuekin jarraitzen dugu; aste honetarako jardunaldi mikologikoak antolatu ditugu; eta urriaren 28an Elgeta Kantuan eta Debagoieneko eta Debabarreneko odol emaileen intsignia eta diploma banaketa izango dira.

Hilabete honetako berritasun handiena aste mikologikoa da.

Beste urte batzuetan ere irteera eta erakusketa egin ditugu eta ekimenak erantzun ona izan duenez aurten errepikatzea erabaki dugu. Perretxiko zaletasun handia dago eta era guztietako publikoa erakartzeko egitaraua antolatu dugu.

Joxe Mari Larrañagak perretxikoei buruz hitz egingo du.

Inguruan jaso daitezkeen perretxikoei buruz arituko da. Hitzaldian, Larrañagak, duen ezagutza zabalduko du.

Tabernetan ere perretxikoak.

Herriko tabernekin perretxikoekin egindako pintxoak izango dituzte, jardunaldiak zapora ona izateko.

"Perretxikotarako zaletasun handia dago Elgetan"

Perretxikoez gehiago jakiteko, hitzaldia

Joxe Mari Larrañaga perretxiko zale bergararrak *Gure basoetako perretxikoak* izeneko hitzaldia egingo du eguenean, hilak 18, Elgetako Espaloia kafe antzokian. Adin eta era guztietako jendeari zuzendutako hitzaldia izango da eta, bertan, mikologia zer den, perretxikoak nola hartu behar diren eta Elgeta eta inguruetako basoetan irteten diren perretxikoak nola ezagutu eta bereizi azalduko du Larrañagak.

Egueneko hitzaldia irekia eta parte hartzailea izango dela jakinarazi du Larrañagak; izan ere, bergarako mikologoarentzat, nahiz eta oinarritzko gauzek denentzat balio, perretxikoen arloan jasotzeko era asko daude eta horiek ezagutaraztea da aste mikologikoen xedea.

Zaletasuna bultzatzeko irteera

Elgetako eta inguruetako herrietako ume eta gazteak perretxiko zaletasunera hurbiltzeko asmoarekin, Elgetako Udalak perretxikoak batzeko irteera antolatu du urriaren 21erako. Irteera goizeko 10:00tan herriko plazatik egingo dute. Etxeko txikienekin, herri inguruko baso eta zelaietan ibiliko dira perretxikoak batzen eta eguerdi aldera plazara itzuliko dira.

Ume eta gazteek jasotako perretxikoekin erakusketa egingo dute herriko plazan. Horrela, jasotako perretxiko moten artean jangarriak direnak eta ez direnak ezagutuko dituzte. Norbaitek astean zehar erakusketarako perretxikoak utzi nahi baditu, udaletxean laga ditzake eta bertan sailkatuko dituzte domeka eguerdiko erakusketarako.

BERGARA

Abelburu erakustaldia eta erromeria giroa Elosun barikuan

la berrehun bat abelburu eroan zituzten ganaduzaleek erakusketara, eguraldi onegia izan ez arren

JON BEREZIBAR | BERGARA

Behi, asto, zezen, poni eta ahari erakusketa egon zen barikuan Elosun, feria ezagunean; guztira

ia 200 bat buru. Giro umelak lagundu ez arren erromerian eta produktu eta artisautza azokan jende nahikoa ibili da aurten ere.

Erromeria jendetsuak eta zaldi probak osatu zuten inguruetako ganaduzaleen elkargune den feria. Ganadu erakusketa egin den 34.

urtea izan da; tradizioa badu, hortaz, abeltzainen topalekuak; baina historian erro sakonagoak dituen ekimen berezi batek ere

garrantzia izan zuen barikuko zitan.

Elosu Nafarroa zenekoa

Nafarren zuztarren bila eta Nabarralde gidatuta, zantzarren laguntzarekin, Elosuko hilerriaren ostean dagoen Iriaun nafar gazteluaren aztarnetara txangoa egin zuten. XIII. mendean bertan bizi zen nafar batek jaso ei zuen gotorlekua eta testigantza frogaren azarnetara egin zuten ibilaldia hogeitabat lagunek, feria eguna aprobetxatuz.



Zantzarrek, Iriaungo gazteluko aztarnetara abiatzen. | J.B.




Ganadu erakusketa, eliza alboko zelaian. | J.B.



MODESTO
NABARRALDE, AZKOITIA

"Azkoitia eta Bergarako kideek osatutako talde batekin Nafarroako gaztelu izandakoaren aztarnetara joango gara. Jendeak hori ezagutzea nahi dugu eta omenaldi txikitxo bat egingo dugu han goian".



MIKEL
ABELTZAINA, ELOSUA

"Urtero samarrekoak etorri dira, uste baino gehiago. Ganadu aldetik, jende asko dabil galdetzen. Nik zezen eta behi artean 90 bat buru ekarri ditut eta badabil jendea galdezka, eta estimatzen da".



OLASO
AZKOITIA

"Aurten maxiatzera etorri naiz baina beste urteetan ganadurekin etorri izan naiz Elosura. Aspaldiko jende gutxien dabil aurten, hori iruditu zait, baina ganadua egon badago. Buru politik daude aurten, maila ona".



Zaldi probak, egubakoitz arratsaldean. | JULIO CALLEJA

ELGETA

Herriko baserrien argazki erakusketa dago ikusgai Espaloia kafe antzokian

J.B. | ELGETA

Ondarea ezagutarazteko erakusketa dago Espaloian. Elgetako bertako bederatzitaurozko baserrien argazki erakusketa dago ikusgai Espaloian eta gaur izango da azken eguna. Erakusketa betiko herritarrek eta bizilagun berriek egungo ingurune bat berreskuratzeko helburuarekin egin da. Argazkietako baserri gehienak oraindik ere zutik daude baina Aixola eta Izuziaga auzoetan asko daude galzorian. Auzo horietako baserrien argaz-


kiak falta dira. Ekimen honekin, oraindik mantentzen diren baserriak ezagutzeko aukera eman gura diete herritar eta bisitariei antolatzaileek. Erakusketa ikusteko azkeneko aukera gaur da, urriak 15. Espaloia kafe antzokiko sarrerako gunean aurki daitezke argazkiak.

Argazkiak eskuragarri

Argazkiak ikusteaz gain, kopia ere eskuratu daitezke. Gura dutenek kopia eskatu ahal dute 653 724 028 telefonora deituta.



Bisitariak. argazki erakusketan. | JULIO CALLEJA



Mendrakorta baserriaren argazkia. | JULIO CALLEJA

ONATI

Sierra Maestra elkarteko kideek jai latindarra ospatu zuten egubakoitzean

Euriaren eraginez elkarteko kideek ezin izan zuten Latinoamerikako dantza erakustaldia egin

ANDER MONEDERO | OÑATI

Nahiz eta eguraldiak ez lagundu, umore onarekin eta jai giroan ospatu zuten Sierra Maestrako kideek Latinoamerikako jaiak. Jaiari hasiera Oñatiko plazan eman zioten umeentzako bi ekitaldirekin: Joan Di Mazeo pailazoaren ikuskizunarekin eta marrazki lehiaketarekin.

Haurrentzat jolasak eta nagusientzako Latinoamerikako gastronomia erakustaldia egin zituz-

ten. Bertan, Amerikako pintxoak, *empanadillak* eta bestelako produktuak eskaini zituzten. Gero, bazkaria egin zuten berdura plazan eta gauean jai latindarra egin zuten Iturri tabernan.

Urriaren 19an, Madrilera

Hilaren 19an eta 20an, Europan bizi diren kubatarren VII. topaketa egingo dute Madrilera eta autobusa jarriko dute Oñatitik hara joateko.



Jai latindarraren bazkarian, Amerikako errezetez osatutako menua dastatu zuten. | ANDER MONEDERO



Bisitariak Arantzazu inguruko zelai batean. | MIREN ELGARRESTA

ONATI

Atzo egin zuten denboraldiko azken bisita gidatua Aizkorri-Aratz parkean

A.M. | OÑATI

Gipuzkoako Parketxe sareak eta Arantzazuko Lagunek antolatuta, atzo goizean egin zuten Aizkorri-Aratz parke naturalari bisita. Guztira, 27 pertsonen egin zuten *Ezkutuko bidea* izeneko ibilbidea.

Arantzazuko aparkalekutik abiatu ziren Iturrigorri basora eta hortik Arrionako eta Belloztzako sarrietara joan ziren.

Ibilbidea bukatzeko, Arantzazuko arroilara joan ziren eta ibilbidea hasitako leku berdinan bukatu zuten. Ibilbidearen 7 kilometroak egiteko lau ordu inguru behar izan zituzten.

Denboraldiko azkena

Honekin Gipuzkoako Parketxe sareak eta Arantzazuko lagunek bukatutzat eman dituzte aurten go bisita gidatuak.



BERGARA

JULIO CALLEJA

Uliazpi zentroaren erakusketa

Uliazpi zentroaren inguruko erakusketa egin dute Bergarako udaletxeko pleno aretoan. Izan ere, adimen urritasun handia duten pertsonen eta bere familien beharrei entzuteko erakundeak 10 urte bete ditu Bergaran. Horrekin batera, Gipuzkoako Foru Aldundiak sortutako erakundeko kideek, urtemuga gogoratzeko, bideo bat ere egin dute.

EUSKADI AURRERA

urkullu.eu **eaj** pnv

PROGRAMA

Hilza ematen dute.

Asfaltatze beharrak zehaztu ditu Udalak

Lau dira lehentasuneko puntuak herrian; 115.000 euroko aurrekontu erreserba dago lan horiek egiteko

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Udalak aurkeztu du 2012 urteko asfaltatze beharren diagnostikoa. Herri barruan asfaltatzeko beharra duten guneak zehaztu dituzte, honako irizpideak aintzat hartuz: erabileraren intentsitatea, asfalto geruzaren egoera, egitura-akatsak egotea eta hirigintza proiektu edo plan bat gauzatzaren aritzea. Udalak jakinarazi duenez, kontuan hartu dira herri-errek bide ezberdinak erabiliz mantentze zerbitzura helarazi dituzten eskaerak.



Erlojuaren eraikinaren aurrealdea da lehentasun nagusia. | JOKIN BEREZIARTUA

Zerbitzu teknikoek aholkuak

Lau gune lehenetsi ditu Udalak eta horretarako 115.000 euroko aurrekontu erreserba dagoela jakinarazi du. Lehen gunea da erlojuaren eraikinaren aurrealdea; eremu horrek erabileraren intentsiboa du, are gehiago San Isidro zubia itxita dagoenetik. Beraz,

zirkulazioan nahasmena ekiditeko, zubia ireki ostean egingo dira lanak. Udalaren arabera, denbora laburrean egin daiteke.

Bigarren puntua da Oltametrik-Zalduspe-Osinagako zubiraino doana. Udaleko zerbitzu teknikoek aholkatu dute lanok orain edo datorren urteko lehen ekinaldian

egitea. Hirugarrenak, berriz, Gari-baiko bus geltokia hobetzea du helburu; lan konplexua da, besteak beste, arekak-kanalak-egin behar direlako. Azkenik, lehentasuneko da ere ospitale aurrealdea asfaltatzea. Hala ere, bertarako hirigintza plana aprobetxatzea aurreikusten du Udalak.

Hitzaldiak eta beste Pobrezia Zero taldearen eskutik

J.B. | ARRASATE

Urriaren 17an Pobreziaren aurkako Eguna ospatuko da nazioartean. Hori horrela, egun bereziarekin bat egin du Arrasateko Pobrezia Zero plataformak eta horregatik hainbat ekitaldi antolatu ditu oraingo asterako.

Bihar izango da lehen ekitaldia. Hitzaldi interesgarria emanango du Iker Apilanez etxe-kalera-teeen aurkako Gipuzkoako pla-

taformako kideak. Honakoa da hitzaldiaren izenburua: *Que puedo hacer si no puedo pagar mi hipoteca?*. Pil-pilean dagoen gaia da, beraz. Kulturaten izango da, 19:00etan.

Egubakoitzean ere beste hitzaldi bat izango da Kulturaten, 18:30etik aurrera. Toni Lodeiro adituak Consumir menos para vivir mejor izenburua duen hitzaldia eskainiko du.

Sinadura bilketa ere bai

Aipatu ditugun bi hitzaldietan sinadurak biltzen ere arituko dira Pobrezia Zero plataformako kideak. Lege proposamena abiatu gura dute, herri ekimenean oinarrituko dena. Sinadura horien bidez, etxe-kalera-teeak geldiarazi nahi dituzte eta baita gizarte-alokairua bultzatu ere. Eguazten eta eguenean ere Herriko plazan eta Portaloian ere egongo dira.

Amaia Albes | Diseinatzailera

"Lan handia da eta halako sariak indarra ematen dute jarraitzeko"

Cut Off moda lehiaketa irabazi du arrasatearrak; aste bukaeran San Telmo museoan erakutsiko du

J.B. | ARRASATE

Ondo egindako eta ilusioz jositako lanak emaitzak ematen dituela erakutsi du beste behin Amaia Albesek (Arrasate, 1989). Donostiako Cut Off moda lehiaketan lehen saria jaso berri du eta aste bukaera honetan bertan haren kolekzioa ikusteko aukera egongo da Donostia bertan, San Telmo museoan.

Hasteko, kontaguztu zer den Cut Off lehiaketa.

Kustomizazio lehiaketa bat da, arropa zaharra hartu eta berri-tzean datza. Edozer egin daiteke, irudimena erabiliz: moztu, tindatu, liziba erabili, tatxuelak jarri... Aurten lehenengoz antolatu dute eta nire burua aurkeztea erabaki nuen.

Lehenengoa eta irabazi. Pozik?

Oso pozik, sorpresa izan da. Halako sariak asko motibatzen naute, nire lanak fruituak ematen dituela erakusten didate. Indarra ematen du jarraitzeko; lan handia egiten ari naiz eta eskertzen da halako sari bat jasotzea.

Nola joan zen sariketa?

Selekzio bat egin zuten eta aukeratuak izan ginenok desfilea egin genuen Donostian. Hori irail erdialdean izan zen; desfilea baina bi egun lehenago deitu ninduten aukeratuak izan nintzela jakinarazteko.



Amaia Albes. | JOSE FELIX DIAZ DE TUESTA

Zer prestatu zenuen, bada, lehiaketan erakusteko?

Publizitatezko kamiseta bat eta elastiko bat hartu nituen. Zultatzen eta moztzen hasi nintzen, eta ikusi nuen beharrezkoa zuela osagai bat. Hala, nire aitak ehizarako erabiltzen zuen txaleko bat hartu eta poltsa bat egitea erabaki nuen.

Zein plan duzu epe motzerako?

Aste bukaera honetan bertan *showroom* bat daukat Donostiako San Telmo museoan. Nire bildumako arropa batzuk eta orain arte egindako beste osagai batzuk erakusteko eta salgai jartzeko aukera izango dut. Horren ostean beste hitzordu bat ere izango dut seguruenik eta beraz, ez daukat geldid egoteko asmorik.

Zerkaosteta kalea autoendako itxita egongo da hilaren 29ra arte, zoladura konpontzeko lanak direla-eta

Gaur hasi eta urriaren 29ra arte Zerkaostetatik ezingo da auto-rik pasatu, zoladura konpontzeko lanak direla-eta. Iturriotz 7-bis helbidean garajea dutenak Maalako Errabaletik sartu ahalko dira; identifikazio txartelak banatuko zaizkie bizilagunei. Gara-jetik errepidera joateko, aldiz, Zerkaostetatik, Portaloitik, Erdiko kaletik, Olartetik eta Arbolapetatik pasatu beharko dute.

Urriaren 17ra arte eros daitezke Nafarroa Oinezera joateko autobuserako txartelak, AEDn

Domeka honetan, hilak 21, ospatuko da Nafarroako Ikastolen jaia, Nafarroa Oinez. Zizur Txikin izango da aurten, Kolore & Hitz lelopean. Oraindik ere salgai daude bertara joateko autobus txartelak. AEDren Pablo Uranga kaleko egoitzan eros daitezke txartelak: bazkideek 13 euro ordaindu beharko dute eta gainerakoek, berriz, 15 euro. Txartelak erosteko azken eguna etzi izango da, hilak 17.

Musakolako kiroldegian zenbait obra martxan jartzea eztabaidatuko dute gaur Tokiko batzarrean

Tokiko Gobernu batzarrean hainbat gai jorratuko dituzte gaur ere. Musakolako kiroldegian zenbait lan egitea izango dute hizpide, besteak beste: Freyssinet enpresari barruko igerilekuan podiumak jartzeko eskaera eztabaidatuko dute eta horrez gain, saunaren konponketa lanak nori esleitu ere erabakiko dute. Era berean, Musakolako eta Iturripeko kirol guneetan gas detektatzaileak ordezkatzeko proposamena ere aztertuko dute.

Pintxo-potearen ostean, Erdiko kalea oso zikin

Erdiguneko bizilagun batek bidali digu ondoko argazkia. Batek baino gehiagok pentsatuko du Maritxu Kajoi egunaren biharamuneko dela argazkia, baina ez da hala. Ohiko eguen baten ateratakoa da, pintxo potearen ostean. Ikusten denez, tabernariak zikinkeria izkina baten utzi eta ezezagun batzuk zaborrekin aritu ziren jolasean. Hiri hondakinen kudeaketa arazo handia den garaiotan, ondoko irudia atzerapausoa dela dio bizilagunak.





Erabiltzaileek kiroldegiaren gaineko beraien iritzia eman dezakete. | JOKIN BEREZIARTUA

Kiroldegiari nota jarri eta iradokizunetarako aukera

Erabiltzaileek, inkesta anonimoa bete ahalko dute hilaren 28ra arte

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

Arrasateko Kiroldegia erabiltzaileen iritzia jakin guran dabil, eta aurreko urteetan bezala, inkesta bat prestatu dute horretarako. Hala, urriaren 28ra bitartean bete ahal izango dute aipaturiko galdetegia, modu anonimoan, gainera. Kiroldegitik adierazi dutenez, garrantzitsua da beraienzat jendeak kolaboratzea, etorkizuneko zerbitzua hobetzeko jarraibideak izaten baitira jasotako erantzunak.

Iazko iradokizunak, errealitate

Iazko inkestari 284 lagunek erantzun zioten; besteen artean, kudeaketa eta instalazioekin lotutako gaiei nota ipini behar izan zieten erabiltzaileek. Amaia Zabaleta Kirol teknikariak adierazi digunez, jasotako emaitzak benetan

baliagarriak zaizkie: "Azken finean, jasotako kritika eta iradokizunei esker, etorkizuneko erronkak finkatu genizkien gure buruei eta horietariko batzuk dagoeneko landu eta betetzea lortu dugu".

Esate baterako, galdetegiaren bidez, "erabiltzaileek kiroldegia domeka arratsaldetan ere irekita egotea" gura zutela ikusi zuten; martxan da dagoeneko ordutegi berria. Beste lorpenetariko bat, fitness eremua hobetu dutela dago eta "areto berria ireki" dute la adierazi du Zabaletak.

"Iazko eskaeratariko batzuk bete diren ala ez jakiteko, baina, egiten ari garen inkesten emaitzak ezagutu arte itxaron beharko dugu". Izan ere, "jendearen arreta edota mantenimendu zerbitzua hobetu beharra zegoela adierazi

zuten iazko datuek, besteen artean". Hobera egiteko neurri batzuk hartu dituzten arren, "ikusiko da inkestek zer dioten".

Bestalde, kirol teknikariak adierazi duenez, erabiltzaileei bai, baina langileen artean ere egiten dituzte gisa honetako inkestak, "oso modu ezberdinean ikusten baitira gauzak, eta dena da hobetzeko lagungarria".

Dirua, oztopo nagusia

Kritika eta iradokizunetara irekita egon arren, gogoratu dute gaur egun zenbait proiektu gauzatzea ezinezkoa dela, "dirua oztopo handia delako". "Bazkide kuotarekin bakarrik ez da dena ordaintzen" adierazi du Zabaletak eta duten diruaren arabera, lehen-tasunak finkatzen dituztela gaineratu du.

Punk-folk melodiez beteko da gaztetxea Kooltur Ostegunean

Bastards on Parade talde galziarra 2007an sortu zen eta nazioartean erreferentea da

Z.V.D.M. | ARRASATE

Eguzen honetan Galziako talde batek bisitatuko du gaztetxea, Kooltur Ostegunen harira. Bastards on Parade taldeko kideak igoko dira taula gainera folk eta punk doinuak bertaratzen direnekin konpartitzeko.

Nazioarteko sona

Gitarra akustikoa, elektrikoa, baxua, mandolina, gaita eta flauta jotzen dituzte, David, Ruper, Davizón, Chipo, Aspy eta Dopik. Coruñan sortu zuten taldea 2007an eta ordutik zenbait lan kaleratu dituzte: *Pipes & Drunx* (2008), *Death Shore Pirates* (2010) eta *Tales from the Death Shore* (2011).

Talde gaztea da Bastards on Parade, baina dagoeneko beraien izena nazioartean ere ezagun izatea lortu dute. European zehar bira egin zuten 2010ean eta Euskal Herria, Frantzia, Alemania, Suitza edota Erresuma Batua bisitatu zituzten orduan. Baina galziarren musika urrutia ere iritsi da, eta Japonen,



Bastards on Parade. | BASTARDS ON PARADE

esaterako, saldu dituzte beraien lanak. Gainera, Cock Sparrer edota The Mahones taldeen omenezko diskoetan ere parte hartu dute. Zelta doinuak ekarriko ditu, beraz, eguzen Arrasateko Gaztetxera, batzutan seikote bestetan zazpikote den talde galziarrak.

Kiliki eta buruhandiak, aurtengo zarzuelan

'Gigantes y Cabezudos' lana taularatuko du azaroan Izaskun Murgia Elkarte Lirikoak

Z.V.D.M. | ARRASATE

Azaroaren 17, 18 eta 24an 19:30ean eskainiko du Izaskun Murgia Elkarte Lirikoak *Gigantes y Cabezudos* zarzuela; azaroaren 23an, berriz, 20:00etan izango da hitzordua.

Manuel Fernandez Caballero maisuaren lana hautatu dute aurtengo emanaldia prestatzeko; letrak berriz, Miguel Echeagaray y Eizaguirrerrenak dira. Orain arteko ikuskizunekin

arrakasta eduki dute zarzuelako kideek, eta horren erakusgarri da, urtero bertaratu den jende kopuru handia.

Lau egunetan arituko dira elkarte lirikoko lagunak eta sarrerak azaroaren hasieran ipiniko dituzte salgai. Dena den, Arrasate Musikaleko bazkideek urriaren 29, 30 eta 31n erosi ahal izango dituzte 16:00etatik 19:00ra, Arrasate Musikalaren bertan.

'Carmen' opera aurkeztu dute

Hilaren 23an *Carmen* opera eskainiko dute Amaia Antzokian eta eguaztenez Kulturaren aurrerapen txiki bat egin zuten. Bertan, Eduardo Arzamendi pianoan lagun, Micaela aria eta Carmenen Habanera interpretatu zituen Cristina Cubillok, etorriko denaren erakusgarri.



Z.V.D.M.

OHARRAK

1959AN JAIOTAKOEI DEIA

Azaroaren 24an ospatuko dute 1959an jaiotakoek beraien eguna. Aldape jatetxean bazkaria egingo dute. Azaroaren 17a baino lehen 55 euro sartu behar dira Euskadiko Kutzaren kontu honetan: 3035 0202 70 2020039448.

1960AN JAIOTAKOEI DEIA

1960an jaiotakoak Bilbora irteera egingo dute azaroaren 10ean;

11:00etan irtengo dira Garibaitik. 60 euro ordaindu beharko dira Euskadiko Kutzako kontu honetan: 3035 0001 55 0010124037.

1963AN JAIOTAKOEI DEIA

Errioxara joango dira azaroaren 10ean 1953an jaiotakoak eta 08:30ean irtengo dira Garibaitik. Bertara joan gura izanez gero 60 euro sartu lehenbailehen Euskadiko Kutzaren kontu honetan: 3035 0047 110471082112.

Euskara Plana berritzeko herritarrekin bilera irekiak

- ▶ Lehenengo urriaren 23an izango da Irizar jauregiko batzar-aretoa
- ▶ Euskararen erabilerak behera egin du azken urteetan, batez ere gazteetan

ARRITXU BARRUSO | BERGARA

Bergarako Udaleko Euskara batzordeak 2012-2015 urteetarako Euskara Biziberritzeko Plana berritzeari ekingo dio datozen asteetan. Plan horrek bete behar du dituen helburu eta ekintzen diseinuan Bergarako herritarren zein bestelako eragileen parte hartzea funtsezkoa dela uste du Euskara batzordeak. Hain justu ere horregatik parte hartzeko deialdi zabala luzatu nahi die bergarar guztiei.

Urriaren 23an lehen bilera

Bi bilera ireki egingo dira; lehenengo bileran hiru urte horietarako lehentasunezko helburuak eta ekintzak finkatzea da helburua eta bigarren deialdian aukeraturako ekintzok gauzatzeko modua aztertuko da.

Lehenengo bilera urriaren 23an, martitzena, egingo da Irizar jauregiko batzar-aretoa, arratsaldeko 18:30ean. Egungo egoeraren azterketa ere egingo da bertan.

Erabilerak behera

Eta zein da Bergaran euskararen egoera eta errealitatea? Udaleko Euskara zerbitzuak egindako azken txostenak hainbat datu deigarri igorri ditu.

Euskararen erabilera 1986az geroztik igotzen ari zen, baina azken 2-3 urteetan jaitsiera txikia izan du. Sexuari begiratuz gero, umeetan eta bereziki gazteetan neskek askoz gehiago erabiltzen dute; eskolaz kanpoko mundua, neskena ere euskaldunagoa da. Adinari begiratuta berriz erabilerari dagokionean umeetan mantendu egin da azken 20 urteetan; gazteetan igoera handia izan zen urte batzuetan, baina azken urteetan jaitsi egin da; amaitzeko, helduetan 2000. urtera arte beherantz zihoa erabilera, baina harrezkeror goranzko joera hartu du.

Datuok eta beste batzuk kontuan izanda Euskara Batzordeak badaki indarra non ipini behar den datozen urteetan. "Argi daukagu etorkizunera begira gazteen ipini behar ditugula gure indar

guztiak. Gazteendako euskarazko espazioak sortzea ezinbestekoa da. Kontuan izan behar da gaur egun gazteen elikabide gehienak –hedabideak, teknologia berriak, eskolaz kanpoko ekintzak, kirola...– erdaraz direla", adierazi du Udaleko Euskara Zerbitzuko Estepan Plazaolak.

Kirola mundu euskalduntzen

Zentzu horretan uste dute eskolaz kanpoko ekintzetan eta bereziki kirol munduan lan asko dagoela egiteko, kultura ekintzak eta kultura esparrua euskaldunago den moduan, kirolarena erdaldunagoa delako. Horregatik eragile guztien elkarlana ezinbestekotzat jotzen dute. "Argi dago norberarengandik hasten dela lana eta euskarak aurrera egingo duela norberak erabiltzen duen heinean, baina zenbait eragilek edo erakundek, eta hor sartzen da kirol mundua, pisu handia daukatela.

Bigarren bilera azaroaren hasiera aldera egingo dute.

ESTEPAN PLAZAOLA
EUSKARA ZERBITZUA

"Ona da lau urtean behin gelditu eta gogoeta egitea"

Estepan Plazaola Udaleko Euskara Zerbitzuko arduraduna da.



ESTEPAN PLAZAOLA

Euskara Plana berrituko duzue, baina herritarrekin batera egin nahi duzte hori.

Bai. Uste dugu ona dela lau urtean behin gelditu, egoera zein den aztertu eta herritarrekin eta zenbait eragilerekin elkarlanean gogoeta egitea, baina ez dadila gogoeta hutsean gelditu. Hau da, hurrengo lau urteetan ere elkarlan hori garatzea da helburua.

Bi bilera deitu dituzue horretarako. Zein izango da dinamika?

Urriaren 23an egingo den bilerara Euskara Zerbitzuak egindako azken azterketaren datuak eramango ditugu. Horik abiatuta egoera aztertu eta etorkizuneko helburuak eta ekintzak zehaztuko dira. Bigarren bileran ekintza horiek gauzatzeko moduak zehaztea da asmoa.

Erabileraren gaineko datuak

ERABILERAK BEHERA

1986az geroztik igotzen ari zen baina azken 2-3 urteetan jaitsiera txikia izan du.

NESKAK GEHIAGO

Umeetan eta bereziki gazteetan sexuen arteko aldea handia da: neskek askoz gehiago erabiltzen dute euskara. Eskolaz kanpoko jardueri dagokienean ere neskenak euskaldunagoak dira

AMA-HIZKUNTZA MODUAN BEHERA

Lehen-hizkuntza euskara dutenen portzentaje handienak zaharretan daude. Zaharrak hil ahala populazio osoan lehen-hizkuntza euskara dutenak murrizten ari dira.

FAKTORE

GARRANTZITSUAK

Euskaraz errazago egiten laguntzen duten faktoreak dira: familia transmisioa (%25), eskola (%15), eskolaz kanpoko jarduerak (%25), ikus-entzun-irakurtzeko kontsumoa (%25) eta lagunak (%10).

Iñaki Aspiazuk Egurtek azokan saria irabazi du UNEDeko ganbararekin

Bertako egurra erabili izana eta haren jasagarritasuna izan dira besteak beste kontuan

A.B. | BERGARA

Pasa den astean izen handiko arkitektoak batu ziren BEC-en Egurtek izeneko azokaren bueltan. Eraikuntzan bertako egurraren eta egur jasagarriaren erabilera sustatzea da azokaren helburua. Bada, helburu horiekin bat egin zuten 43 proiektu ezagutu ahal izan ziren azokan eta horietako batzuk sarituak izan dira. Iñaki Aspiazuk arkitekto bergararrak hiru sari jaso ditu.

Eraikuntzak eta altzariak

Aspiazuren proiektuak hainbat kategoriatan izan dira sarituak. *Basque Quality* izeneko kategorian, esaterako, eraikuntzaren modalitatean, bergararrak Tolosako Laskorain Ikastolan egindako lana saritu zuten eta hiri-altzarien kategorian berriz, Ziekoko ibilbide paisajistikoa. Azken proiektu horrek Egurrezko Arkitektura kategorian ere, hiri-altzarien modalitatean, beste sari bat eskuratu zuen.

Seminarioko ganbarak saria

Laugarren sari bat ere jaso du Iñaki Aspiazuk Egurtek azokan, Errege Seminarioan 2010ean egindako lanarengatik; hau ere Egurrezko Arkitektura kategorian. Errege Seminarioko eraikinaren sabaiaren azpiko solairua eraberritu zuen eta horrekin batera baita eraikin osoaren irisgarritasuna hobetu ere.

Arkitekto bergararrak emandako informazioaren arabera eraberritze proiektuan ganbararen jatorrizko materialak, estuktura eta formak errespetatu dira.

Bergarako Goitu enpresarekin batera egindako proiektua izan zen. Goituk Egoien enpresarekin batera bertako Radiata pinuaren erabileraren aldeko apustu garbia egin du, lehenengo sektoreari bultzada bat emateko eta tokiko egurra sustatzeko. Errege Seminarioko ganbaran EGO-CLT izeneko materialaz eraikitako ormak erabili dira.



Errege Seminarioko ganbara, eraberritu aurretik. | ESTUDIO IAI



Ganbara, gaur egun. | ESTUDIO IAI



Bertako egurra erabili dute. | ESTUDIO IAI



Jatorrizko materialak eta formak errespetatu dituzte. | IAI



Carlos de Cos Azkona soroluzetarraren *iRedios!* lanak jaso du lehen saria zuri-beltzeko sailkapenean. | CARLOS DE COS AZKONA

Jorge Murgiondok jaso du kirol argazkien saria, koloretakoan

Zuri-beltzekoa, berriz, Carlos de Cos Azkona soroluzetarrak jaso du

MONIKA BELASTEGI | BERGARA

Dagoeneko erabaki dituzte Bergarako Udaleko Kirol Zerbitzuak Arizondo Argazkizale Elkartearen laguntzarekin antolatutako 22. Kirol Argazkien Lehiaketako

emaitzak, eta sari-ematea urriaren 19an egingo dute, 20:00etan, Aroztegi aretoan.

Koloretako sailkapenean, Bergaran geratu dira lehenengo bi sariak. Hain justu ere, Jorge

Murgiondok jaso du lehen saria, *Belodromoan* lanarekin eta bigarrena, Jose Agustin Gurrutzagako erroan du, *Orain bai* izeneko argazkiarekin. Hirugarren saria Legorretako Xabier Matak jaso du

Gaur irekiko du San Joxepepe kultur hamabostaldia

Askotariko ekitaldien artean, bihar hitzaldia egingo du Jesus Mari Ugaldek, Jakiundeko lehendakariak

M.B. | BERGARA

Urriaren gaude, eta, San Joxepepe erretiratuen elkarteak data honetan ohi duen moduan, kultura hamabostaldia antolatu du. Gaur, astelehena, abiatuko da, eta 18:30ean emango diote hasiera. Ordu horretan erakutsiko dute hamabostaldiaren kartela eta Genaro Lekuona apaizak egingo du irekiera hitzaldia: *Bizitzaz jabetua, bizitza osoa* izeneko, hain justu ere.



Jesus Mari Ugalde. | GOIENA

Izen handiko zientzialariak

Zientziaren garrantzia azpimarratuko dute San Joxepepekoek aurtengo hamabostaldian, eta horren erakusle dira asteon egongo diren bi hitzaldiak.

Bihar, hilak 16, Jesus Mari Ugaldek -zientzialari bergararra eta Jakiundeko lehendakaria- *Nor gara gu, zer gara gu...* izarren *hautsa gara gu* delako hitzaldia egingo du, 19:00etan, Miguel Altuna institutuan. Hilaren 18an,

berriz, beste zientzialari ospetsu batek, Guillermo Roak, *Norteko ferrokarrilla* irratsaioaren gidariak, *Amatxo, hegan egin nahi dut* izeneko emango du. Oso modu atseginean, hegazkinek hegan nola egiten duten azalduko du Roak. Hori ere 19:00etan izango da, Miguel Altunan.

Txangoak ere egingo dituzte hamabostaldiaren barruan: 17an Elizondora joango dira; eta 24an, Getariako Balenciaga museoa ikusi eta gero, Zumaiako Marina Berri jatetxean merienda egingo dute. Bietara ala bietara joateko, izena eman behar da.

Hilaren 19an, 20an eta 21ean, eskulanen erakusketa egingo dute, eta San Joxepepe azpimarratu nahi dute "herriko erretiratu guztiek" parte har dezaketela. Hilaren 22an, eskolako umeen artean egin ohi izan duten lehiaketaren sariak banatuko dituzte, 17:00etan, eta merienda eta musika ere egongo dira.

Antzerkia eta musika ere bai

Hilaren 23rako antzerki emanaldia antolatu dute. Oñatiko Ikusi Makusi erretiratuen antzerki taldeak *De vecinos como estos libranos señor* delako antzezlan egingo dute, 17:30ean, Zabalotegi aretoan.

Hilaren 26an, kontzertua egingo dute San Joxepepeko abesbatzak eta Legazpiko Bustintegi abesbatzak, 19:45ean, Santa Marina parrokian.

Hilaren 27an itxiko dute kultura hamabostaldia. Egitarauari amaiera emateko, bazkaria egingo dute San Joxepe egoitzako tabernan, eta bazkalostean, oparienez zozketa eta dantzaldia ere egongo dira. Bazkarian parte hartzeko, izena eman behar dela ekarri dute gogora zuzendaritzatik.

Alpesetan lanarekin eta herriko saria, berriz, Gurutz Beitiaren dako izan da, *Surfista II* delako argazkiarekin.

'iRedios!', zuri-beltzeko onena

Zuri-beltzeko arloari dagokionez, Soroluzeko Carlos de Cos Azkonaren *iRedios!* lanak jaso du lehenengo saria. Bigarrena, Miguel Cavero ordiziarrak eraman du *Cavero* lanarekin eta hirugarrena, berriz, Jose Agustin Gurrutzaga bergararrarendako izan da, *Lanzamiento* lanagatik. Herriko sariari dagokionez, Juanjo Lopez Azurmendik jaso du *Laboche Este* lanarengatik.

128 argazki jaso dituzte

Sariak erabakitzeke epaimahaia-ri dagokionez, hiru argazki elkarteko kideek osatu dute: Inaki Kaperotxipi, Zarauzko elkarteak; Jose M^a Arrigain, Gipuzkoako elkarteak; eta Julian Gilek, Ikatza elkarteak.

Jasotako lan kopuruaren kasuan, guztira 128 argazki jaso dituzte antolatzaileek. 18 partaidek -6 bergararrak- bidalitako 52 argazki, zuri-beltzekoak izan dira; eta 24 partaidek bidalitako -8 bergararrak- 76 argazki, koloretakoak.

Jasotako argazkiekin erakusketa ere antolatu dute. Hain justu ere, 40 argazki egongo dira ikusgai, 16 zuri-beltzekoak eta 24 koloretakoak. Erakusketa dagoeneko zabalik dago urriaren 28ra bitartean, Aroztegi aretoan, ohi-ko ordutegian.

36ko gerrako obus bat aurkitu dute San Martzialen

M.B. | BERGARA

Eguazten goizean, Espainiako gerrako obus bat aurkitu zuen herritar batek San Martzialen. Udaletik jakinarazi dutenez, Udaltzaingoak herritar baten abisua jaso zuen 09:00 aldera San Martzial auzoaren inguruetan obus bat aurkitu zuela esanez.

Bertaratu ondoren, inguru itxi zuen Udaltzaingoak eta SOS Deiei abisua eman zien. Hala, lehergailuetan aditu taldea bertaratu zen eta, barruko lehergaia egoera onean zegoela konprobatu ostean, 12:00 aldera, inguruko zelai batean leherrazitu zen 35 x 7 zentimetroko tamainako obusa. Leherketak, kontrolatua izanik, ez zuen inongo kalterik eragin.

Obusa Espainiako gerra garaikoa zen, eta, adituek uste dutenez, inguru horretan, oraindik aurkitu gabeko obus asko egon daitezke.

Horregatik, horrelakorik aurkituz gero ez ukitzeko eta, zuzenean, segurtasun indarrei deitzeko aholkatu nahi diete Udaletik herritarrei.

Bergarako lagun talde batek Budapesteko maratoian parte hartu zuen aurreko domekan

G.A. | BERGARA

Domekan, urriak 7, izan zen Budapesteko maratoia, eta Bergarako eta inguruko sei lagunek parte hartu zuten. 18-20 graduko tenperaturarekin eta hezetasun handiarekin, giroak ez zuen askorik lagundu, baina eurekin batera Pragako hiriburura joandako beste zazpi lagunek gogotik animatu zituzten, eta eskerrak horri...

Jabi Ibarrek, Antonio Verguzasek, Ibon Bilbaok, Jorge Garinek, Anaje Urtzelai -osintxuarra- eta Joseba Sagarnak -Debakoa- egin zuten maratoia.

2.59.30 denbora egin zuen Ibarrek; 3.52.28, Ibon Bilbaok; eta 4.06.50, Antonio Verguzasek, Joseba Sagarnak eta Jorge Garinek. Anaje Urtzelai beste lasterketa batean esku hartu zuen, 30 kilometrokoan.

Korritu duten nazioarteko hirugarren maratoia izan da Budapestekoa, Amsterdam eta Berlingoen atzetik. Budapest bost egun eman dituzte, eta turismo apur bat egiteko ere aprobetxatu dute. Handik etorri berri, datorren urtean nora joan pentsatzen hastekoak dira.



Ibarra, Verguzas, Bilbao, Garin, Urtzelai eta Sagarna. | JABI IBARRA

Bandera ipintzeko aginduari helegitea

MA | OÑATI

Udalak helegitea aurkeztuko dio Espainiako bandera jartzeko Donostiako auzitegiak hartutako erabakiari. Joan den hilean Donostiako Epaitegiak emandako ebazpenak dio Oñatiko Udala derrigor-tuta dagoela Espainiako bandera bai udaletxeko fatxadan eta baita Osoko Bilkuren aretoan jartzera.

Aginduaren aurrean, udalak erabaki du lehen instantzian hartutako erabakiaren kontrako helegitea ipintzea. Horrek auzia Bilboko epaitegiaren esku utziko du eta bizpahiru hilabeteren buruan emango dute jakitera azken erabakia.

Duela urte bete Espainiako gobernuak Euskadin duen ordezkariak Oñatiko udalari eskatu zion legeak agintzen duen moduan Espainiako bandera udaletxeko fatxadan eta barrualdean preferentziatzeko toki baten jarri zezan. Eskakizuna bete ezenez, Estatuko abokatuak helegitea ipini zuen Oñatiko udalaren kontra iazko azaroan eta orain, esan bezala, bandera jartzeko agindu du Donostiako auzitegiak.



The Dealers taldeak 60ko hamarkadako erritmoak ditu bere musikaren abiapuntu. | GOIENA

The Dealers Antton tabernan, egubakoitzean

Gasteizko taldea zuzenean ikusteko aukera izango da, 20:00etatik aurrera

MIREN ARREGI | OÑATI

Abuztuaren 5ean egin zuen Antton tabernak udako oporrei ongi-eterria eta iazko ikasturteari agur esateko kontzertu sorta Antton taberna kanpoan. Orduan Azkaiter Pelox edota Behibi Blues taldeak aritu ziren bertan eta ordutik, ez da kontzerturik eskaini tabernan.

2011ko martxoan hasi ziren egubakoitzetan kontzertuak eskaintzen eta ordutik rock alorreko hainbat talderen kontzertuez gozatu ahal izan da bertan. Horien artean, Gora Gora Kids, Fiachras, Shut Up!, La Banda del Abuelo, Moby Dick edota Mikel Garate eta abar.

The Dealers, Gasteiztik

Egubakoitz honetan izango da Gasteizko The Dealers taldearen kontzertua arratsaldeko 20:00retan. 2006an sortu zen taldea, rhythm and bluesak, rock and rollak, garajeak eta Britainia Handiko 60ko hamarkada hasierako energiak bultzaturik. Bertsiok egiten hasi zen laukotea, baina pixkanaka, euren abesti propioak sortu dituzte. Euren musika eskaintzak 60ko hamarkadako erritmo eta estiloetan du oinarria. Zuzeneko oso indartsua duen taldea da The Dealers, The Animals, The Kinks edo The Rolling Stones bezalako taldeen iturritik edan duena. Egubakoitzean, beste abesti batzuekin batera, aurkezpen *single*-a entzuteko aukera ere izango da, esan bezala, 20:00tik aurrera.

Ulmak elkartasun azoka jarri du martxan, berriz



Iazko elkartasun azokan jasotako materiala. | GOIENA

MIREN ARREGI | OÑATI

Ulma Taldeak Oñatiko Hermansoloña Gobernu Kanpoko Erakundearekin lankidetzan elkartasun azoka ipini du abian hirugarrenoz. Helburua da Hermansoloñak Argentinako Jose C. Paz herrian duela zortzi urte-tik garatzen diharduen hezkuntza proiektuari ekarpenak egitea. Hala, ekimen honetan parte hartu gura duten langile eta bazkideek, gaztelaniazko liburuak, testu-liburuak, haurrendako euskarazko zein gaztelaniazko ipuinak, sukalde liburuak edo bestelakoak eroan ditzakete Ulma Taldeko zerbitzu zentraletara astelehenetik egubakoitzera 8:30etik 13:00ra eta 14:00tik 17:30era. Dagoeneko martxan da ekimena eta azaroaren 19ra arte batuko dute materiala.



OIHANA ELORTZA

Agur plazako aparkalekuari

Hutsik dago dagoeneko plazako aparkalekua. Badakizue, gune horri aisialdiarekin lotutako erabilera bat eman gura diola Udalak eta proiektua gauzatzeko herritarren iritzia jasoko duela. Zehazteke dago, beraz, datorren urtean zein itxura izango duen aparkalekuak; oraingoz, umek han izango dute jolasak eta zapatutako Santa Marinako azoka ere bertan egingo da.

Yogari buruzko hiru hitzaldi oraingo astean Yoga eskolaren eskutik

Lehenengo hitzaldia bihar izango da, Kultur Etxeko zine aretoan, 19:30ean. Roman Agirre hizlariak *Yoga de los 8 escalones* hitzaldia egingo du. Bigarrena ordu eta toki berean izango da, etzi, Gerardo Eskarzaren eskutik; *Viaje a la conciencia* izeneko hitzaldia egingo du. Azken hitzaldia, *Vivir despierto* egubakoitzean izango da, Maite Anduagaren eskutik.

Nafarroa Oinezarako autobusa jarri du Txantxiku ikastolak

Nafarroa Oinez 2012 ospatuko da domekan Zizur Txikian eta bertara joateko autobusa antolatu du Txantxiku Ikastolak. Goizeko 10:00etan irten-go da autobusa posta bulego tik eta 19:00retan izango da buelta Zizurretik. Txartelak salgai daude Txantxiku Ikastolan bertan, eguenera arte, 12 eurotan.

Ikastaroetan izena emateko epea bukatuko da egubakoitzean

Kultur Etxeko ikastaroetan izena emateko epea bukatuko da egubakoitzean. Hala, patchworken, bitxigintzan, eskulan dekoratiboetan, pinturan edota zeramikan izena eman gura baduzue, egubakoitza baino lehen egin behar duzue, arratsalde. Matrikula ordaindu, berriz, urriaren 23tik 30era egin beharko da.

Argazkilaritza tailerra eskainiko du eguenetik Itziar Bastarririk

Ilunpetan taldeko Itziar Bastarririk *Argazkiarekin jolasean* izeneko argazkilaritza tailerra eskainiko du eguen honetan hasita. Argazkilaritzaren oinarrietatik digitalerainoko bidaia edota argazkilaritzaren historian barrenakoa proposatuko du Bastarririk saioetan. Hilaren 17ra arte dago zabalik izena emateko epea.

Gazte eta gazte taldeen kultur jardueretarako diru-laguntza deialdia

Hilaren bukaerara arte dago zabalik gazteen kultur sorkuntzara bideratutako diru-laguntzen II. deialdian izena emateko aukera. 12 eta 30 urte bitarteko edozein gazte edo gazte taldek eskatu dezake diru-laguntza, kultur programazioa osatzera, sormena eta hedapena sortzera edo bestelakoetara bideratutako proiektuetarako.

ESKORIATZA

Josetxo Enkotegi | Olazar jubilatuen elkarteko lehendakaria

"Oso giro ona daukagu Eskoriatzako jubilatuen elkartean"

AMAIA TXINTXURRETA | ESKORIATZA
Josetxo Enkotegik apirilean hartu zuen Olazar jubilatuen elkarteko lehendakari kargua. Ordutik buru belarri dabil Eskoriatzako jubilatuei onena eskaini nahian.

Zer moduz lehendakari karguan?
Oso ondo. Talde ona osatu dugu eta oso ondo moldatzen gara. Hasieran kosta egin zitzaigun, izan ere, aurreko lehendakari Txomin Azpitartek eta lehendakari orde Jose Mari Hercek batera utzi zuten kargua eta juntako beste kide batzuk ere gaixo zeu-

den, beraz, hasieran martxa hartzea kosta egin zitzaigun. Baina orain primeran moldatzen gara. Gaur egun junta hauexek osatzen dugu: Jose Juan Zubizarretak, Jasone Orbegozok, Leo Herrero, Elias Gomezek, Ana Jesus Nabaridasek, Maria Jesus Uribek, Jose Luis Landak eta neuk. Martitzenero egiten ditugu juntak.

Zenbat jubilatuk osatzen duzue elkartea?

600 inguruk. Gaur egun gainera, herriko 60 eta 65 urte bitarteko erretiratu gehienak batzen dira elkartera eta giro ona daukagu.

Zein ekintza egiten dituzue urtean zehar?

Besteak beste, urte guztian zehar eguenetan bingoa izaten dugu, egubakoitzetan dantzak. Hilean behin podologoia etortzen da elkar-tekoendako. Astebeteko bi txango egiten ditugu; bata, martxo edo apirilean, eta bestea, urrian. Egun bateko bost txango ere egiten ditugu urtean zehar. Jubilatuen bazkaria, abenduan txistorrada, urtarrilean txokolatada, uztailean afora 80 urtetik gorakoendako... Abenduan jubilatuek egindako lanekin erakusketa bat ere jarriko dugu.

Zein izango da zuen hurrengo irteera edo ekintza?

Hilaren 27an Lodosara daukagu txangoa eta dagoeneko bi autobus beteta dauzkagu. Beraz, jendea animatu da hurrengo txangora.



Eskoriatzako jubilatuek Galiziako Sanxenxon. | NEKANE OIANGUREN

Erretiratuak Galizian, astebetez

Hilaren 1etik 7ra bitartean, Eskoriatzako 106 jubilatuek Galizian izan ziren bidaietan. Bi autobusetan joan ziren eta besteak beste toki hauek bisitatu zituzten: A Coruña, Fisterra, Santiago de Compostela, Pontevedra, La Toja eta Sansenxo. Eguraldi paregabea egin dietela esan digute eskoriatzarrek eta primeran pasa dutela Galizia aldera egindako astebeteko bidaietan. Giro ederrean ibili dira, beraz.

ARETXABALETAKO

Emakumeen eskubideak aldarrikatzeko astea hasi da

A.T. | ARETXABALETAKO

Gaur, astelehena, eman zaio hasiera Emakumeen Asteari Aretxabaletan eta hori ospatzeko hainbat ekitaldi egongo dira.

Ekitaldiak

Gaur Landa Eremuko Emakumeen Nazioarteko Eguna denez, 18:00ean *Gaur zortzi azokan* ikus-entzunezkoa eskainiko dute Arkupen eta ondoren berriketaldia egingo dute. Eguaztenean egingo da ekitaldi nagusia: 18:00ean herriko plazan emakumeen aldeko aldarrikapenak egingo dituzte, antzezlan eskainiko dute bi herritarrek eta bukatzeko pintxoak egingo dira. Eguenean, berriz, *Divinas* izeneko antzezlan eskainiko du Oihulari Klown taldeak. Egubakoitzean, oster, hainbat ekitaldi egingo dira; jolas ez sexistak herriko plazan 17:00ean, ordu bete geroago berbaldia egingo da, 18:30ean grafiti ikastaroa eskainiko dute eta 22:30ean Kokein eta On taldeek kontzertua eskainiko dute. Bestelako kirol hitzorduak ere egingo dira.

ARETXABALETAKO

Neguko moda desfilea egingo da egubakoitzean

Azken urteotan ohitura bihurtu den moda desfilea egingo dute Aretxabaletako Durana kalean egubakoitzean, hilak 19. Belar Metak eta herriko beste denda batzuetako materiala erakutsiko da eta aurreko aldietan bezala, UDAko jokalariek ere modelo lanetan ikusi ahal izango dira. Barra bat ere jarriko du elkarrekin udaletxe zahar ondoan edatekoarekin eta jatekoarekin. UDAko Gabonetako loteria ere salgai dago ohiko lekuetan; aurtengo zenbakia da 60.377.

ARETXABALETAKO

Gazte Foroan izena eman nahi dutenek oraintxe dute aukera

Aretxabaletan Gazte Foroa egin nahi dute herriko gazteen iritzia eta beharren gainean berba egiteko. Beraz, 16 eta 35 urte bitarteko gazteak bertan parte hartzera animatu nahi dituzte. Izena emateko gazteria@aretxabaleta.net helbidera idatzi behar da edo Arkupeko harrerara joan. Hilaren 17an, eguaztenean, elkartuko dira Arkupen 17:30etatik aurrera. Beraz, 16 eta 35 urte izanez gero, Gazte Foroan parte hartzeko deia egin dute.

OHARRAK

ESKORIATZA

EAJ-REN HITZALDIA

EAJ-k hitzaldia eskainiko du gaur, astelehena, herriko batzokian 19:00etan hasita. Hizlaria Joseba Egibar izango da eta herritar guztiak daude gonbidatuta bertara.

ATZERRITARTASUN

LEGE HIZPIDE

Eskoriatzako Udaleko Gizarteratze Zerbitzutik, Atzerritartasunaren Legearen gaineko hitzaldia antolatu dute eguenerako, hilak 18rako. Lege horrez gain, atzerritarren gizarteratze prozesuari buruz ere jardungo dira. Kultura etxean izango da hitzaldia 10:00etatik 12:00etara bitartean eta saioa atzerritarrei nahiz atzerriko pertsonekin harremanetan daudenei dago zuzenduta.

IPUIN KONTAKETA

Umeentzako ipuin kontaketa egingo da eguenean, hilak 18, liburutegian Pello Añorgaren eskutik.

BIGARRIN ESKUKO AZOKA

Domekan, hilak 21, bigarren eskuko azoka egingo da eta bertan postua jarri nahi duten herritarrek izena eman behar dute. Horretarako, deitu 943 71 46 88 telefonora edo idatzi aintzane@eskoriatza.net helbidera.

ESKORIATZA


Iker Mediavilla, txapeldun

Eskoriatzako Aldaie ehiza eta arrantza elkarteko Iker Mediavilla ordezkaria, txakurrarekin egindako ehiza xeheko Gipuzkoako txapelketan garaile izan zen kadeteen mailan El Castillo-ko ehiza-barrutian jokaturako lehiaketan. Argazkian Mediavilla gaztea ikus daiteke txapelketan irabazi zuen kopa eskuetan duela. Zorionak!

ESKORIATZA

500 euro irabazi ditu telebistan

Eskoriatzako Joseba Larzabal Uribarik *La ruleta de la suerte* Antena 3ko saioan 500 euro irabazi zituen martitzenean. Ikus-entzuleendako panelera deitu zuen, eman zioten pista izan zen jateko zerbait zela eta Larzabalek erantzun zuzena eman zuen: *Arroz meloso con setas y langostinos*. Eskoriatzarra oso pozik dago sariarekin.



Nagusion hizkuntza ohiturak jasotzen dituzte gure seme-alabek.

eredu izan
EUSKARAZ
plazera delako!

Aretxabaletako Udala
EUSKARA SAILA



Irudian, elkarte gastronomikoetako eta kultur taldeetako ordezkariekin egindako bilera, joan den astean. | JOKIN BEREZIARTUA

ARAMAIO

Berdintasun Plana garatzeko diagnosis egin guran dabil Udala, herritarrekin

Elkarte gastronomiko eta kultur taldeetako ordezkariekin egon dira dagoeneko; hilaren 18rako herritarrendako bilera irekia deitu dute osoko bilkuren aretoan (18:00)

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasun diagnostikoa egin gura du Udalak. Horretarako, Daiteke gizarte aholkularitza enpresarekin jarri dira harremanetan, Aramaion Berdintasun Plan eraginkorra egiteko abiapuntua zehazteko.

Hasteko, herriko errealitatearen diagnostikoa egin gura dute, eta bai Udalak, bai Daiteke enpresak berebiziko garrantzia eman diote herritarren iritzari. Diagnostikoko horrekin joan den astean hasi ziren; herriko elkarte gastronomiko eta kultur talde ezberdinekin egin zuten hitzordua.

Herritarrekin bilera eguenean

Orain, herritarrekin egoteko ordua heldu da. Eguen honetan, hilak 18, herritar ororendako bilera irekia egingo dute udaletxe osoko bilkuren aretoan (18:00). Udalak dei egin die herritarrei Berdintasun Plana egiteko lanean euren ekarpena egin dezaten. Maria Salsamendi Daiteke enpresako teknikariak azaldu digu

topaketaren helburua: "Herriko elkarte eta taldeendako deialdia izan da, diagnostikoko horretarako ekarpenak jaso ditzagun". Diagnostikoko horretan teknikari eta zinegotzien iritzia ere jaso dira, herria ahalik eta ordezkatu egon dadin.

Diagnostikoko horretan jasotakoekin Berdintasun Plana garatuko da, helburu eta ekintza zehatz batzuekin. Edurne Uribarren-Iturrieta Ongizate zinegotziaren arabera, Udalarendako "oso garrantzitsua" da Berdintasun Plana egitea: "Irtzi ezberdinak behar ditugu oinarri bat zehazteko. Oinarri horrekin

atik abiatuz zer egin dezakegun aztertuko dugu".

Oso bizirik dagoen herria

Elkarte gastronomikoei eta herriko kultur taldeei egindako deialdiak erantzun ona izan zuen. Besteak beste, Papargorri eta Bizente Goikoetxea abesbatzeta, Lagunartea dantza taldeko, Txirritola euskara elkarteko eta Gazte Asanbladako ordezkariak izan ziren, eta baita Izpizte eta Leizar-ondo elkarte gastronomikoetako bazkideak ere.

Daitekeko teknikariak elkarte horiek guztiak ezagutu zituzten. Elkarteon sorrera-urtea, helburuak eta Udalarekin duten harremana galdetzeaz gain, bazkide edo partaideen artean zein ardura postuetan zenbat gizonetako eta zenbat emakumetako dauden galdetu zuten. Bilerak agerian utzi zuen Aramaio oso bizirik dagoen herria dela. Kasuak kasu, kultur taldeetan jende asko mugitzen da; Daiteke enpresako teknikariak harriritu geratu ziren.

**LEINTZ GATZAGA**

Drogen gaineko berbaldia antolatu du Bideberrik egubakoitzerako

'Drogei buruz, zer jakin behar dugu?' galderari erantzungo diote kultura etxean (18:30)

MIRARI ALTUBE | LEINTZ GATZAGA

Bideberri mankomunitateak Antzuolak, Elgetak eta Leintz Gatzagak osatutako gizarte zerbizuen mankomunitatea—droga menpekotasuneko prebentzio kanpaina zehaztu du 2012rako. Kanpaina horren barruan hainbat berbaldi egingo dituzte urrian hasi eta abendura bitartean. Lehe-

na egubakoitzean, hilaren 19an, egingo dute: *Drogei buruz, zer jakin behar dugu?* Kultura etxean izango da (18:30), eta herritar guztiak daudela gonbidatuta jakinaz dute antolatzaileek. Gainerako berbaldiak oraindik ez dituzte zehaztuta. Argibide gehiago gura duenak udaletxera jo dezala: 943 71 47 46.

Aditu baten eskutik

Drogei buruz, zer jakin behar dugu? hitzaldian landuko dituzten gaien artean hauek daude: droga motak; 12 eta 16 urte arteko nerabeek kontsumitzen dituzten drogak; zergatik kontsumitzen dituzten; zer dioen legeak; zertan jarri behar duten arreta gurasoek; zer egin lehen kontsumoen aurrean...

Bilboko Hazkunde enpresako aditu batek landuko ditu gai horiek guztiak eta beste hainbat. Batez ere, gurasoei dago zuzenduta hitzaldi hori, baina, Bideberriko kideen esanetan, gaia garrantzitsua izanik, interesa duen edonork parte har dezake.

ELGETA

Mikel Markez eta Erramun Martikorena, barikuan Espaloian

Astea ekitaldiz beteta dator; hitzaldiak, batzarrak eta zinema emanaldiak daude

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Mikel Markez eta Erramun Martikorena herriz herri dabilta elkarrekin kantaldiak eskaintzen, eta Elgetan ere egingo dute geldialdia: barikuan, hilaren 19an izango da, 22:30ean.

Bien artean Ipar Euskal Herriko eta Hego Euskal Herriko kantagintza batuko dute batzuetan bakarka, besteetan elkarrekin, eta errepertorio herrikoia eskainiko dute musikari aparten laguntzarekin: Pello Ramirez—txeloa eta akordeoia—eta Arkaitz Miner—gitarra, mandolina eta biolina—. Sarrerak salgai daude dagoeneko antzokian bertan. Prezioa zazpi euro da, eta bost euro bazkideendako.

Gartxot pelikula

Asteak bestelako kultura hitzorduek ekarriko ditu. Martitzenean, esaterako, Elgeta kantuan prestatzeko bigarren entsegua egingo dute kultura etxean 21:00etan. Eguaztenean, hilak 17, *Gartxot konkista aitizineko konkista* pelikula emango dute antzokian, 21:00etan—sarrera 2,5 euro—.

Eguenean, berriz, perretxikoen inguruko hitzaldia egingo du Joxe Mari Larrañaga bergararrak Elgetako jardunaldi mikologikoei hasiera emateko. Solasaldia 19:00etan izango da kafe antzokian, doan. Udalak, bestalde, aurrekontuen gaineko batzarrera deitu ditu herritarrek eguaztenean, 19:00etan.



Mikel Markez eta Erramun Martikorena emanaldia egiten. | JOSETXO ARANTZABAL

ANTZUOLA

Euskararen kale erabileraren neurketako datuak aurkeztuko dituzte

MAIDER ARREGI | ANTZUOLA

Soziolinguistika Klusterrak euskararen kale erabileraren gaineko neurketa egin du Antzuolan. Datuak jendaurrean, hilaren 18an, arratsaldeko sei eta erdietan aurkeztuko dituzte jendaurrean, Olanaren.

Soziolinguistika Klusterrak 2011n abiatu zuen kale neurketa. Beheko auzoan, Eguzki auzoan, Kalebarren kalean, Herriko Plazan, Kalegoi kalean, Antigua auzoan, Errekalde auzoan eta Sagasti kalean egin ditu neurketak. Hartutako laginen artean, hizkuntza gaitasuna, kale erabilera, adin tarte ezberdinen arteko ezagutza maila... hartu dira kontuan.

IPUIN EMANALDIA

Virginia Imazen eskutik helduendako ipuin emanaldiaz

gozatzeko aukera egongo da eguenean, hilaren 18an, Torresoroan, 17:00etan hasita. Herri osoari zabaldua dago emanaldia, haurrei izan ezik.

Umbrales izeneko helduendako ikuskizuna eskainiko du Oihulari Clown taldeko Imazek. Bi munduren arteko metafora egiten du: errearen eta ipuinen munduaren artekoa. Ipuinak entzuteko direla eta ez irakurtzeko dio. "Ikuskizuna 15 urtetik gorakoendako da; jende gazte eta helduarendako. Izan ere, ipuinetan, eduki erotikoa modu finean aurkeztuko da", gaineratu digu.

Virginia Imaz oraingoan bakarrik igoko da agertokira. Eskarmentu handia dauka—ezaguna da Cirque de Soleil ospetsuko kide izateagatik—ipuin kontalari eta clown gisa.

DVDren irabazlea

Jose Ignacio Martinez Obetegi
(Bergara)

DEBAGOIENA EZAGUTZEN



* Jakioneko produktuz osatutako otarrea.

Parte
hartzeko

Telefonoz: 943 25 05 05
SMS bidez: Bidali KLUBA ERANTZUNA
[bazkidearen zenbakia] 215800 zenbakira.
E-postaz: kluba@goiena.com
Whatsapp bidez: 688 69 00 08

Parte-hartzaile guztien artean zozketatuko da.

Perretxiko garaia dela eta,
ze izen du horrek?
Izen arrunta eta zientifikoa.
Argazkia eta galdera > Jose Fernandez

SMSaren kostua: 0,15 euro + BEZa mezu bakoitzeko.
Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestioatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezetzatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.com

URRIKO
SARRERAKParte
hartzeko

Telefonoz: 943 25 05 05
E-postaz: kluba@goiena.com
WhatsApp bidez: 688 69 00 08

Parte-hartzaile guztien artean zozketatuko da.

DANTZA IKUSKIZUNA
Urriaren 20an. "Arte-an"
dantza ikuskizuna Kulturaten.
Bidali KLUBA DANTZA
[Bazkidearen zenbakia]
215800 zenbakira.



KONTZERTUA
Urriaren 26an. "Gatillazo"
taldearen kontzertua Oñatiko
Gaztelekuan.
Bidali KLUBA KONTZERTUA
[Bazkidearen zenbakia]
215800 zenbakira.



HAUR ANTZERKIA
Urriaren 28an. "Azken portua"
haur antzerkia Kulturaten.
Bidali KLUBA ANTZERKIA
[Bazkidearen zenbakia]
215800 zenbakira.



SMSaren kostua: 0,15 euro + BEZa mezu bakoitzeko.
Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestioatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezetzatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.com

Atera etekina

goienakluba 2012

%25 eko deskontua



- %5 konponketetan, ez bada prezio itxia edo promozioa.
- %25 saltzen ditugun pneumatikoetan, urte osoan.
- Ordezkapeneko autoa, 20 euro.
- Erosketaren momentuan goian aipatutako deskontua baino handiagoa badugu, bazkideari deskontu handiena eskainiko diogu.

LORTU DESKONTUAK HAUETAN ERE BAL



AQUARIUM
Donostiako aquarium-a
Donostia, 943 44 00 99



ARGIA
euskarazko aldizkari orokorra
Lasarte-Oria
943 37 15 45 - 943 37 34 03



AVIA MECA
gasolindegia
Arrasate, 943 79 13 39



BEGIONDO
optika
Aretxabaleta, 943 79 98 21



GAHIR
fisioterapia-osteopatia
Eskoriatza, 943 71 43 41



ESKO SPORT
kirol denda
Eskoriatza, 943 71 52 96



GAES
Centros Auditivos
Entzumen zentroak
entzumen zentroa
Arrasate, 943 71 27 93
Bergara, 943 76 94 55



**GUZTIZ
EDER**
edertze
zentroa
Oñati,
943 78 01 46.



**IKER
SUKALDEAK**
IKER
sukaldeak
Arrasate, 943 79 00 43
Oñati, 943 53 35 48



LASTAI
haurtzaintza eta atsedeen gunea
Gasteiz, 945 35 85 59



LILURA
edertze zentroa
Bergara, 943 76 31 71



MULTIOPTICAS
lehen a zerbitzu optikoetan
MULTIOPTICAS
optika
Arrasate, 943 79 29 95
Bergara, 943 76 15 75



JAIXAK
disfrutatuzko oparixak
JAIXAK
denda
Bergara, 943 76 31 45



NAREN
fisioterapia
zentroa
Aretxabaleta,
943 08 21 89



**TXURI
URDIN**
izotz
jauregia
Donostia,
943 46 44 00



EUREKA!
zientzia
museoa
Donostia, 943 01 24 78



**IZENADUBA
BASOA**
parke tematikoa
Mungia, 94 674 00 61



KIROLA

ARRASATE-ONATI LASTERKETA

Sergio Gartzia eta Marisol Ramos txapeldun eta Oñati nagusi

- ▶ Oñatiarrek nagusitza erakutsi dute beste behin ere
- ▶ 245 lasterkari eta 74 patinatzaile egon ziren
- ▶ Gizonezkoetan bosten arteko lehia bizia izan zen

JON BEREZIBAR | OÑATI

Sergio Gartziak irabazi zuen gizonezkoetan (00:40:15) eta Marisol Ramosek (00:48:14) emakumezkoetan. Biak ala biak oñatiarrek, sailkapeneko goiko aldean aurki daitezken lasterkari asko eta asko bezala. Herri probak bertako ordezkari zabala eta maila altukoa izan zuen zapatuan, inondik ere.

Bosten arteko zeingehiagoka

Gizonezkoetan lehen lauetatik hiru ere izan baitziren oñatiarrak, hain zuzen, Andoni Correas eta Yeray Varelaekin. Hurrengo debagoiendarra Markel Blanco arrasatearra izan zen. Guztira 245 korrikalarik eta 74 patinatzailek hartu zuten parte ibarrekoko lasterketa jada klasikoan. Ibilbideak, gainera, ezusteak izan

zituena Arrasateko zatiak aldaketak izan baitzuten hiriko obrak direla-eta. Parte-hartzaile askorentzat sorpresa izan zen hori. Ez, ordea, korrikalarien kasuan, lasterketa osoan zehar lidertzari eutsi zion boskotearentzat, Sergio Gartzia, Andoni Correas, Yeray Varela hirukotea eta, haiekin batera, Ramontxu Otaegi eta Xabat Mantzisorrentzat. Lehen hamar kilometroak igarotakoan apurtu zen taldea, baina, Gartziaaren ekimenez. Ihesaldia ondo atera zitzaion txapeldunari, batez ere, Correas eta Varelaekin lehia estuan ibili baitzen Gartzia lasterketa osoan. Azkenean, baina, Oñati sarreran Varela arazo fisiokoengatik geratu egin behar izan zen eta Mantzisorrentzat gipuzkoarren eta Andoni Correas oñatiarren arteko esprintean egon

ziren jokoan bigarren eta hirugarren postuak; Gartziak behin ihesa egin eta gero, hari aurrea hartzerik ez zen-eta egon.

Patinatzaileak

Patinatzaileen kasuan Pablo Salaberria 18 urteko donostiarrak lehia estua izan zuen Sébastien Miqueurekin. Saiatu bai, baina frantziarrak ezin izan zuen gaztearen arintasunarekin, batez ere aldats gutxiko ibilbide baten. Eguraldia garrantzitsua da patinatzaileen kasuan eta euririk behintzat ez zen izan. Bero punta bai, eta lasterkari askok, bat izatekotan horixe zuten keza bakarra. Askorentzat gainera denboraldi hasierako beroketa frogan moduan balio izan zuen zapatukoak, indarrak benetan frogan jartzeko aukera.



Sergio Gartzia, irabazlea, helmugara iristerakoan. | JULIO CALLEJA




Lasterketan uneoro nagusi izan zen boskotea. | ANDER MONEDERO



PABLO SALABERRIA
DONOSTIA

"Atzean neraman frantziarra etengabe erasoka neukan eta gogorra izan da erritmoari eustea. Bigarren aldia da natorrena eta ematen duena baino gogorrago da naiz eta maratobietara ohitua nagoen".



JON MURGUZUR
OÑATI

"Eguraldi ederra eta giro oso ona egon da, hortaz, polita izan da. Antolakuntzakoek ezusteko kilometro pare bat sartu dizkigute eta horrek ere eragina izan du baina, orokorrean, oso ondo".



JOSE NEGREIRA
ARRASATE

"Bero puntu batekin baina, bestela, lasterketa ondo joan da. Taldetxo bat etorri gara, ohikoak. Neu, baina, lesio batetik errekupezen nabil eta, hori dela-eta, ez nabil gura adina ondo".



Hiru lasterkari, Elorregira iristear. | ANDER MONEDERO

ZIKLOKROSA | Arrikruz Oñatiko Kobak taldearen aurkezpena | 26



Pablo Salaberria iritsi eta frenatzerakoan jausi egin zen. | JULIO CALLEJA



Varelak kostata egin zituen azken metroak. | JULIO CALLEJA



Sébastien Miquieu, patinatzaileetan bigarrena. | JULIO CALLEJA



Lasterkari taldea Elorregin. | ANDER MONEDERO

SAILKAPENA

GIZONEZKOAK

OROKORRA

1. Sergio Gartzia (Oñati) 00:40:15
2. X. Mantzisor (Azpeitia) 00:40:22
3. Andoni Correas (Oñati) 00:40:28

EMAKUMEZKOAK

OROKORRA

1. Marisol Ramos (Oñati) 00:48:14
2. Nerea Etxeberria (Azpeitia) 00:49:08
3. Eva Calle (Gasteiz) 00:50:06

DEBAGOIENDARRAK

OROKORRA

4. Yeray Varela (Oñati) 00:40:46
8. Markel Blanco (Arrasate) 00:42:18
11. Ritxar de Goñi (Bergara) 00:42:54
12. Mikel Zubiria (Aretxab.) 00:43:07
14. Kepa Varela (Bergara) 00:43:34
15. Iñaki Arriaran (Oñati) 00:43:56
17. Gurutz Larrea (Antzuola) 00:44:10

SERGIO GARTZIA | IRABAZLEA

"Nik badakit iraupeneko lasterkaria naizela eta ez esprintean irabaztekoa"

Hasiera hasieratik ibili zarete boskotea eta lasterketa osoa eroso egin duzue, ezta?

Bai, pentsatuta geneukan Oñatiko taldekoek hori egitea eta hiru joan gara hasieran. Pitinka-pitinka aurrera egin dugu eta bukaeran ia nork irabaziko geratu gara. **Oñatiarren indar batuketa, beraz.** Halaxe pentsatu dugu eta ondo ateratu da. Beti buruan egotea lortu dugu.



J.B.

Erditik aurrera, hala eta guztiz ere, taldea apurtu eta aurrera egin duzu.

Bai, ze nik badakit 200 metroan ezin dudala eta iraupeneko lasterkaria naizela, ez esprintean irabazten duena. Oñati sarreran ere abiada aldatzea garrantzitsua izan da. Hiru oñatiar geunden amaieran eta azken txanpa horretan bakoitzak berea egin eta ea nork irabazi izan da. Horrela geratu gara eta azken txanpa horretan erabaki da lasterketa.

MARISOL RAMOS | IRABAZLEA

"Lasterketa hau ematen duena baino gogorragoa da, niretzat behintzat"

Esan liteke erabateko kontrolpean daukazula lasterketa hau, ez baita irabazten duzun lehen aldia, ezta?

Nik ez nuke horrenbeste esango. Izan ere, agian ez du ematen baina lasterketa hau oso gogorra da. Elorregiraino berehala heltzen zara eta lasai askoan joaten zara, gainera, baina Oñatira arteko zatia luzea eta gogorra suertatzen da, benetan. Azkenean, ordaindu egiten da hasierako zati hori, bai.

Bigarren erdia, beraz, gogorrena da?

Bai, halaxe da, oso gogorra da eta gaur, gainera, gehiago. Niri behintzat gaurkoa ez zait hain errez egitekoa iruditu.

Prestakuntza berezirik egiten duzu lasterketa



J.B.

honetarako?

Ez, ezer berezirik ez. Denboraldi hasieran gaude. Entrenamenduekin orain hasi naiz ni baina bereziki kros eta pistarako nabil prestatzen, ez mota honetako lasterketarako. Datorren astean Donostiara joango naiz 15 kilometroko lasterketa bat egitera eta hori ere prestakuntza moduan hartuko dut. Lehiaketak ez dira prestakuntza baina bueno... Esan daiteke orain nabilela hasten, bai.

Lortutako markarekin gustura?

Bai, baina nik normalean lasterketa honetan ez diot markari begiratzen. Diferentzia handiak egoten dira lasterketa honetan, urte batetik bestera. Gaur, beste barik, ateratu egin naiz eta ikusi, beste barik, zenbatean egin nezakeen. Ez naiz ibiltzen etengabe erlojuari begira, denborak kontrolatzen. Bukatuta, nahikoa zen niretzat gaurkoan.

OHOREZKO ERREGIONALA

Bergara gehiago izan arren, ate aurrean larregi barkatu eta lehia galdu zuen

Hainbat aukera huts egin bazituen ere onena izan zen Iñigo Macho; Imanol Cabanillasena izan zen gola, Jose Felix de Benitori eskaini zion

EMAITZA

BERGARA

1-2

TRINTXERPE

FITXA TEKNIKOA

Bergara: Soto, Apellaniz (Retes 60. min.), Crespo, Urrutia, Nafarrate, Aranburu (Elorriaga 82.min.), Cabanillas (Linazisoro 85.min.), Beitia, Macho, Baltzategi (Pedro 65. min.) eta Alonso (Plazaola 68. min.).

Trintxerpe: Asier, Diaz (Manterola 70. min.), Madariaga, Hipolito, Caceres (Otabitarte 73. min.), Jimenez, Gonzalez (Sepulveda 70. min.), Giraldez (Arrazola 71. min.), Benitez, Nieves eta Iribas (Jakob 75. min.).

Epailea: Ayesa jauna. Lan ona.

JOKIN BEREZIARTUA | BERGARA

Bergara Txintxerpe baino gehiago izan arren hiru puntuek alde egin zuten zapatuan Agorrosindik. Etxekoena izan ziren partiduko aukera garbienak baina ez ziren batere fin ibili ate aurrean, eta jakina da futboleko barkatzen duenak ordaindu egiten duela gero. Partidua hasi aurretik minutu bateko isilunea egin zuten Jose Felix de Benitoren oroimenez, baina mahoneroek ezin izan zioten garaipena eskaini.

Joko tratatuarekin hasi zen partidua, jabe argirik gabe. Aukerarik ez, eta Trintxerpeko atze-



Iñigo Macho baloia eramateko lehian; etxekoen onena izan zen. | JULIO CALLEJA

lari baten akats baten ondoren Imanol Cabanillas kapitainak baloia ondo gurutzatu eta partiduko lehen gola egin zuen 15. minutuan (1-0). De Benitori eskaini zion gola Cabanillasek.

Berdinketa 40. minutuan

Dena zuen alde etxeko taldeak. Eurena zen baloiaren jabetza eta 2-0koa egiteko aukeraren bat edo beste izan zuten lehen zatia amaitu aurretik. Hala ere, jokaldi

baten defentsa erlaxatu egin zen eta zuloa ederto aprobetxatu zuen Trintxerpeko aurrelari batek 1-1koa egiteko. 40. minutuan heldu zen berdinketa eta atsedenal-di aurretik, 43. minutuan, Iñigo Macho aurrelariak aukera ona izan zuen Baltzategik egindako pase eder baten ostean. Gora bidali zuen baloia.

Bigarren zatian golaren bila irten zen Bergara eta aukerak bata bestearen ostean heldu ziren. Machok izan zituen aukera garbienak baina zapatuan ez zen fin ibili ate aurrean. Golik egin ez bazuen ere txalotzekoa izan zen aurrelariaren lana, etxekoen artean onena izan zen; ez zen geratu eta haren mugimenduekin defentsak zoratu egin ziren.

Trintxerpek estrategia jokaldietan sortzen zuen arrisku bakarra. Horren adibide da 70. minutuan atzelari batek bakar-bakarrik errematatu zuen kornerra; eskerak ez zuela asmatu. Baina 78. minutuan jokaldi isolatu baten kanpokoek gola egitea lortu zuten: eskuin hegaleko erdiraketa baten ostean erremate ederra egin zuen Trintxerpeko jokalaririk batek eta erantzun ederra eman zion Jon Soto atezain bergararrak. Hala ere, aldaratzea aprobetxatu zuten kanpokoek 1-2koa egiteko.

Hortik aurrera buruarekin baino bihotzarekin saiatu zen Bergara berdinketa lortzen eta Machok –berriro ere– izan zuen beste aukera bat, baina argi geratu zen zapatuko ez zela bere eguna. Hurrengorako lezioa ikasi dute *Neka*-ren mutilek: partidua aldeko dagoenean aukerak amaitu egin behar dira.

OHOREZKO ERREGIONALA

Ondo jokatuz irabazi zuen Mondrak Zarautzen (2-3)

J.B. | ARRASATE

Lutxo Iturrino pozik zegoen lehia amaitu ostean: "Ondo jokatuz irabazi dugu, merezimenduz. Atzean dut beldurra, golak errazegi sartzen dizkigutelako. Defentsa indartzea da lehentasuna, aurrean ondo gabiltza-eta". Zarautz aurreratu zen markagailuan, baina 2-1koa emaitza justuena zenean, Oier Zabaleta Arrasateko atezainaren akats baten ondorioz 2-2koa heldu zen lehia azken txanpara. Eskerrak azken minutuetan Julen Zaitetik falta baten aldaratzea aprobetxatuz egindako golak justizia ezarri zuela (2-3).

OHOREZKO ERREGIONALA

UDAK 2-1 galdu Hernanin, justuena berdinketa zenean

J.B. | ARRASATE

Galdu arren pozik zegoen Alberto Albistegi bere taldearen lanarekin: "Lehia parekatua izan da eta liderraren etxean aurpegia eman dugu. Berdinketa litzateke emaitzarik justuena". Hernani 2-0 jarri zen aurretik eta Jokin Badillo erdilarriak 2-1koa jarri zuen. Azken minutuetan aukera ederra izan zuen UDAK, baina ezin asmatu. Hernani Hirugarren Mailara igotzeko faboritoetako bat da Albistegiren arabera: "Taldea beterranoa eta indartsua dute eta ziur goialdean arituko direla denboraldi osoan".



OHOREZKO ERREGIONALA

JAGOBA DOMINGO

"Partidu borobila" egin zuen Aloñak

Emaitzak zalantzarako tartea uzten badu ere (3-2), merezimendu osoz eta estutasunik gabe irabazi zuen atzo Aloña Mendik Oartzunen kontrako partidua. Andoni Azkargorta, pozik: "Partidu borobila egin dugu, defentsan sendo eta erasoan orain arte baino hobeto". Kontrolpean izan zuten partidua eta azken minutuetan ere ez zuten sufritu. Mikel Palaciossek bi gol egin zituen eta bestea, berriz, Aritz Garmendiak.

ERREGIONAL PREFERENTEA

Antzuolak goialdean jarraitzen du Azkoitian irabazi ostean (0-2)

Antzuolak sailkapeneko goiko postuetan jarraitzen du zapatuan Anaitasunaren aurka irabazi ostean. 0-2 nagusitu ziren antzuolarrak Azkoitian eta hiru puntu horiei esker bigarren postuan jarraitzen dute lider dagoen Amaiak Bat taldearen puntu berberekin. 10 puntu dituzte bi taldeek hiru lehia irabazi eta bakarria berdindu ostean.

EMAKUMEEN 2. MAILA

Mondrak ezin izan zuen ezer egin lider dagoen Osasunaren aurka (2-1)

Egubakoitz goizean jokatu zuen Mondrak seigarren jardunaldiko partidua. Andoni Ezkurraren neskek, partidua ongi egin arren, ezin izan zuten punturik atera Tajonarretik; gol bakarragatik galdu zuten arrasatearrek. Osasunak lider sendoa dela erakutsi zuen, izan ere, sei partidutik bakarria galdu eta beste guztiak irabazi ditu.

GAZTEEN EUSKADIKO LIGA

Lengokoak taldeak hiru puntuak eraman zituen Ibarrik (0-1)

Gazte mailako Aretxabaletako taldeak galdu egin zuen Lengokoak taldearen aurka. Egubakoitz arrasaldean jokatu zuten partidua, baina UDako mutilek ezin izan zuten Ibarrik zeuden jarraitzaileei zubira begirako albiste onik eman. Donostiarrek eraman zituzten hiru puntuak. Hamargarren postuan daude orain Aretxabaletako mutilak.

GAZTEEN OHOREZKO MAILA

Mondrak irabazi, Aloñak berdindu eta Bergarak galdu

Gazteen ohorezko mailan ibarreko ordezkarien artean denetarikoa izan ziren emaitzak: Mondrak 2-1 irabazi zion Debako Amaiak Bat taldeari, Aloña Mendik hutsean berdindu zuen Ordizian eta Bergarak, azkenik, 2-0 galdu zuen Zubietako Ostadar taldearen aurka. Galdu arren, Bergara dago ondoen sailkapenean, bosgarren postuan.

KADETEEN OHOREZKO MAILA

Jardunaldi beltza gure lau taldeendako: UDAK bakarrik atera du zerbait

Oso jardunaldi txarra izan da kadeteen ohorezko mailako gure taldeendako: Mondrak Lagun Onak-en aurka (3-0), Aloñak Lazkaoren kontra (1-4) eta Bergarak Realeko bigarren taldearen aurka (1-3) galdu dute. Aretxabaleta ere ez zen oso fin ibili eta hutsean berdindu ostean puntu bakarria lortu zuen etxean Beasainen aurka.

Une erabakigarrietan kale egin zuen Aitor Mendizabalek

Pilotari antzuolarra lau t'erdiko txapelketatik kanpo geratu da; harmailetan bere aldekoak izan ziren nagusi

EMAITZA

IKER ARRETXE

22-13

AITOR MENDIZABAL

JOKIN BEREZIARTUA | ANTZUOLA

Profesional mailara saltoa eman zuenetik Aitor Mendizabalek debuta egin zuen atzo lau t'erdiko txapelketan. Bada, final hamaseirenetan agurtu behar izan da Mendizabal txapelketatik eta beraz, hurrengo kanporaketan ez du Titin III-aren kontra jokatzeke aukerarik izango. Ez zen animo faltagatik izango, izan ere, Eibarko Astelena pilotalekuan pilotari antzuolarraren aldekoak izan ziren nagusi, zalantza barik. Hala ere, ezin izan ziren garaipena eskaini.

Emaitzak ez zuen kantxan ikusitakoa islatu; une erabakigarrietan egin zuen kale Antzuolako pilotariak. Adibidez, hiru tantora gerturatu zenean (15-12) pasa egin zuen Aitorrek, eta aurretik ere sake bat motz geratu zitzaion. Une horietan asmatu izan balu partidu amaierara arte aukerekin helduko zen, baina ez zuen bere eguna izan. Era berean, baina, Iker Arretxek hasieratik erakutsi zuen faborito zela, Aitorrendako oso arerio gogorra.

Mendizabal, deseroso

Izan ere, pilotari nafarrak ez zion utzi Aitorri bere jokoa egiten. Deseroso, lekuz kanpo aritu zen oro har eta horrek eramatekoak ziren pilota batzuk galtzera eramatu zuen Mendizabal.

Oso erritmo biziarekin hasi zen partidua, tanto ederrak ikusteko aukera izan zen. Hiruna berdinduta zeudela hasi zen Arretxe II.a markagailuan aldentzen. Bost tanto egin zituen segidan



Aitor Mendizabal jokoan, atzoko partiduan. | JULIO CALLEJA

(8-3) eta hortik amaierara arte aurretik joan zen (10-6/14-7/15-12/18-13/22-13).

Bizi hasi, motel amaitu

Partiduak aurrera egin ahal erritmoa moteltzen eta galdutako pilotak ugaritzen joan ziren. Hala, bata besteari emandako aukerak ugaritzen joan ziren baina inork ez zituen opari horiek aprobe txatu. Guztira, 247 pilotakada izan zituen norgehiagokak, asko lau t'erdiko lehia baterako. Mate-

rialari dagokionez, bote altukoak aukeratu zuen Arretxek eta, adituen arabera, modalitate horretarako pilota itsusia da.

Azkenik, polemikarako tartea ere izan zen. Mendizabalek birritan egin zuen tupust Arretxerekin; lehenari buelta ematea erabaki zuen epaileak baina bigarrenean ez zuen halakorik adierazi. Zebat jarraitzailek txistu egin arren, ez zen ezer salagarririk izan Arretxeren jarreran. Animo Aitor, datorren urtean izango da.

Garaipen ederra lortu zuen MUK talde ona duen Sekyren aurka (75-64)

J.B. | ARRASATE

Garaipen ederra lortu zuen MUK zapatuan. Seky taldea izan zuen aurrean, oso jokalaria onak dituen taldea eta gainera, aurten hiruzpalau fitxaketa on egin dituen. Indar handia dute bai kanpotik zein barrutik, baina arrasatearrek jakin zuten Josu Larreategi entrenatzailearen aginduak kantxara eramaten. "Gure planteamendua

oso argia izan zen. Ez genuen nahi hiruko saskiratzerik eta Ogeta jokalaria kenduta, beste guztiak kontrolpean egon ziren".

Iker Barberoren lana gorai-patu zuen Larreategik: "Leku guztietan egon zen, taula azpian errebotek harrapatzen, saskiratzen, baloiak errekupeatzen, baloiak ikutzen... Partiduko jokalaririk onena izan zen".



Iker Barbero zapatuan. | JULIO CALLEJA

Nuptseko gailurra jotzeko lehen saiakera egin dute

Iñurrategi, Vallejo eta Zabalzak atzo hasi zuten bidea; lau eguneko abentura izatea espero dute

J.B. | ARRASATE

Naturgas/BBK Nuptse 2012 espedizioak atzo ekin zion ton-torrera iristeko lehen saiakerari. 1961ean britainiarrek zabaldutako bidetk eta alpetar erara igo nahi dute gailurrera -ia 8.000 metrora- Alberto Iñurrategik, Juan Vallejok eta Mikel Zabalzak. Hau da, saiakera bakarrean eta inolako laguntzarik

gabe, oxigenorik eta soka finkorrik gabe eta aurretik ezarritako kanpalekurik gabe. Atzo irten ziren oinarritzko kanpalekutik 4.600 metrotara -eta asmoa da gailurrera Nuptseko hegoaldeko hegaletik igotzea. Bost kilometroko zabalera eta 2.500 metroko desnibela ditu helburuak eta abentura lau egunetan burutzea espero dute.



Vallejo, Iñurrategi eta Zabalza. | NATURGAS/BBK NUPTSE 2012

Ford Mugarrik eta Soraluze BKEk irabazi, joko onik gabe

Iturripen 31-26 nagusitu ziren arrasatearrak; Labegarietan, 36-32 izan zen azken emaitza

J.B. | ARRASATE

Ford Mugarrik zein Soraluze BKEk ez zuten joko borobilik egin eta aldeko emaitza izan zen egubakoitzean jokatutako partiduen ondorio positiboena.

Ford Mugarrik, gaizki jokatutako arren, 31-26 menderatu zuen Escolapios: "Emaitzarekin pozik nago, baina ez jokoarekin. Nire taldea askoz gehiago emateko gai da eta gehiago eskatu behar diet. Defentsan zein erasoan eskas aritu ginen; ondo egonez gero alde handiagoarekin irabazteko moduko partidua zen", uste du Ane Herrerok. Bestalde,

lesio garrantzitsuak ditu taldeak: Arkaitz Masip, Pello Olabarria, Kepa Isasmendi eta Oskar Macias lesionatuta daude.

Soraluce BKEk ere ez zuen partidu borobila egin baina estutasun handirik gabe gailendu zen Usurbilen aurrean (36-32): "Bi zatien hasierak motela egin ditugu baina gure jokoa berreskuratu dugunean lau edo bost goleko alde lortu dugu. Gero arazo handirik gabe mantendu dugu alde hori. Partiduz partidu goaz, denboraldi hasieran ahalik eta puntu gehien batzeko", dio Josetxo Muniategik.

Kortazar garaile zapatuan, Gorbeia Suzien probaren lehen edizioan

Oihana Kortazar korrikalari elgetarra faborito moduan heldu zen zapatuan Gorbeia Suzien probaren lehen edizioa eta ez zuen hutsik egin. Irabazi arren Kortazarrek ez zuen ibilbideaz gozatu, arazo gastriko batzuk zirela-eta. Elgetarra hasieratik jarri zen lasterketa buruan hiru ordu eta zazpi minutu behar izan zituen ibilbidea osatzeko.

Iban Velasco hamaikagarren izan da Pekingo Tourrean

Iban Velasco txirrindulari arrasatearrak lan ona egin du denboraldiko azken proban. Pekingo Tourrean hartu du parte eta hamaikagarren postuan amaitu du sailkapen orokorrean, Samuel Sanchez taldeko buruaren denbora bera eginda. Euskaltelekin parte hartu duen azken itzulia izan da; abenduan amaitzen zaio kontratua.

ZIKLOKROSA

Arrikruz Oñatiko Kobak ziklokros taldea denboraldi berrirako prest

Zapatu goizean aurkeztu zituen taldeak aurten ariko diren zazpi ziklistak

ANDER MONEDERO | OÑATI

Aloña Mendi txirrindularitza elkarteko ziklokros taldeak aurkezpenean egin zuen zapatuan bere babesle nagusiaren egoitzan, hau da, Oñatiko Arrikruz koban. Zapatuko aurkezpenean, taldeko sei txirrindulari, entrenatzailea eta bi mekanikoak ezagutzera eman zituzten; taldeko emakume bakarrak, Maider Usandizagak, ezin izan zuen aurkezpenean

egon. Ziklokros taldearen bigarren denboraldia da eta, aurten, bi ziklista gehiago izango ditu, biak kadete mailan.

Denboraldi berri honetan, Arrikruz ziklokros taldea osatzen duten zazpi ziklistek Euskadiko Txapelketa jokatu dute, baina oñatiarren lehenengo hitzordua aste bukaera honetan, Burgoseko Medina del Pomar herrian izan da. Euskadiko Txapelketan, nor-

malean, ziklista bakoitza bakar-bakar joaten da, baina Aloña Mendi txirrindularitza elkartekoek taldea egitea erabaki zuten ziklistek babes handiagoa izateko.

Oñatiko taldeko ziklistak hiru mailatan lehiatuko dira hasi berri den denboraldian: kadete, junior eta 23 urtez azpiko mailatan. Maila bakoitza adinaren arabera da eta lasterketaren iraupena horren arabera izaten

da: kadeteetan 25 minutukoak izaten dira, junior mailan 40koak eta 23 urtez azpikoetan 50 minutukoak.

Aurreko denboraldian Arrikruz Oñatiko Kobak taldeko kideek emaitza oso onak lortu zituzten eta aurten aurreko urtean lortutakoa gainditzeko helburua dute. Mikel Albedik kadete mailako Espainiako Txapelketan parte hartzea lortu zuen, Aitor Umerez Legazpiko frogan 23 urtez azpikoetan hirugarren sailkatu zen eta Maider Usandizagak Euskadiko txapeldunorde izatea lortu zuen.

Euskadikoan 19 froga

Urriaren 27an Lezaman (Bizkaia) hasiko dute txirrindulari oñati-

rrek 2012-2013 denboraldiko Euskadiko Txapelketa eta urtarrilaren 27an Ispasterren bukatuko dute. Tartean, ziklistek 17 froga izango dituzte, horietako bat, abenduaren 23an, Oñatin.

Euskadiko Txapelketak dituen 19 frogetan, hiru motatako lasterketak izango dituzte: lasterketa denak Euskadiko Txapelketarako puntuagarriak izango dira baina horietako batzuek -Laudio, Muskiz, Elorrio eta Itsasondo-koak- Superprestigio txapelketarako puntuak batzeko ere balio dute; eta Karrantza, Asteasu eta Igorrekoak nazioarteko txapelketak izango dira. Beraz, aste honetatik urtarrilaren bukaera arte erronka polita izango dute zazpi ziklista oñatiarrek.



Arrikruz taldearen ziklistak zapatuko aurkezpenean. | JULIO CALLEJA

KEPA UMEREZ | ALOÑA MENDI TXIRRINDULARI ELKARTEA

"Ziklokrosean aritzeko eskaera zegoen eta behar hori asetzeko sortu genuen taldea"

Aloña Mendi txirrindularitza elkarteko ziklokros taldearen bigarren denboraldiaren aurkezpena egiteaz arduratu zen Kepa Umerez.

Aurreko urtean emaitza oso onak lortu zenituzten, aurten ere horiek errepikatzeko asmoz?

Aurreko urtean gazteek erakutsitako maila mantentzea da hasierako helburua. Baina hori baino askoz ere garrantzitsuagoa da gazteek kiral honekin gozatzea.

Beraz, ziklokros zaletasuna bultzatzea da Arrikruz taldearen helburu nagusia?

Bai, txirrindulari gazteen artean ziklokrosean aritzeko eskaera zegoen eta behar hori asetzeko sortu genuen



taldea. Oraingoan, taldea zazpi txirrindulari osatzen dute.

Ze mailatan aritzen dira txirrindulariak?

Maila desberdinetan ari dira, kadete mailan lau txirrindulari ditugu, bi junior mailan eta 23 urtez azpiko mailan beste bat.

Hurrengo astean Burgosen da lehenengo froga eta gero Euskadiko Txapelketarekin hasten zarete.

Bai, lehenengo froga Burgoseko Medina del Pomar herrian izango da eta urriaren 27tik aurrera Euskadiko Txapelketa hasten da. Denboraldia bukatu arte, astebururo lasterketak izango ditugu.

Egutegi zorrotza du Euskadiko Txapelketak?

Bai, oso zorrotza da. Ziklistek astebururo izango dute frogaren bat eta gehienetan bi froga izango dituzte, bat zapatuan eta bestea domekan.

MENDI BIZIKLETA

Parte-hartzaileak gustura Iban Altuberen omenezko martxarekin, gogorra baina ederra izan omen zen

145 lagunek hartu zuten parte, eta txikientzat ere egin zuten irteera, Oñatiko auzoetan barrena

JULEN IRIONDO | OÑATI

Urte eta erdi Iban Altube hil zela eta lagunek gogoan izaten jarraitzen dutela erakutsi nahi izan diote beste behin, berari egitea hainbeste gustatzen zitzaiona eginez gainera.

Pedalei eragiten hasi aurretik omenalditxo egin zioten Altuberi. Bere argazkiaren aurrean

aureskua dantzatu zioten arreba zuenak eta lehengusina batek, eta lore sorta eman alargunari. Txalo zaparradak eta etxafuegoek adierazi zuten martxari ekiteko garaia, eta ordutik amaitu arte atsedean gutxi izan zuten txirrindulariek, gora eta behera.

Berezaio auzotik Urtiagain aldera, handik Kortakogainera

eta Arrikruzera, eta Araotz, Ugastegi, Haitzgain inguruan hara eta hona ibili ostean Urrexolara, eta handik herrira. Lokatzak eta harri bustiek zerbait zaildu zuten ibilbidea, baina min hartutakorik ez zen izan. Haitzgainera bidean zegoen Infernuaren izeneko aldapan berotu ederra hartu zuten denek, eta ibilbidean

jaitsiera politikak ere baziren.

Umeentzako sei kilometroko irteera ere egin zuten eta, guraso eta guzti, 100 inguru izan ziren, Amets Txurruka ere bertan zela. Markelen lagunartean eta herriko mendi bizikleta zaleek antolatuta zuten eguna, eta Aspanogi elkartearen eta Udalaren laguntza izan zuten, besteak beste.



Iban Altube zenari omenaldia egiten, irteera aurretik. | JULEN IRIONDO



Paraje ederretan ibili ziren parte-hartzaileak. | JOSEBA GOITIA

AXIER IRAETA
OÑATI



"Urrexola eta gero pentsatzen behera izango zela eta zera, beste aldapa bat sartu digute. Leher eginda bukatu dut, gogorra izan da baina oso polita ere bai".

SERGIO OUTEIRIÑO
BERGARA



"Hamarreko taldea etorri gara Bergararik. Oso ibilbide polita eta antolakuntza primerakoa, ondo markatuta. Jaitsiera bat teknikoa, baina beste dena disfrutatzea".

UNAI URBINA
BERGARA



"Kostata baina iritsi gara. Gogorra egin zait, ez gaude-eta oso fuerte. Jaitsiera politikak zituen, eta igoerak ere bai. Atsedean gutxi. Paraje ederretan ibili gara".

FUTBOLA

Enara Agirre | Aloña Mendi futbol taldeko psikoterapeuta

"Pertsona baten onena ez dugu aterako modu txarrak erabilita, ez kirolean, ez lanean..."

- ▶ Enara Agirre denboraldi hasiera ezkerro dabil Aloña Mendi futbol taldearekin lanean
- ▶ Etxean jokatzeko dutenean egiten dute Aloñakoek saioa psikoterapeutarekin, goizetan

XABIER URTZELAI | ARRASATE

Enara Agirre (Antzuola, 1980) izan da aurtengo Aloña Mendi futbol taldeak egin duen *fitxaketa* nabarmena. Taldeari laguntzera etorri da, ez horrenbeste arlo fisikoan, eta bai arlo psikologikoan. Agirrek Antzuolan egiten du lan, kontsulta propioa du, eta domeketan, Aloñak etxean jokatzeko duenean, elkartzen da jokalariekin. Goizetan egiten du haiekin saioa, Oñatin, baina futbol zelaitik urrun. **Zelan iritsi zitzaizun Aloñako taldean jokatzeko proposamena?**

Taldeko entrenatzaile Andoni Azkargortak egin zidan proposamena, laguna dut-eta. Hark bazekien zertan egiten dudana, eta zelan. Eta taldeari zelan lagun niezaiokeen galdetu zidan. Izan ere, azken bi urteotan taldea goitik behera aldatu da, 16 jokalaria igo dituzte gazte mailatik, eta hainbat beteranok taldea utzi dute. Hala, une aproposa zen arlo psikologikoa apur bat lantzeko. Oso pozik nago.

Zuretako ere esperientzia berria izango da; zure egunerokoa kirolera eramatea, alegia.

Futbola gertutik jarraritzen dut, ni ere jokalaria izandakoa naiz [Bergaran eta Antzuolan jokatu zuen, eta baita areto futbolearen ere], eta etxekoekin edo familia-koekin sarri komentatu izan dut taldeekin psikologikoki lan eginda zenbat gauza hobe daitezkeen. Baina hor geratzen zen, komentario hutsean. Eta orain praktikan jartzeko aukera dut; bai, niretako ere esperientzia berria da.

Jokalariei jarrera oso garrantzitsua izango da eurekin batera halako lan bat hasteko orduan.

Zalantza barik, baina bai hemen eta baita kontsultan terapia egiten dudanean ere. Sarri etortzen zait jendea esanaz etxeko batek laguntza beharko lukeela, lagun batek... Baina norberak ez badu nahi laguntzerik, jarrera positiborik ez badu alferrik da, ezin da askorik egin. Azken batean, nire lana ez da ondokoari esatea zer egin behar duen, edo aholkuak ematen ibiltzea. Nire lana oinarritzen da ondokoari laguntzen harendako onena den hori bilatzen; hau da, bere bidea aurki dezan laguntzen diot. Hala, lan hori egiteko ez badago jarrera positiborik, alferrik da.

Zein da egiten duzun lana?

Proiektu berria izanda, arlo psikologikoa apur bat lantzea da asmoa, talde barruko komunikazioa hobetzea... Horretarako, saioetan berba egiten dugu, ondokoak esateko duena entzun; talde

bateko kide garen neurrian, taldeari ze ekarpen egin diezaioketgun hausnartzen dugu, momentu konkretu baten izandako gertaera baten aurrean zelan sentitzen garen... Taldeka ariekat egiten ditugu, zerbait irakurri eta horren gaineko komentarioak egin... Azken batean, tartetxo bat hartzen dugu gutako bakoitza zelan gauden ikusteko eta horrek taldean duen eraginaz jabetzeko. Ordu eta erdiko saioak egiten ditugu, eta, normalean, beti luzatzen dira apur bat.

Izan ere, egun, arlo fisikoak, teknikoak eta taktikoak zaintzen dira izugarri. Baina psikologikoa?

Albora uzten dugu arlo psikologikoa, ez zaio ematen garrantzi handirik. Eta halako talde batean lan hau egin ahal izatea luxua da. Jokalariek ere euren partetik asko jartzen dute; kontuan hartu saio hauek entrenamendu orduetatik kanpo egiten dituztela, etxeko partidua jokatu aurretik elkartzen gara, goizean. Eta jokalariei jarrera positiboa izango ez balitz, nirea bakarrik hutsa izango litzateke, berbaldi bat. Baina ez, bestelako dinamika izaten dugu saioetan.

Entrenatzailearekin izan behar-reko hartu-eman etengabea izango da.

Bai, saiatzen gara. Saioetan irtearen diren balioak, konpartitzen ditugunak, horiek ere entrenatzailearekin partekatzen ditugu, hura ere bide beretik joan dadin. Izan ere, jokalariei lana alde batetik badoa eta entrenatzailearena beste batetik... zaila izango da elkarlana.

Adibide praktiko bat jartzearen. Realaren eta Athleticen arteko azken derbian, besteak beste, psikologikoki indartsuen zegoenak irabazi zuela esango nuke.

[Barre] Bai, ni ere iritzi berekoa izan naiteke. Bi taldeek liga zelan hasi duten ikusita, indartsuen zegoenak irabazi zuen. Eta indartsuen diodanean ez naiz arlo fisikoaz ari, eta bai psikologikoa. Izan ere, maila horretan fisikoki guztiak antzera daudela esango nuke. Baina mentalki zelan zauden, ze lasaitasun duzun, talde barruan ze saltsa dauden... Eta saltsa horiek, gainera, kanpora irteten hasten badira, ba, lagungarria ez da, hori seguru. Gauza horietaz guztietaz deskonektatzea eta zure lana ondo egitea ez da batere erraza.

Ez dakit entzun duzun Athleticen aldagelatik filtratu duten Bielsaren azken berbaldia. Bigarren finala irabazi ostean jokalariei esan ziena



Enara Agirre, Azkoagain futbol zelaietan. | ARATZ LOSADA

[Eguaztenean egindakoa da elkarriketa, Bielsaren azken filtrazioa atera zuten egun berean].

Ez, ez dut entzun, baina irakurri egin dut zerbait. Talde barruko trapu zaharrak horrela aireeratzeak ez du batere mesederik egiten, eta entrenatzaileari halako garrantzia ematea ere... Protagonismo handiegia hartzen dabil entrenatzailea, eta taldearendako hori ere ez da ona. Ez dakit nor dagoen horren atzean, baina mesede gutxi.

Taldeari mezu positiboak ematen dizkiolako, psikologikoki lan ona egiten duelako... Kirol munduan nor duzu erreferente?

Pep Guardiola sekulako lana egin zuen. Jokalariekin beti jokatu du errespetuz, ahalegin du da protagonista ez izaten eta urte hauetan izan diren ika-miketean nahiko lasai mantendu da beti. Nik uste dut hori dela lan egiteko modu onena; izan ere, orain irten berri da, esaterako, Espainiako igeriketa sinkronizatuko Ana Tarresen kasua. Ez dut uste, inondik inora, elitean lan egitea aitzakia denik kirolariak errespetu barik tratatzeko, edo modu txarrez estutzeko. Nik, behintzat, ezin dezaket ulertu zelan atera dezakegun pertsona baten onena modu txarrenak erabilita. Momentu konkretu batean lor daiteke, modu txarren bat erabilita, norbait motibatzea; hau da, errebote efektua lortzea. Baina horrek ez du luzera begira balio.

Baina, neurri batean, barneratu dugu elite maila oso gogorra dela eta halakoak onartzen direla.

Nik ezin ditut onartu, baina ez elite mailako kirolean, eta ezta gutako edozeinen egunerokoa ere. Ez lantegian, ez familian, ezta seme-alabekin ere. Harreman batetik onena lortu nahi denean ezin dira modu txarren erabili, kontrakoa lortzen delako.

Amaitzeko, Aloña Mendik hirugarren jardunaldian lortu du ligako lehen garaipena. Talde gaztea izanda, jokariengan igartzen zen urduritasun puntu bat?

Igartzen zen, bai. Egia da gure lana ez dela epe motzera begira egiten dena, aste batetik beste-erako, baina jokariengan igartzen zen. Hasierak guztiendako izaten dira zailak, denboraldi-aurrean lana ondo egin arren beti egoten dira zalantzak, zelan hasiko ote garen. Eta lehenengo garaipenak eman die beste jarrera bat, beste energia bat, talde moduan gehiago batu ditu.

"Jokalariek lanerako jarrera positiboa erakustea ezinbestekoa da"

"Proiektu berria izanda jokalariekin komunikazioa lantzea da asmoa"

"Saioetatik ateratzen duguna entrenatzailearekin partekatzen dugu"

"Jokalariei igartzen zitzaie urduri zeudela irabazi ez izanagatik"



Bi neskatila jostailu-gelan. | SARAH ROSS

Inbidia sentimendu oso naturala da haurren artean

Kontrolatzen ikasteko miresmenetik ezberdintzen erakutsi behar diegu

LARRAITZ ZEBERIO | ARRASATE

Inbidia sentimendu oso naturala da haurren artean. Besteak duena nahi izateak, eta ezin lortu izanak mina eta zoritxarra sortzen ditu. Horrek amorrualdiak eta haserrealdiak sortzen ditu. Melanie Klein psikoaalista austriarrak ikerketak egin ditu gaiaren inguruan, eta dio helduon lana dela haurrei frustrazioak eta jarrera inpultsiboak kontrolatzen erakustea.

Inbidia bizitzako lehenengo urteetan sortzen dela dio Kleinek, eta kontrolatzen ikasteko lehenengo bidea sentimendua identifikatzea dela dio. Haurrei inbidia eta admirazioaren artean bereizten erakutsi behar diegu, eta antsietatea kontrolatzen lagundu behar diegu. Azaldu behar zaie ezin dela beti nahi dugun guztia lortu.

Inbidia kontrolatzea bizitza osoko erronka da, eta norberaren

gaitasunak baloratzen ikastea oso lagungarria da. Horregatik, erakutsi umeei besteen gaitasunak miresten, baina baita norberarenak ere. Lagundu euren sentimenduak ulertzen, eta azpimarratu ondo egiten dituzten gauzak. Inbidia arazoak dituzten haurren gurasoek maitasun eta pazientzia dosi handiagoa behar dute, bestela defentsa mekanismoak garatuko dituzte; bestea zein norbera gutxietsiko dute.

Gomendio batzuk ikasi nahi ez duten umeak motibatzeke

L.Z. | ARRASATE

Hasi da ikasturtea, eta zenbait gurasok buruhauste handiak dituzte seme-alabek etxeko lanak egitea lortzeko. Nola lortu eskola garaiko ume batek ikastea? *Entrepadres.com* atarian hainbat gomendio ematen dituzte. Lehenengo eta behin itxaropena ez galtzeko eskatzen diete gurasoei.

Errutina ezarri

Etxeko lanak egiteko ordu eta toki zehatza ipintzeko aholkua ematen dute; ikasteko ohitura hartzeko ezinbestekotzat jotzen dute. Ikasteko espazioak, gainera, lasaia eta eroso izan behar du. Umeak eskura izan behar ditu beharoko dituen materiala guztiak, eta gainerako anai-arreben jolasengandik babestu behar dugu. Lortu behar

dugu ikasten ari den bitartean arreta galtzeko aukera guztiak ekiditea.

Telebista eta irakurketa

Ikerketa asko egin dira, eta frogatu dute telebista larregi kontsumitzeak eragin kaltegarria duela. Hala, neurtu zure seme-alaben telebista kontsumoa, eta alde aurretik aukeratu zer ikusiko duten. Modu berean ez da egokia etxeko lanak egiten ari den bitartean telebista martxan edukitzea. Umea ikasten ari den bitartean zeuk ere egin antzerako jardura bat -irakurri, idatzi, bere eskolako lanak gainbegiratu...-. Helburua da ikasketetarako gustua hartzea. Azaldu horren garrantzia eta izan eredu. Oso garrantzitsua da ere irakurzaletasuna bultzatzea.



Bi neskatila etxeko lanak egiten. | CESAR ASTUDILLO

Zelako gurasoak gura dituen azaltzen du haur batek guraso guztiei idatzitako eskutitz batean

L.Z. | ARRASATE

Ttiklik.com atarian aurkitu dugu eskutitza, eta bertan hainbat eskaera egiten dizkie haur batek munduko guraso guztiei.

Ez egin garrasi

Hori da eskutitzean egiten den lehenengo eskaera: "Garrasi egiten duzunean gutxiago errespetatzen zaitut. Gainera, niri ere garrasi egiten erakusten didazu, eta nik ez dut nahi".

Hurrengo eskaeren artean daude: jokatu nirekin adeitasunez, zure lagunekin bezalaxe; zerbait gaizki egiten dudanean ez galdetu zergatik egin dudanez ze batzuetan nik neuk ere ez dakit; ez esan gezurrik nire aurrean eta ez eskatu nik zuregatik gezurrak esatea -estualdi batetik ateratzeko bada ere- ze esaten dituzun gauzetan fedea galtzen

dut, eta gaizki sentitzen naiz; onartu akatsa, zerbaitetan okertu zarenean horrela zureganako dudak iritzia hobetu egingo da, eta nire akatsak onartzen ere erakutsiko didazu; ez ni inorekin alderatu, batik bat nire anai-arrebekin; utzi nire kabuz gauzak egiten; ez eman aginduak beti, izan ere aginduak eman beharrean gauzak eskatuko bazenizkit azkarrago eta gusturago egingo nituzke; ez aldatu iritziz hain azkar egin behar nukeenari buruz; bete agindutako guztia eta saria agintzen badidazu eman eta zigorra bada baita ere; saia zaiten ni ulertzen eta laguntzen akaso zuretzat garrantzirik ez duen arazo batek niretzat garrantzi handia du; ez eskatu zuk egiten ez duzuna egiteko; ez eman eskatzen dizudan guztia, eta maita nazazu eta esaniezaidazu.

Autoritarismotik autoritatean oinarritutako heziketara

L.Z. | ARRASATE

Askotan, zigorrak eta arauak ezartzea seme-alaba txikiak hezteko modu desegokitzat jotzen dugu. Alabaina, hezitzaile eta profesionalek gero eta maiztasun handiagoz azpimarratzen dituzte lehen haurtzaroen muga faltak sortzen dituen ondorio larriak. Batetik, familiaren elkarbizitzan eta bestetik, haurren etorkizuneko garapen ego-kian.

Ttiklik.com atarian jasotako Enrique Saracho psikiatraren gomendioak ekarri ditugu *Guraso.com* webgunera.

Autoritatea - autoritarismoa

Sarachoren esanetan autoritatea modu arbitrarioan erabiltzen zen garai batetik gero. Garai horretan arauak zigorraren beldur ginelako betetzen ziren.

Autoritarismotik gehiago zuen autoritatekin baino. Gaur egun, autoritatea errespetuarekin eta babesarekin lotzen dugu. Elkarrekin bizitzea ahalbidetzen du eta haur txiki bati frustrazioa eta agresibitatea sozialki modu osasuntsuan maneiatzen erakusten diogunean etxetik kanpoko edozeinekin erlazioatzeko bideak irekitzen dizkiogu.

Erreferentzia argiak

Haurrei hezteko arazoak ematearen aldekoa da Saracho: "Guraso asko arduratzen dira beren seme-alaben artean ezberdintasunak ez egitearekin. Baina haur txikiak eta nagusiagoak ordu berdinean ohera joaten badira, paga berdina badaukate, onura berak badituzte, zertarako hazi? Lehen, anai txikienek zaharragoen inbidia izaten zuten.

Egungo haurrek ez dute hazi nahi, horrek ardurak eta exijentziak hartzea esan nahi duelako eta aldiz, onurak galtzea". Horregatik, helduok erreferentzi argiak markatu behar ditugula uste du Sarachok; zer egin dezaketen eta zer ez adinaren eta gaitasunen arabera.

Autoritatea erabiltzean seme-alabek axola digutela adierazten ari gara defentatzen du psikiatrak. "Toleranteagoak gara arduratzen ez gaituzten pertsonekin, beraiekin haserretzeko lanik ere ez dugu hartzen. Autoritatea erabiltzeak asko nekatzen du. Horregatik, asko arduratzen gaituzten pertsonekin soilik jarriko ditugu mugak. Askotan gure seme-alabek desafiatu egiten gaituzte, arauak hausten dituzte zenbateraino arduratzen garen jakiteko", dio Sarachok.



KULTURA



Eguna borobiltzeko talde argazkia atera zuten marrazki maratoian parte hartu zutenek, San Martin Agirre plazan. | BEART ELKARTEA

Marrazki maratoi ederra Bergaran, artearen eta monumentuaren herrian

'SketchCrawl'-a lehenengoz egin da gurean; 24 marrazkilari izan ziren

JOKIN BEREZIARTUA | BERGARA

Kalera irten, gustuko txoko bat aukeratu eta hura marraztu. Norberak erabakitzen ditu lekua, teknika eta euskarria, eta marrazkiak internetera igotzen dira gero. Hori da *SketchCrawl* edo marrazki maratoiaren oinarria.

Hala aritu ziren zapatuan Euskal Herri osotik etorritako 24 marrazkilari Bergarako erdigunean, beste herritarrengandik ezberdintzen zituzten pegatina soinean zutela. Udaletxea, San Martin plaza, Errekalde jauregia, Errotalde jauregia, Santa Marina eliza eta beste hainbat txoko eta

monumentu marrazten aritu ziren. Bergara arteari lotutako herria dela eta monumentuak soberan dituela aintzat hartuta, ez zen harrizkoa izan deialdiak harre-ra ona izatea.

Euskal Herrian 37 maratoi egin dira ekimena sortu zenetik, hots, 2006an Enrico Casarosa ilustratzaile italiarrak asmatu zuenetik. Harrezkero bi edo hiru hilean behin egiten dira topaketak, mundu osoan. Bada, Bergaran lehen aldiz egin zen zapatuan. Beart Bergarako arte elkarteak egin zuen deialdia Euskalherria's Sketchcrawl taldearekin elkar-

lanean. Goiza sorkuntzarako erabili zuten marrazkilariak eta arkatx zein pintzeleki ederto eragin ostean denek batera bazkal-

du zuten. Izan ere, elkarrekin marraztu eta esperientziak trukatzeko plan aproposa da; noizean behin elkartzeko aitzakia ere badela aitortu zigun batek baino gehiagok. Arratsaldean alde zaharreko lokaletan jarritako artelanak ikusteko ibilbidea egin zuten, batez ere kanpotik etorritako artistei begira. Ordurako talde txikia geratu zen, bazkalostea ederto igaro ondoren kanpoko askok etxerako bidea hartu zutelako. Hurrengoa Donostian edo Bilbon egitekotan geratu ziren, baina hori Euskalherria's Sketchcrawl taldeak erabakiko du.



ROSARIO GARITANO
HERRITARRA

"Asko gustatu zait, ilusioa egiten dit jendea kalean bertan marrazten ikusteak; ederra da. Niri ere gustatzen zait marraztea, ibilitakoa naiz, baina ez larregi. Alaba aritu da antolatzen; hari bai gustatzen zaiola marraztea".



RIKARDO AZKARGORTA
BEART TALDEKO IRAKASLEA

"Ekimen polita eta askea da. Hau da, nork bere estiloa du: batzuk marrazki azkarrak egiten dituzte, ia lekuan gelditu barik, eta beste batzuk denbora gehiago hartzen dute. Esperientziak trukatzeko oso plan aproposa da".



MATILDE SAINZ
PARTE HARTZAILEA

"Beste topaketa batzuetan egon izan naiz; Errioxan eta Zaragozan, adibidez. Hasiberria naiz baina ondo dago marraztea gustuko duten beste batzuekin batera marraztea. Besteengandik ikasteko aukera aparta da".



JAVIER LAZKANO
PARTE HARTZAILEA

"Lagun batekin batera hasi nintzen margotzen, erretiratu ostean. Kalera lehen aldiz irten gara eta oso berezia da guretako, orain arte estudioan sartuta egon izan gara-eta. Xarma berezia du txoko kutunak marrazteak".



JOKIN BEREZIARTUA

PILI AZKARATE
ANTOLATZAILEA

"Bergaran lehen aldiz izan da, oso pozik gaude deialdiak izan duen harrerarekin"

Errekalde jauregiko lorategietan harrapatu genuen Pili Azkarate, jauregia marrazten. Gustura zegoen deialdiak izan zuen erantzunarekin.

Zertan datza sketchcrawl delako ekimena?

Marrazki maratoi bat da, marraztea gustuko dutenen arteko topaketa bat. Ez dago araurik, erabat askea da. Nork bere euskarriak erabiltzen ditu; papera, kartoia edo beste edozein euskarri, ez dio axola. Norberak nahi edo ahal duena egiten du, nahi duen lekuan. Antolatzaileok ibilbide bat proposatzen dugu, besterik ez.

Zer egiten duzue gero marrazkiekin?


Internetera igo. Blogen bidez funtzionatzen dugu. Nazioarteko web orri batera harpidetu gara eta han ere egin genuen deialdia. Horrez gain, gure blogera ere igoko ditugu marrazkiak: euskalherria-sketchcrawl.blogspot.com.es.

Pozik deialdiak izan duen harrerarekin?

Oso pozik. Aurrekoan Iruñean egin genuen eta 18 lagun elkartu ginen. Oraingoa 20 lagunetik gora elkartu gara; Bergaran lehen aldiz izan da, harrera ona izan du deialdiak. **Asko bergararrak zarete, baina Euskal Herri osotik etorri da jendea.**

Gehienak bergararrak izan gara baina Euskal Herriko hainbat txokotatik etorri da jendea: Arrasatetik, Bilbotik, Gasteiztik, Donostiatik, Debatik, Zaldibartik eta Eatik etorri diren marrazkilariak izan ditugu. Hori ere oso positiboa da.

"Norberak nahi edo ahal duena egiten du, nahi duen lekuan"



David Guapo umorista eta musikaria. | JULIO CALLEJA

KRONIKA

Barre algarak antzoki bete-betean

JAGOB DOMINGO | ARRASATE

David Guapo umorista egon zen zapatu arratsaldean Arrasateko Amaia antzokian. Telebistan asko ibilitakoa da Guapo eta emanaldiak arrakasta ikaragarria izan zuen. Sarrera guztiak agortu ziren eta jende dezente kalean geratu behar izan zen. Guztira, barre egiteko gogoz joan ziren 750 bat lagun batu ziren Amaia antzokian.

Ez da ohikoa gurean hain ezagunak diren umoristak ikusteko aukera izatea. Hori dela eta, Debagoieneko hainbat lekutatik gerturatu ziren Amaia antzokira *que no nos frunjan la fiesta* deituriko *show*-a ikusteko asmoz.

Jaun eta jabe

Eszenatokian bakarrik egon arren, txiki geratu zitzaion berau une batzuetan. Umoristaren lehen emanaldia ez dela igartzen zen, oso eroso ikusi baitzitzaion oholtza gainean. Hasieratik, publikoarekin hurbiltasuna lortu zuen artistak eta saioak aurrera egin ahala antzokiaren jaun eta jabe bilakatu zen.

Lehenengo tartean, egunerokotasun handiko gaiak erabili zituen bakarriketetan. Marraskilaria balitz bezala, Espainiako monarkiaren karikatua egin zuen, tele-zaborraren inguruko edo gaur egungo iragarkien gaineko satira zorrotza eginez.

Umorista eta musikari

Pixkanaka publikoa berotzen hasi zen eta orduantxe hasi zen benetako ikuskizuna. David Guaporen ikuskizunetako bereizgarri bat,

publikoarekin lortzen duen komunikazio eta elkartrukea da. Ikuslea *show*-aren parte bihurtzen du eta erantzuna bikaina izan zuen umoristak saioaren ostean argitu zigun bezala.

Azken tartean, bere musikari sena atera eta gitarra eskutan zuela, publiko artean zegoen pertsona bati, zorion abestia kantatu zion; euskarara moldatu zuen *reggaeton* kanta famatu bat eta publikoak esandako hitzekin, abesti bat inprobisatu zuen.

FITXA

BAKARRIZKETA

DAVID GUAPO, 'QUE NO NOS FRUNJAN LA FIESTA'**Bakarrizketak:**

Komedia eta musika.

Non: Amaia Antzokia.**Eguna:** Zapatua, urriak 13.**Iraupena:** Ordu eta erdi.**Poztasun aurpegiak**

Emanaldi bukaeran, irribarreak izan ziren nagusi bertara hurbildu zirenen aurpegietan. Guapok hasieran esan bezala, sarreraren prezioa ondo baino hobeto amortizatu zuten. Ikuskizuna bukatu ondoren, ikusleek umoristarekin argazkia ateratzeko aukera aprobetxatu zuten, oroigarri polit batekin amaitzeko.

DAVID GUAPO
UMORISTA

"Publikoak oso erantzun ona izan du gaurko emanaldian"

Zer moduz joanda gaurko saioa?

Egia esan oso gustura bukatu dut gaurkoan,

ordu beteko saioa eman behar nuen, hala ere, publikoa gogotsu zegoen, eta hori ikusita ordu erdi gehiago luzatu da emanaldia. Pozgarria da beti antzoki batera joan eta ikuskizunerako sarrera guztiak agortzea, eta are gehiago gaur egun bizi dugun momentua kontuan hartuta. Beraz, balorazioa oso positiboa da.

Beraz hemengo publikoa ez da esaten duten bezain hotza?

Ez, inola ere ez. Euskal Herri-
ra natorren bakoitzean, publikoak oso ondo erantzuten du. Batzuetan, ikusleria berotzea zailagoa izaten da, klima kontuek eragina izango dutelakoan nago, baina lotsa puntu hori gaitzen dutenean... *feedback* oso potentea lortzen da gehienetan.

Noizko hurrengo bisita?

Bihar bertan [domeka], Iruñian egongo naiz, ostiralean Andoainen egon ondoren, beraz hurrengo bisita aurrez jakitea oso zaila da. Baina plazer bat izango zen berriz etorri eta txuleta on batez gozatzeko beste aukera bat izatea.



ANDER MONEDERO

XIX. mendeko musika Santa Marinan

Ikusmin handia piztu zuen Organo Erromantikoaren Nazioarteko Zikloaren XIII. edizioko bigarren kontzertuak. Bergarako parrokian ia ez zen eserlekurik hutsik geratu Ana Salaberriak, Ainhoa Zubillagak eta Ana Belen Gartzia eskainitako kontzertua ikusteko. Gainera, antolakuntzak jarritako pantailekin, publikoak koroan zegoela zirudien, lastima azken abestietan organoak kale egin izana.



JULIO CALLEJA

Bergarako udal musika banda pilotalekuan

Atzo eguerdiko 12:30ean, Alfredo Gomez Chirlaquek zuzendutako Bergarako udal musika bandak, kontzertua eskaini zuen herriko pilotalekuan. Hitzordura, 300 bat lagun inguru hurbildu ziren pieza klasiko batzuez gozatzeko aukera ez galtzeko. Besteak beste, E. Rosillo-ren *La millor terra del mon* pasodoblea; J. de Haan holandarraren, *Overture to a new age* eta Caballeroren zarzuelako selekzioko *Gigantes y cabezudos* obrak interpretatu zituzten ikusleriaren txalo artean.

Juanjo Altuna bergararrak irabazi du Aramaioko kaleko pintura lehiaketa

Izaskun Altuna eta Sofia Larrañaga ama-alabak, herriko onenak



Alipio Ruano kantabriarra bere lana bukatzen. | JULEN IRIONDO

JULEN IRIONDO | ARAMAIO

28 pintorek hartu zuten parte Itur Zuri emakumeen elkarteak antolatuta egubakoitzean –aurten 21. aldiz– Aramaion egindako pintura lehiaketan. Batzuk aterpean beste batzuk aterkipean, zenbait auzoetan beste zenbait bitartean taxutu zituzten euren koadroak, askotariko teknikak erabiliz: olioak, akrilikoak, akua-relak... eta sarrituen artean ere denetariko lanak izan ziren.

Juanjo Altuna bergararrarentzat izan ziren irabazlearen 700 euroak; Carlos Espigarentzat bigarren saria (500 euro) eta Leticia Gasparrentzat hirugarrena (400 euro). Herriko onenaren saria Izaskun Altunarentzat izan zen (150 euro).

39 ume ere bai

Eta, hain justu ere, Altunaren alaba Sofia Larrañagarena izan zen epaimahaiaren ustez, herriko txikiak aurkeztutako 39 lanen artean onena. Larrañagak eta Ibon Kortabariak eta Iñaki Gabilondok –bigarren eta hirugarren– pintura materialetan gastatzeko 150 euroko txartela jaso zuten.

Lehiaketara aurkeztutako lanak Sastiñako ermitan egongo dira ikusgai egubakoitza bitartean, 18:00etatik 19:00etara.

**BEATRIZ
MARCOS**
BURGOS



"Batetik bestera ibiltzen gara asteburuetan, lehiaketetan. Berehala ikusi dut erreka eta erabaki dut hori margotzea. Nire estiloa librea dela esango nuke".

**DIANA
ORBE**
BARAKALDO



"Ia urtero etortzen naiz. Pintura dut ogibide, halaberharrez, lanik gabe geratu nintzen-eta. Material denda eta akademia ditut. Gaizki dago gauza".

**ALIPIO
RUANO**
CASTRO URDIALES



"Inoiz ez zara geratzen erabat gustura; hiru ordu egin ditu euren artean, eta aterkiarekin ibili behar izan dut. Justu-justu amaitu dut lana".

**JOKIN
TELLERIA**
BEASAIN



"Nahikoa konforme geratu naiz. Era figuratiboan pintatzen dut, klasikoan. Aramaio oso leku polita da pintatzeko, txoko eta auzo politak ditu".

**UNAI
AZKARATE**
BERGARA



"10:00etan zalantzan nengoen etorri edo ez, euriagatik. Aterpean egin dut. Jendea mugitzen dute lehiaketok, udan batzuk egin ditut neuk ere".

ZZ Blues Band-en eskutik blues doinu klasiko eta berriekin dantzan

Taldeko gitarra jolea gaixotu eta haren ordez jo zuen Ina Arriola gitarra jole gazteak lan bikaina egin zuen Iluntz tabernaren oholtza gainean

ANDER MONEDERO | ARRASATE

Soraluzeko ZZ Blues Band taldeak kontzertu bikaina eskaini zuen egubakoitz gauean Arrasateko Iluntz tabernan. Blues zahararen

eta modernoaren arteko nahasketak egiten dute soraluzetarrek eta euren abestiez eta blues klasikoez osatutako emanaldia eskaini zuten. Taldeko gitarra jolea

gaixo jarri eta Ina Arriolari deitu zioten kontzertua jotzeko. Gitarra jole gazteak, entseatu gabe jo zuen. Hala ere, blues erritmoak menperatzen dituela erakutsi zuen.

Kontzertuaren hasieran, taldeak lehen diskoko abestiak jo zituen, eta baita Michael Jackson-en *The way you make me feel* kantuarren blues eran egindako bertsioa. Abestiak jo ahala publiko berotu eta dantzatzen jartzea lortu zuten, eta baita zenbait abestirekin abesten ere. Adibidez, Muddy Waters-en *Hoochie Coochie man* edo Robert Johnson-en *Sweet home Chicago*. Kontzertua ezin hobeto bukatzeko berriz, beraien diskoa ixten duen ZZ Top-en *La Grange* eta Chuck Berry-ren *Johnny B. good* abestiak jo zituzten.



ZZ Blues Band egubakoitzean Iluntz tabernan. | JULIO CALLEJA

Sialuk hartz txikiak umore eta dramaren bitartez bizitzaren irakurketa egin zuen

A.M. | BERGARA

Bizitzaren drama eta kezkek normalitatez azaltzeko asmoa du *Sialuk hartz txikiaren bidaia* antzezlanak. Bertan, adopzioaren gaia era entretenigarri bezain hezigarrian jorratzen dute.

Sialuk hartz arrea da, baina txikitik ama galdu eta Ipar

poloko hartz batek hezten du. Egun batean Sialuk bere jatorria ezagutzeko, basora joaten da eta bertan, basoko animaliek bere ama nor zen eta nola hil egin zen azaltzen diote.

Adopzioaren inguruko ikuspuntua era humano eta naturalen azaltzen du gizartearentzat tabu den gai bat.



Hartz zuria eta Sialuk antzezlanaren momentu batean. | JULIO CALLEJA



15 urte zuekin, mila esker!



Larrinetxe
J A T E T X E A



Dragon Oriental

Fraiskozuri 7 / BERGARA
Tel.: 943 25 06 77

Eskaintza

- Jatetxe txinatarra
- Wi-fi gunea
- Etxera eramaten dugu (Bergara + Antzuola + Soraluze)
- Din sun, ekialdeko tapak
- Eguneko menua, karta

Egunero zabalik.



Erreka jatetxea

Zerrajera 4, behea / ARRASATE
943 53 32 72
www.errekajatetxea.eu

Eskaintza

- Eguneko menua
- Menu bereziak astebukaeretan
- Ezkontzak
- Jaunartzeak
- Enpresa bazkariak

Igande gauean eta astelehenetan itxita



Iturrieta

Arraga auzoa / ARAMAIO
945 44 53 85 / 685 72 15 93
iturrietasagardotegia.blogspot.com

Eskaintza

- Eguenetik domekara irekita. Erreserbatuz gero beste egunetan ere bai.
- 90 lagunendako lekua.
- Etxeko sukaldaritza bailarako produktuekin.
- Karta zabalak. Menu bereziak.
- Bertako sagardoa Eusko Labelarekin.



Larrinetxe

Udala auzoa / ARRASATE
943 79 22 15
www.larrinetxe.com

Eskaintza

- Aukera zabaleko karta eta astebukaeretan menu bereziak
- Sasoiko okelak, arrainak eta etxeko postreak
- Bokatak eta plater konbinatuak ordu guztietan.

Martitzenetan itxita.



Lasa jatetxea

Ozaeta jauregia, Zubiaurre 35. / BERGARA
Tel.: 943 76 10 55 / www.restaurantelasa.es

Eskaintza

- Jangela: 250 lagunendako.
- Karta.
- Astearte, asteazken eta ostegun gauetan 16:00ak baino lehen eskatuz gero zabalik (6 pertsona min).
- Menu bereziak asteartetik ostiralera(eguardietan).
- Kongresuetarako aretoa eta parking-a.

Gipuzkoako bankete-jatetxerik onenaren saria
Mas Gastronomía 2009.



Santa Ana Hotela

Uribarri auzoa 37 (Udalara bidean) / ARRASATE
943 79 49 39
www.santaanamondragon.com

Eskaintza

- Familiako bazkariak eta kinto bazkariak dantzaldiarekin.
- 100 pertsonarentzako jangela, menu berezia eta karta.
- Terraza eta jangela: ogitartekoak, etxeko hanburgesak eta plater konbinatuak.
- Kafe eta pasten catering-a, era askotariko tortillak eta pintxoak.

GURE MUSIKA TALDEAK

"Ez gara stoner talde klasikoak bezala geldirik geratzen garen horietakoa"

- ▶ Urte hasieran taldea sortu eta laukote oñatiarrak irailean kaleratu zuen Kaimanleon izeneko lehenengo lana, zazpi kanturekin
- ▶ Bi kontzertu egin dituzte orain arte –Tolosan joko dute egubakoitzean– eta zuzenean ahalik eta gehien jotzeko helburua dute

J.D./A.M. | OÑATI

Kaimanleon Oñatin sortutako stoner musikaren azken bala da. Talde bezala bizitza motza dute oraindik, baina musikan eskarmentu handia dute mutil hauek eta kaleratu berri duten maketan eta zuzenekoan bistakoa da aurretik egindako lana.

Nola sortu zen Kaimanleon?

Mikelek eta nik [Lete bateriajolea] stoner estiloko abesti batzuk egin genituen. Momentu horretan, Show Business taldean batera jotzen genuen Txalain, Mikel eta nik eta taldeak jotzen zuen estioarekin bat ez zetozen kantu berriak genituen; beraz, zerbait desberdina egitea erabaki genuen. Hasieran, Show Business-en entseguen ostean jotzen genuen baina denbora pasa ahala proiektuak indarra hartu zuen. Gero, Alexis sartu zen, berak Potemkin-en jotzen zuen eta taldeak utzi zuten gurekin jotzen hasi zen.

Noiz sortu zenuten taldea?

2011ko irailean Dani, Show Business-eko baxu jolea, Dinamarkara joan zen eta proiektu hau aurrera ateratzeko momentu egokia zela pentsatu genuen. Lehen ia egunero entseatzeko genuen, lehenengo Show Business eta gero, orain Kaimanleon taldea dena. Momentu horretan dinamika hori apurtu egin zen eta Alexisen sarrerarekin proiektuak indar handia hartu zuen. Urtebete baino gutxiago daramagu proiektuan buru belarri sartu ginenetik.

Nola egiten dituzue abestiak: lehenengo musika edo letra egin eta hori musikatzen egiten duzue?

Lehenengo musika egiten dugu, melodia sortu eta ondoren hitzak sartzen dizkiogu. Normalean Mikelek egiten ditu eta gero denen artean egokitu egiten ditugu.

Irailean 'Kaimanleon' izeneko lana kaleratu zenuten.

Grabaketa dispartsoa izan zen: bateria Berako (Nafarroa) Mike estudioan grabatu genuen, baxua eta gitarrak Oñatiko Gaztelekuko sotoan grabatu genituen eta ahotsak Kirrinen etxean. Nahasketa eta masterizazioa Kirrinek berak egin du.

Nola egiten ari zarete diskoaren banaketa?

Era simple batean egitea pentsatu genuen: diskoak formatu simple du, kopiak ahalik eta merkeen irteteko. 100 kopia inguru atera genituen, eta orain kopia gehiago atera behar ditugu. Ez dugu nahi hasieratik kopia kopuru



Kaimanleoneko kideak beraien lehenengo diskoaren aurkezpenean. | JAGOBA DOMINGO

handia ateratzea, asko lokalean geratzen baitira. Nahiago dugu bi edo hiru tabernatan saltzen jartzea eta baita kontzertuetan saltzea. Eskaeraren arabera kopia gehiago edo gutxiago aterako ditugu, diskoa kontzertuak lortzeko aitzakia da.

Bi kontzertu jo dituzue, biak Oñatin Radio Moscow eta Def Con Dos bezalako talde handiekin.

Def Con Dos-en kontzertua Show Business-eko Igorrek antolatzen zuen eta bere taldeak jotzeko aukerarik ez zuenez, guri eskaini zigun. Radio Moscowren kontzertua Gaztemaniak ekimenaren barruan sartu zen, atzerriko talde on bat ekartzen dute eta ber-

tako talde batekin batera jotzen dute. Hemengo taldeei ezagutzera emateko aukera da. Bi kontzertuak esperientzia polita izan dira, baina badakigu hori ez dela gure eszena izango.

Oñatin 'stonerra xauk'.

Egia esan Sharon Stonerrek estilo honi bidea ireki zion, beste herri askotako tabernetan oso zaila da Kyuss edo Queens Of Stone Age bezalako taldeak entzutea. Azkenean, talde baten eraginarengatik estiloak zabaldu eta entzuleak lortzen ditu.

Talde berria izan arren, esperientzia handia duzue... Zeintzuk dira zuen influentziak?

Taldeakide bakoitzak musika esti-

lo bat entzun edo gustuko du baina baditugu hainbat talde komunean. Adibidez, Truckfighters taldearen bertsio bat jotzen dugu... Ez dakigu, talde honetan basapiztiarena [barreak] egitea nahi genuen eta horretara egokitzen dena jotzen dugu, stoner, metal, doom... danetik.

Eszenatokian zuzeneko indartsua eskeintzen duzue.

Ez gara stoner talde klasikoak bezala eszenatokian geldirik geratzen garen horietakoa. Urte asko daromatxagu kontzertuak ematen eta aurretik Show Business edo Potemkin taldeetan eszenatoki gainean garatu dugun jarrera berdina dugu, ezin gara geldirik egon!

Diskoa kaleratu eta orain kontzertuak jotzeko garaia da.

Bai, zuzenean jotzea gustuko dugu eta horretarako sortu genuen taldea. Urriaren 19an Tolosako Bonberenean joko dugu Sharon Stonerrekin batera, eta azaroaren 30ean, Gasteizko Helldorado aretoan Truck Fighters taldearekin. Helburua etxetik gertu ahal den eta kontzertu gehien jotzea da.

Talde ezagutarazteko bideren bat garatu al duzue?

Facebook orria daukagu eta bertan gure kontzertuen berri eman go dugu; <http://www.facebook.com/kaimanleon.rock> da gure helbidea.

1. ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Asturias. Asturiasen bi pisuko etxea eta lursaila salgai. Tel.: 649-40 26 22.

Aramaio. Baseria salgai Zabalgoiti auzoan. Hiru etxebizitza egiteko aukera eta 1.415,44 metro koadroko lursaila. 629-51 39 22 edo 636-49 46 89.

Aramaio. 105 metroko etxebizitza salgai. Hiru logela, egongela, sukaldia eta bi komun. Sukaldia eta komunak guztiz ekipatuta ditu. 18 metroko garajea atari ondoan. Erabilgarriak diren 15 metroko ganbara. Interesa izanez garo deitu telefono zenbaki hauetara: 669-70 39 77 edo 652-72 83 60 (Mariasun).

Arasate. Prezio berria! 174.000 euro. Etxebizitza salgai. Eraberritua, guztia altzariz hornitua eta oso eguzkitua, denak kanpoaldera ematen du. Hiru logela, bi komun, egongela eta sukaldia. Hiru igogailu eta gas naturala. Interesatuak deitu telefono zenbaki honetara: 650-01 05 15.

Arasate. Etxebizitza salgai Erquin kalean. Hiru logela, egongela, sukaldia eta komun. 170.000 euro. 606-86 71 97.

Bergara. 50 m² etxebizitza salgai. Logela, sukaldia, komun eta egongela. Balkoiarekin. Oso argitsua. 75.000 euro. Bikoteendako aproposa. Errentan hartzeko aukera ere bai. 679-45 57 62.

Berriz. Berrizen pisua salgai. 3 logela, 2 komun, sukalde berria, 2 balkoi, egongela handia, ganbara eta garaje itxia. Oso eguzkitua. Egoera ezin hobean. Tel.: 647-77 73 92.

Berriz. Olakueta auzoan, etxe argitsua eta bista ederrekin. 3 logela handi, balkoiarekin lotutako egongela eta sukaldia. Komun bi. Igogailua eta ganbara. Garraio publikoetatik minutu batera. Harremanetarako: 685-72 46 90 675-71 23 69.

Durango. 86 m²-ko etxebizitza salgai. Murueta Torre 7n. 2 logela, 2 komun, sukaldia eskutiarrekin, ganbara eta garajea. Solairua: 5. Prezioa: 270.000 euro. Deitu 688-64 26 43 telefonora. (Jaione).

Durango. Durango, Askatasun etorbidean pisua salgai. Dena hegoaldera, oso eguzkitua egun osoan, 83 m² erabilgarri, 3 logela, 2 komun, 2 garaje handi, trasteroa, igogailua garajearaino, oso ondo zaindua eta modernoa. Tel.: 652-75 54 46.

Elorrio. Duplex etxebizitza, 78 m² erabilgarri (90 m eraikin). Argitsua eta isila, erreforma begira. Egongela, sukaldia, logela eta batura bainugela bi. Errekakale, 102 gn solairua. zortzaloizate@hotmail.com Tel.: 605-72 29 45.

Elorrio. Elorrio erdigunean estrearitu gabeko etxea salgai. 77 m², 3 logela, 2 bainu eta garajea, altzariekin. Prezioa, 230.000 €. 634-45 72 01.

Garai. Oarbeasoa baserria salgai. 10.000 m²-ko lursaila. Garaiko San Migel auzoa, 6. 8.500 m²-ko belardi sorra, nahiko laua. 200 m²ko baratza, frutalak. Nekazal turismoa edo nekazaritza ekologikorako aproposa. Toki lasaia, hegoaldera begira. Erreabilitazioa behar du. Bifamiliarra egiteko baimena. Udaletxea, frontoi, kultur etxea, osakidetzak kontsulta, jate-txeak (2) eta bus geltokirik 150 metro-tara. Durangotik 10 minutu-tara. Ap-8 autopistik 5 minutu-tara. 639-83 34 89. jo.aman-tegi@gmail.com.

103. ERRENTAN EMAN

Arasate. Zerrajeran pertsona bakar edo bikote batentzako apartamentu atsegina errentan. Patio pribatua eta terrazak dauka. 650 92 26 86

Bastida. Oporretako pisua alokatzen dut pisinarekin. Torre -otxandi urbanizazio pribatu. Urbanizazioak igerilekua eta saskibaloio pista ditu. 2 logela, bainugela, sukaldia eta egongela, guztiz apainduta. Paisaia eta bista ikusgarriak. Urte osoan eskuragarri. Hamabostaldia eta hilaletak alokatzen da. Interesatuak deitu hona: 620-62 92 45 iarteaga@hotmail.com.

Bergara erdialdean. Guztiz berritua dagoen pisua errentan ematen da Bergara erdialdean. 84 metro koadro ditu, bi logela handiekin. 685 72 51 58.

Bergara. Etxebizitza ematen da errentan Bolun. Interesatuak deitu zenbaki hauetara: 662 56 95 37 edo 673 84 08 73.

Bergara. Etxebizitza ematen da errentan erdigunean. Hiru logela eta bi bainugelakoa. Igogailuarekin. Errostea aukera ere bai. 675 71 50 36.

Bergara. Etxebizitza ematen da errentan, erdialdean. Bi logela, gasdun berokuntza, PVCzko leihoak, eguzkitua, 72 metro koadro. 606 65 58 08 edo 660 04 25 25.

Donostia. Kaixo. Lokal moduko etxebizitza bat alokatzen det donostian, antiguo auzoan bertan. Persona batentzako egokitua, bi planta dauka eta kotxea sartzeko aukera dago. Eguzkitza da eta lasaia. Prezio 550 euro. 609-48 11 24.

Elorrio. 50 m²-ko atiko berria alokagai elorrian. Logela, komun eta sukalde-egongela. Igogailua ere badu eta prest dago bizitzera sartzeko... Oso polita. Tel.: 606 043 835.

Lurreta. Lurretan logela alokagai. 200 euro, gastuak aparte. Tel.: 633-23 38 48 Jon.

Lakuntza. Gela bat, egongela, sukaldia eta bainugela. Interesatuak deitu telefono honetara. 678-83 03 71.

Oñati. Etxebizitza ematen da errentan Kurtzebidetara. Hiru logelakoa. 615 73 29 83.

Oñati. Etxebizitza errentan ematen da erdigunean. Hiru logela, egongela, sukaldia eta igogailua ditu. Interesatuak arratsalde deitu zenbaki honetara: 652-77 87 15.

Zaldibar. Erdialdean, guztiz berria, 2 logela. Telefonoa 660-45 87 56.

104. ERRENTAN HARTU

Baserrira. Baserrian bizitzeko desiatzen gauden bikote bat gara. Atoak irekita ditugu edo zere proposamenetarako: konpondu, zaindu... Auzoak bizirik mantendu behar ditugu, baserria ezin dira hutsik egon! 652-76 73 39.

Bergara. Familia batentzat etxebizitza behar dugur errentan, prezio ekonomikoan. Marijose. 696-70 55 09.

Durango. Bikotekide arduratsua logela bat alokatu nahi du Durango. Ekonomikoa. 632-37 28 87.

105. ETXEAK OSATU

Arasate. Logela ematen da errentan Erquin kalean, unibertsitategintza gertu. Bi logela, egongela, komun eta sukaldia balkoiarekin. Prezioa: 250 euro. 660 31 37 28

Bergara. Logela ematen da errentan. 699-09 46 26

ZURE IRAGARKIAK

IRAGARKIA JARTZEKO BIDEAK:

943 25 05 05 | sailkatuak@goiena.com | www.goiena.net/sailkatuak

Eguneko 16:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu. Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere. GOIENAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sar daitezkeen operazioen erantzukizunik.

ORDAINTZEKO ATALAK DIRA:

PREZIO BEREZIA GOIENA KLUBEKO BAZKIDEENDAKO

- Etxebizitza Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan. Irakaskuntza eman. Motorra Saldu/Alokatu. - Profesionalen modulua.

Debagoienetik kanpoko iragarkiak, web gune honi esker eman dizkizugu: iragarkilaburrak.com

Bergara. Lagun bat behar da etxea osatzeko Bolun. Prezioa: 250 euro, dena barne. 670 85 86 68

Durangoaldea. Logela alokairuan Landako etorbidean, Durango. Pertsona arduratsua-riemango zaio lehentasuna. Tel.: 648-20 03 70.

Durango. Pisukide bila gabiltzan bi lagun gara. Hizkuntza Eskola aurrean dago pisua, alde zaharretik oso gertu, eta Tabirako lasaitasunagaz gozatzeko aukera aproposa. Animatu! Tel.: 679-62 04 47.

Durango. Durango logela bat alokatzen dut. Madalenoste kalean, autobus geltokiaren ondoan. Tel.: 650-73 87 24.

Durango. Bipertsona 3. Baten bila tabirari behe pisu bat konpartitzeko. 3 logela, 2 komun. 637-29 24 65.

Oñati. Etxebizitza osatzeko pertsona bat behar da. 110 euro gehi gastuak. Lau logela, egongela, komun eta sukaldia. Mendiko kalen. 615 00 67 60

Oñati. Logelak ematen dira errentan san lorentzen. 943-78 31 42 / 688-60 30 52.

Zumaia. Pisua konpartitzeko bi pertsonaren bila nabil, etxeak hiru logela ditu eta momentuz

logela bat bakarrik dago okupatutik. Etxea handia da komun bat, sukaldia eta egongela handiak dituelarik, edonon interesaturik egonez gero idatzi e-mail honetara: roker_8@hotmail.com edo deitu 661-42 61 75 zenbakira.

2. GARAJEAK

201. SALDU

Arasate. Zerkaostetan, Iturne bide egoitza parean, garajea salgai. 600-75 54 18.

Durango. Garajea salgai Plateruen plazan. 28.000 euro. Tel.: 679-47 57 85.

Durango. Durango Fray Juan de Zumarraga kalean (Euskaltel dendaren azpian), garaje/trasteroa irax salgai. Deitu: 629-41 43 63 zenbakira.

Durango. Fray Juan de Zumarraga kalean, 8 m²-ko trasteroa alokatu edo saltzen da. Tel.: 629-41 94 11.

Elorrio. Berrio-Otxoa kalean garaje itxia salgai da. Interesa baduzu eta informazio gehiago nahi baduzu, deitu! Tel.: 658-75 92 64.

Elorrio. Garaje itxia salgai Elorrio erdialdean, 20.000 euro. Tel.: 660-45 87 56.

303. ERRENTAN EMAN

Durango. Garajea alokagai. Askatasun etorbidea, 35.50 Euroan. 675-71 95 54

Durango. Durango erdigunean, Ezkurdi inguruan kokatuta dagoen garaje itxia errentan. 629-24 07 23.

3. LOKALAK

301. SALDU

Gasteiz. Azken erabilera: tailer mekanikoa. Garbitzeko, engrasatzeko eta ibi lizentzia ditu. Bulego altzariek eta garajeko ateak. Portero automatikoa eta alarma. 2 komun ditu, bat mugikortasun urriko pertsonei moldatua. Hiru erdigunekiko komunikazio onak ditu. Autobus geltokiak hurbil daude. Alokatzekoa ere posible da: 800 Euro/hil. Telefonoa: 665-75 78 07 (Ana)

303. ERRENTAN EMAN

Durango. Bulego bat alokatzen dut Durango. 42 m². Durango erdian. Tel.: 656-78 02 15.

305. BESTELAKOAK

Oñati. Kale Zaharrean bulego konpartituko nuke. Guztiz egokita dago. Egokia izan daiteke bulego zein jendea atentzako. 651 70 17 41

4. LANA

401. ESKAINTZAK

Bergara. Pertsona arduratsua behar da etxe lanak egiteko. Hasieran, astean 2 ordu. Interesatuak deitu 19:00etatik 21:00etara. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 654 05 91 77

Irun. Adineko pertsona baten zaintza egiteko, interno gisa lan egingo duen norbaitek kontratatu nahi du. Irunen bizi da. Astelehentik larunbat arratsalde arte egingo lukelan, lanegunetan arratsalde hiru ordu eta erdiko atsedena izanik. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 943-45 11 59 telefonora.

Zaldibar. Zaldibaren umea eskolareraman eta etxekolan egiteko emakumezko eskalduna behar da. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 670-59 84 32.

402. ESKAERA

Arasate edo Bergara. Neska Arasate. Sukaldari edo sukaldaguntzailer lan egingo nuke debagoienan. Zortzi urteko esperientzia daukat. Elikagaiak ibiltzeko titulua daukat. Autoa ere bai. 634-40 64 65.

Arasate. Sukaldari esperientziaduna lan egiteko prest. Deitu telefono zenbaki honetara: 943-53 34 24.

Arasate. Margolari gisa lan egingo nuke. 18 urteko esperientzia. Lehen mailako ofiziala, margoketan. 637-52 89 91.

Arasate. Neska gertu nagusi, gaixo edo umeak zaintzeko debagoienan. Baita garbitasun lanetarako ere. Egunez. Urte askotako esperientziaduna. Yesenia. 634-12 56 87.

Arasate edo Bergara. Neska gertu lanerako. Nagusiak edo umeak zaitzen eta garbitasun lanetan. Erreferentziaduna. 636-47 64 92.

Arasate, Bergara edo Aretxabaletan. neska lan bila etxeko lanak egiten edo nagusiak zaitzen. Tabernatan sukaldari. Oso langilea. 697-20 00 86.

Arasate. Neska boliviarra pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko gertu, baita garbitasun lanak egiteko ere. Esperientzia, informea eta paperak ditu. Gaur eta egunez, baita orduka ere. 618-14 71 34.

Arasate. Neska gertu sukaldaguntzailer, nagusiak zaindu edo garbiketa lanetarako debagoienan. Edozein ordutegitan. 679-29 78 89.

Arasate. Neska gazte euskaldun eta esperientziadunak txakurrak hezten lan egingo luke. 697-41 66 24.

Arasate. Senar-emazteak, ezaintza laguntzailer titularekin, pertsona nagusiak zainduko lituzke debagoienan: etxean bertan bizi izaten, ospitaletan, eta abar. 697-35 62 49 / 943-79 04 69.

Arasate. Eskoriatza eta Aretxabaletan. Neska euskalduna esperientzia handia duena, prest haurrak zaintzeko, eskolara eramateko edota etxerako lanak egiten laguntzeko. Magisteritzan diplomatu eta hezkuntza berezian espezialista. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 600-39 47 77.

Arasate. Emakumea gertu garbiketarik gabe etxean bertan bizi izaten lan egiteko debagoienan. Hamar urteko esperientziaduna. 646-78 81 40.

Arasate. Emakumea gertu orduka edo astebukaeretan pertsona nagusiak zaintzeko, baita ospitaletan ere debagoienan. Tabernak ere garbituko nituzke. Disponibilitate osoa. 699-60 91 90.

Bergara. 47 urteko pertsona lanerako gertu. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 606-24 79 09.

Bergara. Neska txakurrak paseatzeko eskaintzen da. 943-53 29 18.

Bergara. Pertsona arduratsua behar da etxeko lanak egiteko. Hasieran, astean 2 ordu. Interesatuak deitu 19:00etatik 21:00etara. itu telefono zenbaki honetara: 654-05 91 77.

Bergara. Pertsona arduratsua behar da etxeko lanak egiteko. Hasieran, astean 2 ordu. Interesatuak deitu 19:00etatik 21:00etara. 654-05 91 77.

Debagoiena. Taberna edota kafeteria batean arratsalde lan egiteko gogoz dagoen neska gaztea. Ikaslea goizetan. 686-20 18 35.

Debagoiena. Mutil gaztea eta esperientziadunak sukaldari laguntzailer moduan etxeko garbiketari lan egingo luke. 616-62 85 91.

Debagoiena. Mutila gertu arratsalde eta asteburuetan sukaldian lan egiteko. Pintxo, menu eta abarretan eskarmentu handikoa. 666-83 21 95.

Debagoiena. Asteburuetan lan egingo nuke nagusiak zaitzen edo garbitasun lanetan. 699-09 46 26.

Debagoiena. Emakumea gertu nagusiak zaindu edo garbiketarik egiteko. Tituladuna. 680-77 06 46.

Debagoiena. Erizaintza laguntzailer tituladun emakume arduratsua eta esperientziaduna pertsona nagusiak zainduko lituzke etxean bertan bizi izaten edota orduka, ospitaletan, eta abar. 646-05 58 88 / 943-79 79 49.

Debagoiena. Neska gertu nagusiak zaindu, denetarik garbiketarik egiten edo bestelako lanetarako. Etxean bertan bizi izaten, orduka, gaudetan zein asteburutan. Esperientziaduna. 626-91 49 04.

Debagoiena. Neska gertu nagusiak zaintzeko edo garbitasun lanetan jarduteko. Baita taberna sukaldian ere. Erreferentziak ditu. Autoa ere bai. 680-87 38 66.

Debagoiena. Neska gertu orduka, asteburu zein egun osoz lan egiteko. Etxeko lan eta garbiketarik egiten edo sukalde laguntzailer. 662-26 71 41.

Debagoiena. Astebukaerara lan egingo nuke, etxeak edo tabernak garbitzen. 699-09 46 26.

Debagoiena. Honduraseko 22 urteko neska bat naiz. Berehala lanean hasteko prest nago, edagile fina naiz eta arduratsua. Pertsona nagusi zein haurrak zaintzen eta garbiketa lanak egiten esperientzia daukat. 616-84 89 26.

Debagoiena. Neska arduratsua lan bila: nagusi edo umeak zaitzen eta garbiketarik egiten. Gaur zein orduka. Zaintza ikasketak egindakoa. Berehala hasteko moduan. 685-13 48 63.

Debagoiena. Neska gertu lan egiteko: umeak edo nagusiak zaintzen zein garbiketarik egiten. Dendari ere bai. Etxean bertan bizi izaten, egunez zein orduka. Erreferentziak ditu. Deitu 636-41 98 14 telefonora.

Debagoiena. Neska gertu nagusi edo umeak zaintzeko zaintzen zein garbiketarik egiten. Dendari ere bai. Etxean bertan bizi izaten, egunez zein orduka. Erreferentziak ditu. Deitu 636-41 98 14 telefonora.

Debagoiena. Neska gertu nagusi edo umeak zaintzeko zaintzen zein garbiketarik egiten. Gaur zein orduka. Zaintza ikasketak egindakoa. Berehala hasteko moduan. 685-13 48 63.

Debagoiena. Neska gertu lan egiteko: umeak edo nagusiak zaintzen zein garbiketarik egiten. Dendari ere bai. Etxean bertan bizi izaten, egunez zein orduka. Erreferentziak ditu. Deitu 610-34 97 88 zenbakira.

Debagoiena. Ostalaritzan eta umeak zaintzen esperientzia duen neska gaztea lan bila. 615-72 72 86.

Durangoaldea. Lan bila nabil. Etxeak garbitzen, umeak edo edadekoak zaintzen. Lanaldi osoan edo orduka. Erreferentzia onekin. Tel.: 638-43 79 01.

Durangoaldea. Pertsona arduratsua lan bila, pertsona nagusiak zaintzen, garbiketari, lorezaintzan, baserrietan ere aritzeko prest. Tel.: 622-47 39 41 // 632-37 28 87.

Durangoaldea. Ostalaritza eta umeak zaintzen esperientzia duen neska gaztea lan bila. 615-72 72 86.

Durangoaldea. Nagusiak zaintzeko edo umeak zaintzeko gertu nago, baita ospitaletan gaixoak zaintzeko ere. 618-13 46 15.

Debagoiena. Mutilla gertu nagusi zein umeak zaintzeko eta baita baserriko lanetarako ere. 622-77 60 65.

Debagoiena. Nagusiak edo umeak zaintzeko gertu nago, baita ospitaletan gaixoak zaintzeko ere. 618-13 46 15.

Debagoiena. Neska euskalduna haurrak zaindu eta etxeko lanak egiteko prest. 606-05 11 99.

Debagoiena. Administrazioan lizentziatu gazte lanerako prest. Esperientzia daukat. 629-06 93 60.

Debagoiena. Emakumea lanerako gertu. Garbiketari zein nagusi edo umeak zaintzen. Legezko paperak ditu. 672-96 08 22.

Debagoiena. Neska arduratsua etxe, atari eta abarren garbiketari lanak egin zein nagusiak zaintzeko gertu. 616-62 85 91.

Debagoiena. Sukalde laguntzailer gisa lan egingo nuke. Sei urteko esperientzia. Elikagai erabiltzailer titulua daukat. Miguel. 634-41 90 51.

Debagoiena. Emakumea gertu orduka lan egiteko. 634-78 19 54.

Debagoiena. Garbiketarik egintuzko. Baita zerbitzari lanak ere. 662-08 22 03

Debagoiena. Igeltzari, zerbitzari, lorazain edo segurtasun zaintzailer gisa lan egingo nuke. 622-59 92 14.

Debagoiena. Neska gertu orduka, asteburu zein egun osoz lan egiteko. Etxeko lan eta garbiketarik egiten edo sukalde laguntzailer. 662-26 71 41.

Debagoiena. Astebukaerara lan egingo nuke, etxeak edo tabernak garbitzen. 699-09 46 26.

Debagoiena. Honduraseko 22 urteko neska bat naiz. Berehala lanean hasteko prest nago, edagile fina naiz eta arduratsua. Pertsona nagusi zein haurrak zaintzen eta garbiketa lanak egiten esperientzia daukat. 616-84 89 26.

Debagoiena. Neska arduratsua lan bila: nagusi edo umeak zaitzen eta garbiketarik egiten. Gaur zein orduka. Zaintza ikasketak egindakoa. Berehala hasteko moduan. 685-13 48 63.

Durungaldea. Erizain laguntzailea, pertsona nagusiak zaintzeko lan bila. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 608-46 48 44.

Durungaldea. Neska arduratsua ebekolanak egiteko edota nagusiak zaintzeko lan bila dabil. Orduka. Esperientziaduna eta erreferentziakin. 648-20 0370.

Durungaldea. Lan bila nabil. 24 orduz, gauetan edo asteburuetan nagusiak zaintzeko. Esperientzia eta erreferentziakin. Geriatria kurtsua egina. Papelekin. Tel.: 634-00 82 22.

Durungaldea. Neska arduratsua eta esperientziarekin nagusiak edo umeak zaintzeko edo garbiketarako lan bila. 24 orduz, egunez edo orduka. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 631-13 22 91.

Durungaldea. Egunez edo orduka 10:00etatik 20:00etara nagusiak zein umeak zaintzeko edo garbiketarako lan bila. Esperientziarekin. 632-15 80 89.

Durungaldea. Emakumea lanaldi erdiz lan egiteko prest umeen edo nagusien zaintzan edo garbiketarako. Goiz, arratsalde zein gauetz. Esperientzia eta erreferentziakoan. Tel.: 636-85 20 59.

Durungaldea. Emakumea pertsona nagusiak zaintzeko lan bila dabil. 24 orduz edo egunez. Erreferentziakin. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 638-23 37 39.

Durungaldea. Emakumea nagusiak zein umeak zaintzeko edo garbiketarako lan bila. 24 orduz edo egunez. Papelekin eta erreferentziakin. 650-10 18 31.

Durungaldea. Mutil arduratsua lan bila, lorezaintzan, nagusiak zaintzen edo altzairu montatzaile moduan. Esperientziarekin. Tel.: 676-11 21 74.

Durungaldea. Nagusiak zaintzen edo bulego eta harategiak garbitzen lan egiteko prest nago. Lanaldi osoan, goizez, arratsalde zein gauetz. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 690-68 73 95.

Durungaldea. Pertsona nagusiak zaintzeko zein kamarero lanetan aritzeko lan bila nabil. Esperientziarekin eta erreferentziakin. Tel.: 630-86 99 21. (Andres Arrieta)

Durungaldea. Lan bila nabil. Edadeko pertsonak zaintzeko edo etxeak garbitzeko. Lanaldi osoan edo erdian. Erreferentziakin. Tel.: 650-61 01 94.

Durungaldea. Nagusiak zaintzen zein garbiketarako lan bila. Lanaldi osoan, baita gauetz ere. 660-70 66 18.

Durungaldea. Neska eskalduna haurrek zaindu edota partikularrek emateko prest. Tel.: 661-37 85 29.

Durungaldea. Neska arduratsua eta esperientziarekin nagusiak edo umeak zaintzeko edo garbiketarako lan bila. Tel.: 632-51 68 61.

Durungaldea. Haur Hezkuntza ikasketak dituen neska eskalduna Durungaldean umeak zaintzeko lan bila. Tel.: 625-70 78 31.

Durungaldea. Emakumea, nagusiak edo umeak zaintzeko lan bila. 24 orduz, egunez edo gauetz. Erreferentziakin. Tel.: 616-78 80 33 Luz Adilia.

Durungaldea. Neska arduratsua eta erreferentziarekin nagusiak edo umeak zaintzeko edo etxe lanetarako lan bila. 24 orduz, egunez, gauetz. Tel.: 608-24 85 54.

Durungaldea. Pertsona nagusiak zaintzeko lan bila. Edozein ordu eta egunetan. Tel.: 660-87 53 60.

Durungaldea. Lan bila garbiketarako edo pertsona nagusiak zein umeak zaintzen. 680-29 66 76.

Durungaldea. Asteburuetan edo 24 orduz, pertsona nagusiak zaintzeko lan bila. Tel.: 602-12 22 45

Durungaldea. Nagusiak edo umeak zaintzeko edo garbiketarako lan bila. 24 orduz, egunez edo asteburuetan. Tel.: 631-02 29 82.

Durungaldea. Emakume eskalduna Durungaldean eta egunean bi-hiru orduz, nagusiak zein umeak zaintzeko prest. 618-40 58 79 (Izaskun).

Durungaldea. Nagusiak zein umeak zaintzeko edo garbiketarako lan bila. 24 orduz edo egunez. Tel.: 631-24 26 07.

Durungaldea. Orduka zein gauetz pertsona nagusiak zein umeak zaintzeko lan bila. Tel.: 633-93 41 06.

Durungaldea. Neska eskalduna pertsona nagusiak zaintzeko edo garbiketarako eskaintzadunak. Asteburuetan edo astegunetan. Tel.: 652-72 02 29.

Durungaldea. Asteburuetan, 24 orduz edo egunez pertsona nagusiak zein umeak zaintzeko lan bila. Tel.: 690-68 73 95.

Durungaldea. Pertsona nagusiak zein umeak zaintzeko lan bila. Tel.: 644-63 51 45.

Durungaldea. Durungaldean pertsona nagusiak zein umeak zaintzeko lan bila. Tel.: 631 02 29 32

Durungaldea. Durungaldean 24 orduz pertsona nagusiak zaintzeko lan bila. 602-12 22 45.

Durungaldea. Durungaldean garbiketarako, umeak, nagusiak zaintzeko lan bila. Tel.: 652-13 00 41.

Durungaldea. Neska eskalduna eskaintzen da goizetan haurrek zaintzeko (esperientziaduna) Elorri edo inguruan. Informazio gehiago nahizanez gero, ondorengo telefonora deitu edo email bat bidali. Tel.: 645-70 10 87 lersun6@hotmail.com

Durungaldea. 24 orduz nagusiak zaintzeko lan bila. Esperientziarekin eta papelekin. 631-25 09 98.

Durungaldea. 24 orduz nagusiak zaintzeko lan bila. Esperientziarekin eta papelekin. 679-53 01 60.

Durungaldea. Neska gaztea pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko, garbiketarako (portalak, tabernak) zein etxe lanak egiteko lan bila dabil. 24 orduz, lanaldi osoan edo lanaldi erdian. Erreferentziakin. 620-82 85 79.

Durungaldea. Emakume arduratsua pertsona nagusie laguntzeko eskaintzen da. 24 orduz, egunez, asteburuetan edo jai egunetan. Erreferentzia askorekin. Tel.: 666-75 21 47.

Durango. Neska gazte eskalduna prest dago goizetan umeak eskolara eramane eta ondoren etxea garbitu eta atontzeko. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 690-76 82 26.

Elorrio. Haur hezkuntza eta hezkuntza berezia eginak dituen eta udalekutan lanean esperientzia duen neska gazte eskalduna, arratsaldez haurrek zaindu eta eskolako lanean laguntzeko prest. Urteak daramatzat honetan eta haurrekin oso ongi moldatzen naiz! Interesa baduzu, deitu: 688-64 06 04.

Elorrio. Haur hezkuntza eta hezkuntza berezia eginak dituen eta udalekutan lanean esperientzia duen neska gazte eskalduna, arratsaldez haurrek zaindu eta eskolako lanean laguntzeko prest. Urteak daramatzat honetan eta haurrekin oso ongi moldatzen naiz! Interesa baduzu, deitu: 688-64 06 04.

Elorrio. Neska gazte eta eskalduna, Durungaldean haurrek zaintzeko prest, esperientziarekin. Yanire. Tel.: 657-77 54 37.

Elorrio. Haur hezkuntza eta hezkuntza berezia eginak dituen eta udalekutan lanean esperientzia duen neska gazte eskalduna, arratsaldez haurrek zaindu eta eskolako lanean laguntzeko prest. Urteak daramatzat honetan eta haurrekin oso ongi moldatzen naiz! Interesa baduzu, deitu: 688-64 06 04.

Sakana. Umeak eta adinekoak zaindu eta etxe lanak egiten ditut. Informare badituz. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 618-85 52 49.

5. IRAKASKUNTZA

501. JASO

Bergara. Ingelesko eskola partikularrak hartuko nituzke etxean. Bigarren batxilergoa. 679-74 00 61.

Bergara. Marrazketa eta neumatikoko eskola partikularrak etxean emango dizkidan norbait behar dut. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 678 61 50 45

Ingelesa. Ingeles filologia daukan pertsona behar da Advance azterketak prestatzen laguntzeko. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 628 80 03 44

Oñati. Gitarra jotzen ikastea oso gustatu du itzaidak. Erakusteko prest bazaude deitu hona: 635-73 87 54.

502. EMAN

Abadiño. Irakasle eskalduna, magisteritzan diplomatua, Matienan eta Durango klase partikularrak emateko prest, Lehen hezkuntza eta DBHn. Tel:618-06 87 49.

Aretxabaleta. Ingeles eskolako ematen ditut, talde txikietan edo bakarka. Adin guztiak (5 urtetik aurrera). Erreferentzia eta hobekuntza. Azterketen prestakuntza ere bai (ket, pet, fec...). Deitu eta informatu konpromiso barik. 606-72 47 10.

Azpeitia eta Azkoitia. 23 urteko neska, zuzenbidean lizentziatua eta esperientziaduna, haur eta gazteei klase partikularrak emateko eskaintzen da: ingeleza, gaztelera, euskera... Interesatuok deitu telefono honetara: 619-44 75 18.

Durungaldea. Alemaniera klaseak ematen ditut. Metodo erraza eta atsegina. Ikasle truke eta azterketen prestaketa. HE0. Tel.: 670-79 33 12.

Durungaldea. Psikologo eskaldunak ikasketak teknikoak eskaintzen ditu. Tel.: 679-38 23 69.

Durungaldea. Erizaintzako ikasle egaduna LH eta DBHko ikasleei klase partikularrak emateko prest. Ingelesko titulua ateratzen. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 665-75 86 48.

Durungaldea. Neska gaztea, ingeniaria eta durangarra, klase partikularrak emateko prest, LH, DBH edota Batxilergo ikasleei. Edozein ikasgaitan. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 635-20 50 12.

Durango. Irakaskuntza esperientzia duen gazte eskaldun diplomatua, lehenengo eta bigarren hezkuntza partikularrak emateko prest. 675-00 79 19 egorrono@gmail.com

Eskola partikularrak Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriatza. Kaixo. Neska Kazetaritzan lizentziatua eta Hezkuntza Bereziako diplomatua eskola partikularrak emateko gertu, ingeleza barne. 669833438 (Maialen). 669 83 34 38, 943 79 20 35

Elorrio. Lehen hezkuntzako edozein kurtsoa zuzenduta, arratsaldez klase partikularrak emateko prest. Hezkuntza berezia eta Haur hezkuntza ikasketak ditut eginak. Interesa baduzu jarri harremanetan nirekin: 688-64 06 04.

Patinatze klaseak eskaintzen dira. Patinatzen ikastea eta teknika hobetzeko klaseak ematen dira. Maisu esperientziaduna eta eskian tituluduna. Taldeak eta asteburuetarako irteerak antolatzen dira. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 677-28 46 39 (Gotzan)

6. MOTORRA

601. SALDU

Eskaintza. Autoa salgai. Seat Leon 1.9tdi autoa saltzen dut, ez erabiltzeagatik. 2 urte besterik ez ditut. Interesadun jarri harremanetan telefononon 661-42 61 75.

Rover 45 confort 1.4 gasolina. Rover 45 confort 1.4 gasolina. 4 ate. Alarma, abs, airbag, pionero 4x4W irrati-cda, lapurretan kontrako inobilizadorea. Tomtom one bat opari. Probatu ezazu konpromeririk gabeko. Transferentzia nire kontura. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 607-15 24 03.

7. ANIMALIAK

701. SALGAI

Behorra eta moxala salgai. Behorra eta bere 4 hilabeteko moxala salgai. Deitu 15:00 etatik 18:00 etara. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 679-23 47 46.

Gorbeia ardi txakur kumeak salgai. Gorbeia ardi txakur kumeak salgai. Uztailaren 1ean jaiota. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 690-20 55 36. Mikel

Untxiak salgai. Bi hilabeteko untxi handiak salzen dira. Aitak 8 kilo eta amak 7 kilo dituzte. Untxi bakoitza 15 euroan. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 94-621 82 57.

703. EMAN

Txakurkumeak opari. Hiru hilabeteko Border Collie txakurkumeak ematen dira opari. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 943 79 75 31

704. BESTELAKOAK

Hezitzaila. Neska gazte eskaldun eta esperientziadunak txakurak hezten lan egingo luke. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 697 41 66 24

Artzai txakur zuria galduta. Abuztuaren 13an Bedoñan inguruan, arrasate, artzai txakur zuria galduta zen. Oso alai eta beti jolasteko gogoz. Lepoko marroixak dauka. Ikusi baduzue mesedez telefono hauetara deitu. Deitu 665-71 44 76 edo 653-70 33 44 telefono zenbaki honetara.

8. DENETARIK

801. SALDU

Abadiño. Lursaila salgai Matienan (Abadiño), Arzobia kalean, 2.000 m², erreka ondoan eta bide artean. Apropoa ortua hartzeko. Hainbat fruitu arbolak hornitua. Matienatik hiru minututara oinez. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 658-75 65 12.

Almirante trajea. Lehen jantzaritzeko almirante trajea salgai. Neurria: 10. Zapatak izan ezik gainontzeko guztia. Behin erabiliakoa, 150 euro. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 618-00 08 28.

Altzariak salgai. Ohea eta mahaitxo bi, diseinu modernoa eta berria, 360 euroan. Koltxo berria 1,50x1,90cm; 60 euroan. Idazmahaiak kaxoi zuriekin, 55 euroan. Sinfontiera kaxoiekin, 65 euroan. Mahai bat, 60 euroan. Deitu telefono zenbaki honetara: 610-41 55 11.

Aramaio. Zabola auzoan 10.119,34 metro koadroko bi lursail salgai, etxebizitzak egiteko aukerarekin; proiektu, lizentzia eta guzti. 629-51 39 22/636-49 46 89.

Bernedo. Lursail eraikigarri urtulin salgai dago, bernedo. Gasteizetik 40km-tara dago, eta izkiko golfetik 3 minututara baino ez. 308m² eraikitzea posible da, 7ml-ko eta bi solairuko altuera maximoarekin. Inguruan beste lursail eta etxebizitzak batzuk ditut; baita golfeko hotela ere. 665-75 78 07 (Ana).

Bizikleta salgai. Bizikleta estatikoa salgai. Prezioa 65euro. Tel.: 610-41 55 11.

Biolinak. Hasi berrientzat bi biolin salgai. Prezioa adosteko. 649 76 79 64

Chico markako karrotxo salgai. Prezioa 50euro. Tel.: 610-41 55 11

Debagoianan sehaska eta haurren aldalekua. 0-2 urtera arteko minia eta sehaska salgai. Stokke sleepi zuria. 2010eko uztailakoa, egoera oso onean eta gutxi erabilia. 350 euro. Haurren aldagailu zuria (stokke) 150 euro. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 648-20 37 75.

Durango. Partzela bat saltzen da etxea egiteko Durangoko zentroan urbanizazio berri batean, Ezkurdikoz plaza 200 metrora. Tel.: 652-75 54 46.

Furgonetako abantza salgai. Furgonetako sebring modeloko abantza salgai. Guztiz zarratzen da. Neurriak: 370x310 alt 210. 1740kg pisua. BARRUKO gela daroa (200x170) eta lurrar. aretxalarra@yahoo.es

Gama altuko bizikleta. Cube acid 2012 mountain bike. Estrenatu barik. Bi urteko bermea. Aukera ezin hobea. 725 euro. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 647-29 93 44.

Ileapaindegiko altzariak salgai. egoera onean. 652 71 74 48,

Konsola salgai. Sega Mega Drive konsola salgai. Hiru jokurakin. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 652 71 74 48,

Labea. Labea salgai. Oso gutxi erabilia. la berria. Arrasate. 686 88 46 66

Mtb: Mondraker Ventura. Berria bezalaxe. Zuria. 150-165cm-ko pertsonentzat egokia. 295 euroan saldu edo itxurazko pasio bizikleta bategatik aldatu nuke. 670-48 91 49.

Piano elektrikoa salgai. Yamaha Clavinova CLP 150 piano elektrikoa salgai. Kontakua: 650-17 22 85 edo strato-kaster@gmail.com

Yamaha clavinova pianoa salgai. Yamaha clavinova piano elektronikoa salgai. Piano ikasketetako oso egokia. Nahizanez gero argazkiak bidaltzen dira, edo ikusi eta probatu daiteke. Interesatuok deitu 20:30etatik aurrera. Prezio negoziagarria. 653-73 78 58.

Nintendo DS Lite. Kolore zuria. Osagarri guztiarekin (zorroa, etxerako zein kotxerako kargagailuak...). Egoera oso onean dago. Oso gutxi erabilia. 100 euro. 670 52 58 74,

Oheak. Bi ohe saltzen dira 1.05 neurrikoak, estrenatu gabekoak. Arrasaten. 606 76 36 85,

Xurgagailua. Alkaroen aurkako eta kontsumo baxukoa. Gutxi erabiliakoa. 659 62 02 49,

Yamaha Clavinova pianoa. Yamaha Clavinova piano elektronikoa salgai. Piano ikasketetako oso egokia. Nahizanez gero argazkiak bidaltzen dira, edo ikusi eta probatu daiteke. Interesatuok deitu 20:30etatik aurrera. Prezio negoziagarria. 653 73 78 58

Zaldibar. Zaldibarren 13.500m²-ko lur saila salgai. Argia eta ura partzelan bertan. Oso eguzkitasun eta bista ederrekin. 629-41 43 63.

Zeanuri. 2.000 m² dituzten hiru lur sail eraikigarri dira, eta gorbeia magalean, Ipinaburu auzoan aurkitzen dira (Zeanuri). Prezio onean. Telefonoa: 650-86 39 99.

802. EROSI

Negutegi txikia erosi nahi dugu. Bigarren eskuko negutegi txikia erosi nahi dugu, 4x12 gutxienez. Txikiagoa ere izan daiteke. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 695-50 83 55.

Zilarrezko gauzak. Zilarrezko edo zehazteko erosten dut, kuberterriak, jarroiak, bandejak, txanponak eta abar. Deitu 657-70 43 16 edo bidali mezua e-postaz numpega@gmail.com helbiderra eta harremanetan jarriko gara.

803. EMAN

Bideoa. Panasonic NV SJ4 10 bideoa ematen da, El Mundo-ren "100 películas de nuestra vida" bilduma eta guzti. 670 55 42 21

CDak. CD pila bat dauzkat emateko. Arrasaten. Ez dira jatorrizkoak. Denetarik estilotakoak. Interesa izanez gero deitu zenbaki honetara: 695785249 (Aitor)

804. HARTU

Bidali zure ordenagailua Boliviara. Bidali zure ordenagailua Boliviako eskolara. Ordenagailua hondatuta badaukazu, zaharra bada edo zaborretara bota behar baduzu, nik jaso, konpondu eta kabinaberaren bitartez bialdiko dugu Boliviako bigarren mailako eskolara. Tel.: 655-71 76 66.

Bidali zure ordenagailua Perura. Hondatuta, zaharra edo zaborretara bota behar baduzu, nik jaso, konpondu eta kabinaberaren bitartez bialdiko dugu Peruko eskolara. 655-71 76 66

Bizikletak. Bizikleta botatzeko moduan badaukazu, nik jasoko dizut. Berdin da zein egoeratan dagoen eta zein motakoa den. Jasotzera joango nintzateke. Inaki. 699 06 23 95

806. GALDU

Arrasate. Mustang etxe botadun zapatilla pare bi galduta ditut, urdinak eta gorriak. Alabari bere egunean oparitzeko ziren. 669 63 93 29

Kamara. Igandean Onatin argazki kamara galduta nuen, norbaitetik topatu badu mesedez deitu telefono honetara. Eskerrik asko. 650 27 05 78

Lepoko katea Oñatin. Lepoko katea galduta nuen irailaren 30ean, domeka, Ilunkara aldean, barraka eta plaza inguruan. Domina bat ere badauka. Miguel izena dauka idatzita. Eskertuko da. 695 73 45 74 edo 943 78 25 71

Soinekoak Arrasaten. Haizeak zetazko soineko eramane dit. Beix koloreko eta lore marroiak ditut. Aurrerik duenak deitu zenbaki honetara. Eskerrik asko. 656 76 78 13

807. AURKITU


Betaurrekoak Orixe inguruan. Betaurreko pare bat bere poltsan eta zinta beltz eta guzti aurkitu dit Orixol eta Leziaga tarteetan. 656 72 03 65

9. HARREMANAK

903. DEIAK

Gasteizera autoan goizez. Astegunetan arrasateetik edo bergaratik gasteizera joateko autoa partekatuko nuke. Goizeko 5:10ean irten eta 14:00etan itzuli. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 671-66 04 56.

Gasteizera autoan arratsaldez. Astegunetan Arrasate edo Bergaratik Gasteizera joateko autoa partekatuko nuke. 14:00etan irten eta 22:00etan itzuli. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 627 38 72 38



9 4 3 - 4 4 6 1 6 6

ALOKAIRUAN
ERDIALDEA: 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Kanpora. 700 €.
USURBIL: oso polita. 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. 590 €.
INTXAURRONDO: 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Berogailua. 600€
PASAI DONIBANE: 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Balkoia. 600 €.
EGIA: loft. Logela, sukaldea, egongela, bainugela. Bistak. 450 €.
AMARA: 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Berogailua. Politra. 7

Google Plus-ek aplikazio mugikorrek berritu ditu

Eguneraketa osoa dakar Apple-en gailuentzako aplikazioetarako bertsio berriarekin



Aplikazio berria, iOS eta Androiden. | ENGADGET

JON BEREZIBAR | ARRASATE

Denbora luzez iOS sistemarako bertsio berezirik eduki barik egon eta gero, azken eguneraketarekin Apple-en ingurunera egokitutako aplikazioa izango du Google + sare sozialak. Bide batez, Androiderako bertsioa ere berri dute Google-ekoek.

Androiderako bertsioan eguneraketa txikiak besterik ez daude eta argazkien eta kontaktuen bilaketetan hobekuntzak dakartza. Apple-entzat egin duen eguneraketa berantiarrean, aldiz, diseinua berriz ere planteatu dute eta iPhone 5erako prestatuta dator eta iOS 6erako gertu eta iPaderako bertsio berri batekin ere badator. Bi horietan argazkiak dispositiboan bertan gordetzeko aukerarekin dator eta post-ak ere zuzenean edita daitezke aplikaziotik bertatik, orain arte ez bezala. Aplikazioa Google Play zein App Storetik deskargatu daiteke dagoeneko doan.

Bideoak igo eta gordetzeko aukera, Twitterren hurrengoa

J.B. | ARRASATE

Youtube-ekin lehiatzea da, itxuraren arabera, Twitterren hurrengo urratsa.


Bideo 'hosting-a'

Etengabe aldatzen eta hazten dihardu Twitterrek azken urtean. Baldintza eta aukerak aldatzeaz gain, geroago eta zerbitzu gehiago dabil eskaintzen bere baitan. Berriki erosi du Vine.co: mugikorretik bertatik, bideoa grabatu eta editatzeko

balio duen zerbitzua. Gainera, zerbitzu hori ez dago zabalik oraindik baina publiko egin baino lehenago erosi du Twitterrek. Segundu gutxi batzuetako iraupena duten bideoak grabatu, editatu eta igotzeko aukera ematen da Vine.co eta *render* eta postproduktzio ez zaio egin behar bideoari, ezta formatuz aldatu ere, sarera igotzeko. Zerbitzua Twitterren bertan noiz erabili ahalko den iragartzea soilik falta da.



Vine zerbitzuaren logotipoa. | VINE.CO



Bing bilatzailea. | BING.COM

Microsoften Bing bilatzailea da denetatik segurtasun gutxien daukana, ikerketa baten arabera

J.B. | ARRASATE

Sophos segurtasun enpresaren ikerketa batek agerian utzi du birus informatiko eta *malware*-aren ia bi heren Bing bilatzailetik sartzen dela erabiltzaileen ordenagailuetara. Ikerketa beraren arabera Google-en bilatzailetik kutsatzen dira ordenagailuen ia herena nahiz eta mundu mailan erabilienera beratu izan. Kutsatze proportzioak handiena eta arriskutsuena irudien bitartez sortutakoak da eta kutsatzen guztien %92 da. Testuak soilik kutsatzen %8ari eragiten ei die. Birusak

zabaltzeko aspalditik erabiltzen den teknika zaharra da hori baina ikerketan ohartarazten dutenez, oraindik orain eragin korrena da hori. Bilatzaileetan kontsultaren eta erantzunaren artean kokatzen dute birusa ala *malware*-a eta bilatzailea bera nahastu egiten dute emaitza txarrak eman eta kutsaketarekin aurrera egiteko. Sophoseko arduradunek diote ziurrenik Microsoft ez dela iragazte lan egokirik egiten ari eta erabiltzaileak geroago eta mesfidatiagoak direla bilatzaile horrekin.

Firefoxen azken eguneraketa erretiratzea erabaki du Mozillak, segurtasun akatsak medio

J.B. | ARRASATE

Segurtasunean zenbait hutsune atzeman eta gero, Mozillak Firefoxen azken bertsioa erretiratzea erabaki du.

Aurreko bertsiora buelta

Honenbestez, Firefox 15.0.1 bertsioa izango da azken eguneraketa ofiziala eta hamaseigarren bertsioa daukatenean ziurtatu egin beharko dute Mozillak eskuragarri ipini duen segurtasun eguneraketa instalatuta daukatela, edozein kasutan.

Nabigazio historian zegoen hutsune batek edozein erasoren

aurrean bertan gordetzen zen informazioa agerian jartzen duela atzeman eta honezkerok konpontzen dabilan segurtasun akatsa da. Mozillatik, era berean, adierazi dute ez daukatela inolako erasoren konstantziatik baina badaezpadako neurria ezinbestean hartu behar izan dutela.

Mozillak orain arte nabigatzailea hiru hilabete behin eguneratuko zuelako konpromisoa zeukan eta hamaseigarrena horietako azkena zen. Halakorik gertatu zaien lehen aldia da.



Akatasa iragartzen duen blogaren irudia. | MOZILLA.ORG

Martxoan helduko da Microsoft Office, iOS sistemarako

Ofimatika aplikazio sortariek ezagunenak ez du iPhone ta iPaderarako bertsiorik izan orain arte. Azken urtean bertsio hori lantzen ibili direla jakina da baina erabiltzeko gertu noiz egongo den ez da jakin. Microsoftek berak hitzaldi baten jakitera eman du datorren urteko martxoan salduko dutela Office-en iOS sistemarako bertsioa. Android eta Windows Phone-erako bertsio berriekin batera aterako da.

Web estandarrak adostuko dituzte handiki gehienek

Interneteko konpainia nagusiek Web Platform proiektuan bat egin eta Internetarako sarrerarako estandarrak adostu eta sustatzeko konpromisoa hartu dute, nabigatzaile eta dispositiboen arteko ezberdintasunak poliki-poliki aldatu eta lana errazteko. Interneten etengabeko hazkunderaren ondorioz hartutako erabaki da eta Apple, Google, Adobe, Facebook, Mozilla eta Microsoft dira bultzatzaile nagusiak, askoren artean.

TELE-BEGI

IMANOL GALLEGO



Lehen Urkiola, orain Telecinco

Konturatu al zarete Telecinco edo mediasetek, jendeak bikotea aurkitu dezala nahi duela? Beti ere bere foku eta kameren aurrean, eta okerrena egiten dituen audientziak dira! Baina horren bizitza triste daukagu?

Herenegun lagun batekin mediasetek egiten dituen reality-love story horietako ikusten ari ginen haluzinatzen genuen bitartean. Ikaragarria!! Neurona bakarreko 20 txorimalo eta kontua da orain amek ere parte hartzen dutela. Itxuraz Vasilerentzat amek oraindik semearen bikotea aukeratzeko eskubidea dute. Hurrengo lehen gaueko eskubidea berreskuratzea izango da?

Telebista urte gutxitan txarkuteri merke bat izatera pasa da. Ni gaztea nintzanean horrelako programak gaueko ordu txikietan jartzen zituzten eta gehienetan kodifikatuta. Baina "mamaitxo" neskekin jaino zen telebista kate batek zer eskainiko du ba?

Okerrena, nire lagunaren mutilak bere giharrak bizikleta gainean lantzen dituen bitartean gu sofian mediasetek eskaintzen digun kaka jaten gabiltzala. Dena dela, mediaseten alde gauza bat esango dut, kaka bat egingo dutela bai, baina primerako kaka egiten dute edo eurek esango duten moduan "kaka deluxe".

ASTEAGOIENAN

GOIENA TELEBISTA

ASTELEHENA 15



Harmailatik

Arrasate-Oñati herri krosaren berri emango du Xabier Urtzelai kazetariak kirol saioan. | 22:06

MARTITZENA 16



Hauteskundeak

Urriaren 21eko hauteskundeetara aurkeztuen diren alderdietako ordezkariak izango ditugu. | 21:03

EGUAZTENA 17



Ekogune

Hidro-lorontziak nola egin ikasiko dugu Julen Iriondok aurkeztuen duen Ekogune saioan. | 22:00

EGUENA 18



Gipuzkoa Kultura

Luis de Azpiazu musikariaren artxiboa bisitatuko dugu, musikiari idatzitako metodoak ikusteko. | 22:00

EGUBAKOITZA 19



AsteOn

Arritxu Barrusok aurkeztutako saioan, gaurkotasuneko gaien inguruan ariuko dira kalean. | 22:00

- 12:25 Magazinea
- 13:10 Zorion Agurrak
- 13:15 Onein
- 13:43 Gipuzkoa kultura
- 14:15 Ekogune
- 14:45 Berriak
- 15:05 Eguraldia
- 15:08 Zorion Agurrak
- 15:13 Jaiak: Oñatiko jaiak
- 16:13 Ikusmira
- 16:43 Berriak
- 17:03 Eguraldia
- 17:06 Onein
- 17:38 Ikusmira
- 18:06 Beranduegi.tv
- 18:31 Ekogune
- 19:01 AsteON
- 19:31 Musikaz Gain
- 19:41 Ikusmira
- 19:53 Zorion Agurrak
- 19:58 Berriak
- 20:18 Eguraldia
- 20:21 Magazinea
- 21:06 Hauteskundeak 2012
- 22:06 Harmailatik
- 22:51 Berriak
- 23:11 Eguraldia
- 23:14 Magazinea
- 23:59 Harmailatik
- 00:44 Gurean gaur
- 01:44 Eguraldia

- 12:00 Magazinea
- 12:45 Hauteskundeak 2012
- 13:45 Zorion Agurrak
- 13:50 Harmailatik
- 14:40 Zorion Agurrak
- 14:45 Berriak
- 15:05 Eguraldia
- 15:08 Harmailatik
- 15:53 Onein
- 16:21 Gurean gaur
- 16:47 Berriak
- 17:07 Eguraldia
- 17:10 Hauteskundeak 2012
- 18:10 Harmailatik
- 18:55 Beranduegi.tv
- 19:19 Gipuzkoa kultura
- 19:49 Zorion Agurrak
- 19:54 Berriak
- 20:14 Eguraldia
- 20:18 Magazinea
- 21:03 Hauteskundeak 2012
- 22:03 Berriak
- 22:23 Eguraldia
- 22:28 Musikaz Gain
- 22:38 Magazinea
- 23:23 Gurean gaur
- 00:23 Harmailatik
- 01:08 Berriak
- 01:28 Eguraldia

- 12:00 Magazinea
- 12:45 Hauteskundeak 2012
- 13:45 Jaiak: Oñatiko jaiak
- 14:45 Berriak
- 15:00 Eguraldia
- 15:03 Erreportajea
- 15:33 Onein
- 16:03 Harmailatik
- 16:48 Berriak
- 17:03 Eguraldia
- 17:06 Hauteskundeak 2012
- 18:06 Zorion Agurrak
- 18:11 Musikaz Gain
- 18:22 Beranduegi.tv
- 18:46 Gurean gaur
- 19:19 Zorion Agurrak
- 19:24 Musikaz Gain
- 19:36 Musikaz Gain
- 19:48 Zorion Agurrak
- 19:53 Berriak
- 20:08 Eguraldia
- 20:13 Magazinea
- 20:58 Gurean gaur
- 22:00 Ekogune
- 22:30 Berriak
- 22:50 Eguraldia
- 22:55 Magazinea
- 23:40 Gipuzkoa kultura
- 00:10 Berriak
- 00:15 Eguraldia

- 12:00 Magazinea
- 12:45 Gurean gaur
- 13:15 Ekogune
- 13:45 Zorion Agurrak
- 13:50 Tertulia
- 14:20 Onein
- 14:43 Zorion Agurrak
- 14:46 Berriak
- 15:06 Eguraldia
- 15:09 Erreportajea
- 15:35 Gurean gaur
- 16:05 Musikaz Gain
- 16:16 Ekogune
- 16:46 Berriak
- 17:06 Eguraldia
- 17:09 Jaiak: Oñatiko jaiak
- 18:09 Musikaz Gain
- 18:19 Erreportajea
- 18:49 Planik bai?
- 19:09 Beranduegi.tv
- 19:34 Musikaz Gain
- 19:44 Zorion Agurrak
- 19:49 Berriak
- 20:09 Eguraldia
- 20:15 Magazinea
- 21:00 Gurean gaur
- 22:00 Gipuzkoa kultura
- 22:30 Planik bai?
- 22:50 Berriak
- 23:10 Eguraldia
- 23:13 Magazinea
- 23:58 Ekogune
- 00:28 Berriak
- 00:48 Eguraldia

- 12:00 Planik bai?
- 12:20 Magazinea
- 13:05 Gurean gaur
- 13:35 Zorion Agurrak
- 13:40 Onein
- 14:06 Beranduegi.tv
- 14:30 Musikaz Gain
- 14:40 Zorion Agurrak
- 14:45 Berriak
- 15:05 Eguraldia
- 15:08 Planik bai?
- 15:28 Ikusmira
- 15:58 Gipuzkoa kultura
- 16:28 Ikusmira
- 16:41 Zorion Agurrak
- 16:46 Berriak
- 17:06 Eguraldia
- 17:09 Planik bai?
- 17:29 Ekogune
- 17:59 Bizitegia
- 18:32 Ikusmira
- 19:00 Beranduegi.tv
- 19:24 Ikusmira
- 19:37 Zorion Agurrak
- 19:41 Berriak
- 20:01 Eguraldia
- 20:04 Planik bai?
- 20:24 Gipuzkoa kultura
- 20:59 Gurean gaur
- 22:00 AsteON
- 22:30 Berriak
- 22:50 Eguraldia
- 22:53 Hauteskundeak 2012
- 23:53 AsteON
- 00:23 Planik bai?
- 00:43 Berriak
- 01:03 Eguraldia

ARRASATE IRRATIA

'Gigantes y cabezudos' Zarzuclaren prestaketaren berri emango dugu

Izaskun Murgia elkarte lirikoak, urtero bezala, zarzuela prestatzen hasi da. Aurten, *Gigantes y cabezudos*, Manuel Fernandez Caballeroren obra plazaratuko dute. Jakin dugunez, entseguekin hasi dira dagoeneko eta, aste honetan, prestakuntzen inguruan ari-tuko gara protagonistekin.

'Bastards On Parade' folk-rock taldea ikusteko sarrerak

Eguenean, Kooltur ostegunak ekimenak antolatuta, Galizia-ko Bastards on Parade taldea izango da. Zuzeneko melodiko eta oso indartsua eskainiko dute Coruña-ko mutilek, eta Arrasate Irratian kontzertura joateko sarrerak lortzeko aukera ezin hobea dute, 943 250505 zenbakira deituz.

Arrasateko baserriaren azokaren berri emango dugu

Arrasateko Udaleko enplegu saileko teknikaria den Marga Garmendia izango dugu Arrasate Irratian. Garmendiak urriaren 20an Seber Altube plazan egingo den baserriaren azokaren berri emango du. Udazkeneko lehenengo azokan denboraldi berriko produktuak aurkitzeko aukera izango dugu.

TELE-ALBISTEAK

EAEko hauteskundeei buruzko saio berezia Goiena telebistan

Hauteskundeen emaitzak zuzenean emango ditugu Goiatz Arana eta Julen Iriondok aurkeztuko duten saioan

ANDER MONEDERO | ARRASATE

Euskal Autonomia Erkidegoko hauteskundeak izango dira urriaren 21ean eta Goiena telebistak, arratsaldeko 19:45an hasita, hiru orduko saio berezia eskainiko du. Goiatz Arana eta Julen Iriondo kazetariak aurkeztuko dute saioa eta, bertan, hauteskunde egunak emandako guztiaren berri izango duzue.

Goizean goizetik, Debagoieneko herrietako hauteslekuetan izango gara; alderdi politikoetako ordezkariekin izango gara eta Eusko Legebiltzarrerako hautes-

kundeen emaitzak zuzenean emango ditugu. EAEko emaitza orokorrak emango ditugu; baina, baita ere, Debagoienekoak.

Eusko Legebiltzarrerako aurtengo hauteskundeen emaitzak aztertzeko eta ondorioak ateratzeko bi gonbidatu izango ditugu: Mikel Irizar eta Ainhoa Larrañaga. Bi iritzi emaileak politika gaietan hainbat komunikabide desberdinetan aritutakoak dira eta domeka honetan gurean, Goiena telebistan, izango ditugu. Bi iritzi emailez aparte, herri bakoitzean jasotako emaitzen berri ere



Goiatz Aranak eta Julen Iriondok aurkeztuko dute Urriaren 21eko hauteskundeetako saio berezia. | GOIENA

Arratsaldeko 19:45an hasiko da hiru orduko saio berezia

izango dugu domekako saio berezian.

Hautagaiak entzuteko aukera Aste honetan hauteskundeen saio berezia izango dugu Goiena telebistan. Bertan, Julio Iturri, Iña-

ki Soto, Pello Urtzelai eta Bingen Zupiria kazetarien galderei erantzungo diete Mikel Aranak, Idoia Mendiak, Laura Mingetik eta Iñigo Urkulluk. Elkarrizketa bakoitzak ordubeteko iraupena izango du.

ZORION AGURRAK



ARRASATE Txomin Arriaran Lagunilla
Urriaren 21ean, 11 urte. Zorionak, txapeldun! Ondo-ondo pasatu zure egunean eta topera disfrutatu! Maite zaitugu!



BERGARA Malen Olañeta Vicente
Urriaren 21ean, 11 urte. Zorionak, politxori, zure familiaren partetik. Bereziki Iñaki, Alazne eta Ikerrek. Maite zaitugu.



BERGARA Alazne Olabarria Vicente
Urriaren 21ean, 10 urte. Zorionak, maitia, zure familiaren partetik, bereziki Iñaki, Malen eta Ikerrek. Maite zaitugu.



OÑATI Unax Inza Galdos
Urriaren 20an, 2 urte. Zorionak zuri, zorionak beti... Hainbeste gustaitzen zatzun kandelei putz itteko gertu? Jarraitu oin arte moduko sinpatiko eta xalau izaten! Maitte zaitugun danon partetik, mila kilo zorion, batez be Eneko, Uxue eta Elaiaren partetik.



OÑATI Malen Osinaga
Urriaren 20an, 7 urte. Zorionak eta ondo pasatu. Besarkada eta muxu bat etxekuen partetik.



BERGARA Oier Pescador Cid
Urriaren 19an, 9 urte. Zorionak, Oier! Ondo pasatu eta disfrutatu eguna! Leire, tia, tio eta Aneren partetik. Patxo bat.



OÑATI Sara Aberasturi Galdos
Urriaren 18an, urtebete. Zorionak, potxola! Ondo pasatu danon partetik, eta bereziki Mirenen partetik. Patxo handi-handi bat. Mua!



ARRASATE Jone Barandiaran Sanchez
Urriaren 18an, 9 urte. Zorionak, printzesa! Primeran pasatu zure eguna. Patxo potolo-potolo bat familiaren partetik. Mua, mua!



BERGARA Jon Gonzalez Rodriguez
Urriaren 18an, 2 urte. Zorionak, txapeldun! Ondo-ondo pasatu zure egunean! Maite zaitugu! Lucia, Hugo eta Danelen partetik.



BERGARA Iñaki Olabarria Vicente
Urriaren 18an, 13 urte. Zorionak, mutil handi. Zure familiaren partetik, bereziki Malen, Alazne eta Iker. Maite zaitugu.



ARRASATE Luismi Barbero Lopez
Urriaren 18an, 45 urte. Zorionak familia guztiaren partetik.



OÑATI Aitor Murguzur Lizarralde
Urriaren 18an, 8 urte. Zorionak, txapeldun! Ondo pasatu zure urtebetetze eguna eta muxu handi bat etxekuen partetik, bereziki Beñat eta Maddik.




ARRASATE Nahia Irazola Mungia
Urriaren 18an, 10 urte. Zorionak, Nahia maitia! 10 urte, *guapísima!* Jarraitu ezazu holako neskatila ederra eta majia izaten! Asko disfrutatu zure egunean! Maider eta amatxo.



ARRASATE Gorka Zubizarreta Lasaga
Urriaren 17an, 34 urte. Zorionak! Zure aita eta amaren partetik; eta ondo-ondo pasatu zure urtebetetzea. Muxu bana!



OSINTXU Oier Laskurain Gabilondo
Urriaren 17an, 4 urte. Zorionak, txapeldun! Ondo-ondo pasatu zure eguna eta muxu potolo bat etxekoen eta bereziki Auritzen partetik.




ARRASATE Tamara Hernandez Fernandez
Urriaren 16an, 24 urte. Zorionak, amatxo!



ARAMAIO Leire Elejalde Babarro
Urriaren 16an, 12 urte. Zorionak bihotz-bihotzez etxeko danon partetik!



ARRASATE Unai Velez de Mendizabal
Urriaren 16an, urtebete. Zorionak, potxolo! Kandelatuari putz itxeko prest? Muxu handi bat danon partetik eta Maialenen partetik belarri tirakada fuerte bat, *guapo!*



ARRASATE Oihan Gonzalez Prol
Urriaren 15ean, urtebete. Zorionak, pottoti, osaba, izeba eta lehengusina Iriaren partetik.



ARETXABALETA Lore Martinez Axpe
Urriaren 15ean, 41 urte. Zorionak, Lore! Pasatu dela beste urte bete bat! Baina beti bezain guapa jarraitzen duzu eta zurekin ospatzera joango garen, prestatu kafetxo, eh? Muxu handi-handi bat zuretzat familiakoen partetik baina bereziki Oxel, Lur, Hodei eta Beñatek! Zorionak!



OÑATI Eneko Moia Bikuña
Urriaren 14an, 4 urte. Zorionak, txapeldun! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetzean! Patxo potolo bat etxeko danon partetik!



BERGARA Uxue Garitano
Urriaren 13an, 7 urte. Zorionak, printzesa! Espero dou egun zoragarria pasatzia eta opari asko asko jasotzia! Jarraitu beti bezain jator! Mila muxu, Marisaren etxekuen partetik, bereziki Kenar.




ARETXABALETA Lore Zetza Iturbe
Urriaren 13an, 10 urte. Zorionak familiako guztien partetik eta bereziki Maren, Kepa eta Juneren partetik.



BERGARA Oihana Tabares Bueno
Urriaren 12an, 2 urte. Zorionak, txiki! Muxu handi bat etxeko guztien partetik.



ARETXABALETA Auritz Villar Urrutia
Urriaren 11n, 2 urte. Zorionak, Auritz! Jada bi urte! Patxo potolo bat Ilargi, aitaixo eta amatxon partetik. Mua!



ARRASATE Aratz Garcia del Fresno
Urriaren 11n, 2 urte. Zorionak, txapeldun! Ondo-ondo pasatu eguna eta muxu potolo bat etxekoen partetik. Altza porree!



ARRASATE Iraitz Lazpita
Urriaren 10ean, 8 urte. Zorionak denon partetik. Maite zaitugu!



BERGARA M. Pilar Larrañaga
Urriaren 10ean, urtebetetzea. Zorionak eta urte askotarako, amama! Patxo handi bat etxeko danon partetik!



ARAMAIO Hegoi Azkarate Arriolabengoa
Urriaren 10ean, 4 urte. Zorionak, Hegoi! Ondo ibili eta patxo handi bat guztion partetik. Amatxo, aitaixo, Oihan eta lehengusina Lide eta Garazi.



ARRASATE Eider Abarrategi Garay
Urriaren 9an, 8 urte. Zorionak, Eider. Ondo igaro zure eguna eta patxo potolo bat zure familiaren partetik.



OÑATI Alaia Perez
Urriaren 8an, 32 urte. Zorionak, amatxo! Ondo-ondo pasatu eguna! Horrelako alai eta guapa jarraitu! Muxutu potolo-potolo asko eta 32 tirakada, familia guztiaren partetik, baina bereziki, Mario eta Enzok.



ARRASATE Lorea Ibarra
Urriaren 8an, 10 urte. Zorionak, bihotza, aitaixo, amatxo eta Unairen partetik.



ARRASATE Lur Garcia Lopez de Bergara
Urriaren 5ean, urtebete. Zorionak, Lurtxo! Urtetxo bat gurekin! 1000 muxu!

Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak. Hiru bide dituzu Goienaren bidez zoriontzeko:

Internet

Sar zaituz Goiena.net atarian eta *Zorion agurra bidali* botoia sakatu. Bete eskatutako datuak, eta bertan argitaratuko da zorion agurra. Baita GOIENA paperean ere.

Posta elektronikoa

Mezua bidali zorionagurra@goiena.com helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

Ordezkaritzak

Etor zaituz Goienaren ordezkariaren batera.

JAIOTAKOAK



Eneko Berrio Garaitonandia

Otxandio. 2,460 kilo. Irailaren 17a. Gurasoak: Josune eta Gorka. Argazkian, Eneko Irati lehengusinareen besotan.



Aitana Mendia Valor

Antzuola. 2,940 kilo. Urriaren 8a. Gurasoak: Asier eta Anuska. Argazkian, Aitana gurasoekin.



Hodei Velasco Aldai

Aretxabaleta. 3,090 kilo. Urriaren 8a. Gurasoak: Ane eta Oskar. Argazkian, Hodei amarekin.



Marc Sanchez Delgado

Oñati. 3,050 kilo. Urriaren 6a. Gurasoak: Sonia eta Unai. Argazkian, Marc gurasoekin.



Gorka Bereziartua Altube

Aretxabaleta. 2,700 kilo. Urriaren 9a. Gurasoak: Ainhoa eta Igor. Argazkian, Gorka jaioberria sehaskan.



Mikel Garmendia Elkoroberezibar

Tolosa. 3,600 kilo. Urriaren 9an. Gurasoak: Ana eta Aitor. Argazkian Mikel kuman lo.



Anje Blazquez del Pozo

Arrasate. 3,470 kilo. Urriaren 9a. Gurasoak: Marisa eta Iker. Argazkian, Anje amarekin.



Hodei Maiztegi Uribesalgo

Bergara. 3,000 kilo. Urriaren 10a. Gurasoak: Miren eta Xabier. Argazkian, Hodei aitaren besoetan.



Kaiet Migales Garcia

Elgoibar. 3,490 kilo. Urriaren 10a. Gurasoak: Alaine eta Valentin. Argazkian, Kaiet jaioberria aitarekin.



Malen Gorro

Eibar. 3,300 kilo. Urriaren 6a. Gurasoak: Leire eta Igor. Argazkian, Malen sehaskan lo.

BABESLEA

210eko deskontua familia ugarietzako
Arropa eta zapatetan

tipi tapa
Oinetakoak
Arropa
Jostailu hezigarriak

Otalora Lizentziaduna 25
ARRASATE
Tel.: 943 79 17 47
tipitapa@hotmail.es

Jarraitu gaitzazu
Facebooken:

DENBORA-PASA

HITZ GEZIDUNAK

	Lurraren bildukina	Banandu	Itsas arraina
Kirolaria	Tellatuko ohola	Olatuak, uhinak	
Eskoriatza-ko elizatea	Gorputz atal		
Buru	Ahalmen		
Soingaineko txanodunak	Alaitasunak		
Kirol mota	Berako auzoa		
Ezin luzatuzko	Ohorezko hitz emate		
Maiz, askotan	Nor pluzalean		Errepikatuz, gorotza
Heuk	Bokala		
Zakutoa			

BILA-BILA 7

Bila itzazu zazpi ezberdintasun bi irudien artean.




SOLUZIOAK

HITZ GEZIDUNAK

A	K	E	N	V	K	I	H
K	A	R	I	V	R	S	
N	I	Z	E	A	Z	U	L
V	I	Z	F	L	O	G	
K	I	V	S	U	P	K	
E	R	E	O	T	B	N	
N	A	R	I	M	A	R	
V	L	E	T	A			
P	B	A					

BILA-BILA 7



AI, ENE!

Sortu zeure animalia mitologikoa

Unikornioak ez direla existitzen? Baliteke, baina adar honekin edozein katu bihurtu daiteke izaki fantastiko.
www.nopuedocreer.com




AHOBERO

"Ez dut ezagutzen antzerkirik egiten duen jokalaririk"

VICENTE DEL BOSQUE | FUTBOL HAUTATZAILEA

Del Bosque zerbaitek bereizten badu, bere izaera da hori: gizon lasaia dirudi, atsegina, haserretzen ez den horietakoa. Ez zaizkio polemikak gustatzen, eta gauzak daudden moduan, txalotzekoa da hori. Baina hitzokin, zenbaitetan zerura begira egoten dela dirudi.
www.elpais.com

EGURALDIA



Max. 16°

Min. 10°

Astelehen goiza aurrera joan ahala goibeltzera egingo du atzera eta euria izango dugu.
euskalmet.net

ASTELEHENKOA

goiena

2012-10-15

HAMARREKOA

Iñaki Lopez Zer dute komunean 60 minutos erreportaje saioak, *iAma, vótame!* lehiaketa musikalak eta *El conquistador del Aconcagua*-ren debateak? Aurkezlea, 39 urteko portugaletarra | TXOMIN MADINA

"Ez naiz mendira igotzekoa goian merenderorik ez badago"

1. Hainbeste saio aurkeztu ostean, zer geratzen zaizu egiteko?

Beti izan dut apur bat denetik probatzeko zortea; Telebilaon emaztegiaren desfileak ere aurkeztu nituen! Goizaldeko teledendak eta *Teleberri* geratzen zaizkit.

2. Inoiz izan duzu erreko zaren beldurrik?

Sarritan; arrisku hori badago. Aurkezleok badakigu lehenago edo beranduago kamaren beste aldean birziklatu beharko dugula. Gainera, beti daude batzuetan luzeak diren atsedendia.

3. Estreinatutako azken saioa lehiaketa musikal bat da. Nola gertatu zinateke horrelako baten?

Gaizki, ahots txarra dut. Kantariak baino, instrumentuak jotzen dituztenek eman didate inbidia. Baina anis botila batekin eta koilaratxoarekin ere desafinatuko nuke!

4. Patagonia eta Aconcaguako kontuak platotik ikusten dituzu. Zeu joango zinateke hara?

Saiatu dira Aconcaguarako tentatzen, baina ez naiz mendira igotzekoa goian merenderorik ez badago. Momentuz, ez naiz oso abenturazalea eta neure burua frogatzeko beharrik ere ez dut.

5. Goizetan aurreko eguneko audientzia datuak ikustea...

Lanbideko okerrera da. Saio finkatuenekin ere, urduriago jartzen naiz audientziarekin zuzenekoekin baino. Azterketako notak jasotzea bezalako da.



AGM

MAKILA MAGIKOA BANEUKA...

"Bankuak ordaintzera derrigortu"

"Zerbait magikoa egiteko boterea banu, bankuak derrigortuko nituzke euren eta euren zikoizkeriaren kulpagatik sortu den barrabaskeria hau guztia ordaintzera. Euren aberastasuna hartu eta herrialdea altxatzen inbertituko nuke. Uste dut ez litzatekeela epaitegirik egongo hori egitea aurpegiaratu lidakeenik".

6. Pásalo-n sei urte eman zenituen gaurkotasuneko eta zuzeneko saio bat aurkezten. Azkar esaten da!

ETBn horrelako zerbait egin zen lehen aldia zen; politikaren alde egin genuen eta funtzionatu egin zuen. Askotan eman zidan: beste kateetatik deitzen zidaten eta askotariko ahotsei egin genien lekua.

7. Zenbatetan pentsatu duzu: "Isilik egon izan banintz..."

Askotan. Erreza da gertatzea sei urtetan egunero bi ordu eta erdiko zuzeneko egiten baduzu. Hanka sartzean, onena da zuzentzea eta barkamena eskatzea; horretarako ez dut arazorik.

8. Aurtengo Okondoko txakolina babestu duzu. Zenbat botila dituzu?

Txakolina asko gustatu arren ez nuen Okondokoa ezagutzen eta aurkikuntza bat izan da. Pare bat kaxa badituzte etxean. Pena ez izatea sei hilabete behin!

9. Gomendatu motor gainean egiteko bidaiaren bat.

Motorzalea naiz, baina lasai doanetakoa, paseatzea gustatzen zait. Gomendatzeko moduko ibilbidea da Bilbotik Urbaneja del Castillo ingurura joatea; baita Bilbotik Santanderrera joatea ere.

10. Zure azken 60 minutuak zertarako erabiliko zenituzke?

Bakarrik behintzat ez, konpainian emango nituzke; seguru asko emakume batekin. Ez nuke une bat ere emango egindako ezertaz damutzen.


BIHARAMUNA

ITXARO ARTOLA



Asteburu pasa euskalpark-en edo

Jendea badabil kontzientzia hartzen. Gazteak, batez ere, hasi dira mugitzen..." kontatzen digute ostatu Nuriak eta Joane Aezkoako herritarren euskaltasuna hizpide. Afaltzen bapo eman eta gero abegitsu hartu gaituzte etxeko egongelan eta konplizitatez ari gara hitz eta pitz, geure aberriez eta espainolen aberiez. Ez dute gertu ikusten Katalunia lliure. Mesfidati dira botere alderdiarekiko, ezkeriarren arteko lizkarrekiko, ekonomiak bultzatuta independentzia nahi dutenekiko. Guri, ordea, urrutiko hotsak iruditzen zaizkigu euren kezka, gaurko eguneko oinarrikoagoak baitira gureak. Gozatu egin baitugu Azpegiko trikuharrien bidean; horditu egin baikara amasa ematen digun Iratiko kolore festan; inbidiaz miretsi baititugu inposatutako mugetan aske dabilzan ardi latx, behi gorri eta behor autoktonoak; zintzurra freskatu baitugu Errobiren sorburuan larreatzen duten artzainen begiradapean; eta euskal mahai-zapidun mahaietan bazkaldu, eguzkilorez babestutako bentatan; Euskal Herrian sentitu baikara, funtsean. Baina, halere, aeztarrekin hitz egiteko parada izan dugunetan behin bakarrik egin ahal izan dugu tokiko jatorrizko hizkuntza, euskaraz. Eta, honenbestez, saihestezinak izan dira katalanei egin dizkiegun galderak: Euskalpark-era etorri al gara? Eta non jarri dituzte euskaldunak? Kontzientzia hartzen itxuraz...



ARKAUZ
MUEBLES
ARETXABALETA



ARKAUZ
COCINA INTEGRAL
ARETXABALETA FAGOR
banatzaile ofiziala

GRUPO ARKAUZ
ARETXABALETA 1950-2012 ARRASATE

60 urte baino gehiago

Arkauz zure etxea da.

ETXE MOBEL
ALTZARIAR
ARRASATE



ARKAUZ
ELECTRODOMESTICOS
ARETXABALETA expert
banatzaile ofiziala

